EGAN

1-3

1961

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Págs.

J. Mirande: Berterretxen kantuaz oharpen bat 3

Aginaga: Behar ginuen bakarra.. 6

G. Aresti, Bingen, Aurraitz, Lasa Olerkiak, ... 10

Erderazko lau poeta (A. Figuera, B. de Otero, G. de Zelaia, J. M. Basaldua) 21

Intxausti'tar J.: Nora goaz gizonok? 46

D. Peillen: J. M. Satrustegi, Bitaño, D. Ayerbe: Kontu kontari.. 52

Urrain: Ejipto'ko gizalantze miresgarria 71

Aurre-Apraiz: Donibaneak..... 101

Muxika'tar K.: Ez bizi ta ez il.... 104

D. Peillen: Munduz mundu..... 108

Apat-Etxebarne: Naas-maas..... 110

A. A.: Jan-edanak 116

Adabakiak..... 122

L. Mitxelena, G. Ansola, M. Artabia: Zinema..... 129

L. Mitxelena: Liburuak..... 141

Euskal-sariketak..... 153

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

Números 1-3 Enero-Junio 1961.

H. A. B. E.
Liburutegia

EGAN

H. A. R. E.
Librería

DEPÓSITO LEGAL: S. S. 289 - 1958

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca | Vol. XVIII | Enero-Junio, 1961

BERTERRETXEN KANTUAZ OHARPEN BAT

Euskaltzale gehienek gogoz ba dakite dudarik gabe *Berterretxen Khantoria,* Zuberoako eta, irizlari zenbaiten ustez, Euskalherri orotako eresi zaharretatik ederrena. Mitxelenak bere Euskal Literaturaren Historian idazten duen bezala: "Oído de labios de un suletino, con su sobria melodía y su ritmo grave, es un auténtico eco del pasado, milagrosamente conservado en la frágil memoria popular." (p. 42). Egoki litzake soinu-argitaldari batek disko batean ezarririk eman ba liezagu, Zuberotar batek behar den moduz kantaturik, azken urteotan hain ugari argitara ohi diren baserritar folklorekerien ordez. Bainan ez da hau ene mintza-gai.

Euskalherri guztian hedatu den 15 ahapalditako versionea J. D. J. Sallaberry-ren *Chants populaires du Pays basque* (1870) delako kantu-bildumari zor bide diogu eta euskaltzale mauletar honen gandik hartu dute gero argitara duten beste euskal-kantu-bildumagileek, hala nola Jon Gorostiagak, Aita Onaindiak, Laffitte-Etchemendy-k e.a. Nik Zuberoan ene etxekoen edo auzoen gandik orain artean entzun izan dudan versioneak ere, gizalditik gizaldira ahomihiz heldua ta ez liburuetatik hartua izana gatik, ez zuen Sallaberry-k dakarren versionetik arte handirik, kantatzaileak hitz edo neurtitz bat-edo-beste aldatu eta, zenbait aldiz —ahaztu egin zitzaiolakotz edo sekula jakin ez zuelakotz— ahapaldiren bat aldera utzi gora behera.

Bainan egun batzu direla, ene aita eresi zaharra kantatzen ari zelarik, ohartu naiz 13- eta 14-garren ahapaldien artean gainerako

ahapaldi bat emaiten zuela, nik behintzat ezagutzen ez nuena eta Sallaberry-k ez dakarrena. Berterretx bera da mintzo bertan eta honela dio:

"Ezpeldoian nintzanian
Janak ba nian zer egina:
Haritx bati esteki eta,
Bizia han galdü nian."

Aitak esan didanaz, bere haurzaroan ikasi zuen Berterretxen kantua Allande Bidegain, Sohüta-Gollart-eneko etxeko-jaunaren gandik. Allande hori, ene amonaren ahizpa batekin ezkondua zena, 1850-garren urte inguruan jaio omen zen; Zuberotarra zen, bainan ez dakit haren leinuaren jatorria nongo zen. Noizkoa da, ta nork egina, kantatu ohi zuen ahapaldi gaineratiko hau? Kantu originalaren egileak berak, ala hurrengo gizaldietako bertsolariren batek, askotan gertatzen den bezala bertso herrikoietan? Hizkuntzatik ez da ezagun, jakina, oraingo zuberotar hizkelkian emana baitago.

Halaz ere, hitz-altxorraren aldetik, hitz ohargarri bat dakar ahapaldi horrek: bigarren neurtitzeko *janak*. Nik ez nakien zer esan nai zuen (ez da "jan" aditza, jakina), sekula ez bainuen orain artean entzun, ez eta inon irakurri. Parisen galdekatu ditudan Zuberotar batzuek ez zuten ezagutzen eta Lhandek ez Larrasketek ez dute beren hiztegietan emaiten. Bainan, ene aitak dionaz, zuberotar hitz jatorra da ta "hatik" (=hargatik) bezalatsu erabilten omen da: esan nai duke, beraz, edo "halaz ere, orraitino", edo "egiaz, benetan". Adigarritzat bertso jostagarriok eman dizkit: "Janak eztüta trempü hun / Ardû hunez ase ondun"; eta oharpen hau idazten hasiz geroz Beñat Mardo-ren kopla batean hatzeman dut: "Lau egun Barkoxen, janak, / Dütinak igaraiten / Entzün gabe merexiak / Segür ezta phartitzen..." Nire susmoa da *ja-* errotik datorrela; beharbada "jadanik" da, laburturik? Azken hitz hau, ordea, ez dugu Zuberoan usatzen, orain behintzat.

Beste ikusgune batetik ohargarri zait ahapaldi berri hau: Zuberoako jendearen ustez Berterretx nola hil zen, nola erho zuten, jakin erazten digulakotz. Haritz bati esegirik bizia galdu omen zuen zuberotar aitor-semeak. Bainan ez zen noski urkatua izan: ba dakigu lehenago, kristau herri gehienetan —Islam-lurretan ez bezala— gizon odol-garbikoak ez zituztela urkatzen hiltzera epaiturik zirenean, bainan lepo egiten, gaizki itsusiegirik egin ez ba zuten bederen (eta eretz hortatik Zuberotarrak oro aitor-semetzat joiten zituen herriko Foruak). Beaumont-eko kondeak ez zukean halaz ere beldurkunderik izango bere etsai amorratuari urkamendiko herio lotsagarria paira

eraztekotz, bainan kantuaren hurrengo ahapaldiak diosku: "Ezpeldoiko alhabak... Berterretxen odoletik ahürkaz biltzen ari da." Beraz zauri batetik odola ixuririk hil zen Berterretx, ez itotzez.

Heriotze-mota horrek gogoratzen du bitxiki erromatar konkistaren aurreko Galian usantzan zegoen giza-sakrifizio bat, Lukan poetaren eskoliasta bati eskerrak ezagutzen duguna. Alabainan latin poeta horrek Galiarren hiru jainko nausiak aipu ditu bere *Pharsala*-n: Teutates, Taranis, "*horrensque feris altaribus Esus*" (="Esus ikaragarria, basa-aldare batzuen bidez...", ematzen dutela, alegia) eta eskoliastak dio, neurtitz horren azalgarritzat: "*Hesus Mars sic placatur: homo in arbore suspenditur usque donec per cruorem membra digeressit.*" (=Esus Marti honela ematzen da: gizon bat zuhaitz batetik zintzilikatzen dute odola galduz gorputza akitu artean). Egia da beste lekukotasun zehatzik ez dugula sakrifizio-mota horren gainean, eta uharteetako Keltek ez zutela ezagutzen, dirudienez, Galesherriko ta Irlandako mythologiak ikertzetik ageri den araura. Bainan ba dakigu eretz askotan beren gisako ohiturak eta ohikundeak zeuzkatela leihorreko Keltek. Onhar dezakegu, beraz, Galiarrek —Germanen edo Germaniako Kelten eragintzaz beharbada?— Esus beren baso ta gudu-jainkoa ohoratzea gatik gizonak sakrifikatzen zizkiotela, zuhaitzei esegiz (zuhaitzak eta batez ere haritzak, Kelten arbola sagaratuak, baitziran jainkoaren "basa-aldareak), ez ordea lepotik urkaturik bainan besoetatik edo gerritik loturik edo nola ere baitzen, eta gero zaurituz, non eta nola ez dakigu, hala non viktimak odolhusturik hiltzen baitziran.

Euskalherrian ere aintzina holako giza-sakrifizioak izan ote ziran, oihanetako jainkoren bati eskeiniak; gero, herria kristautu ondoren, erligino-kutsua galdu ba zuten ere, usantzan egon ziratekeanak hiltzera epaitutakoak erhaitekotz? Berterretxen kantu osotuak hori uste izaitera haizu uzten gaitu, ene aburuz. Ez da ahaztu behar, Barandiaranek gure folklorea ikertuz idoro duen bezala, Euskaldun zaharrek Indi-europarren kulturako elemendu hanitz jesan zituztela; eta auzo izan dituzten Indi-europarren artean, Latinen aurretik, leihorreko Keltak izan dira, ez beharbada lehenak, bainan bai kultura landuena izaki beste herri bati gehienik eragin zezaioketenak. Ez litzake beraz handi aspaldiko Euskaldunek Kelten erliginoa parteka jesan ba lute, ez noski druiden metaphysika intelektuala, bainan herri komunaren polytheismuko itxurak eta mythoak, hala nola baso- eta gudu-jainko bat giza-sakrifizioz ematzen zutena.

JON MIRANDE.

BEHAR GINUEN BAKARRA!

Jauna, zentzu-gabekoak munduan zear benatzen dituzularik Euskal-erriarentzat atxikia duzun saski joria ez dea oraindik akitua? Gainezka eginik bai gagoz! Ehun urte ta gehiago pasatuak ditugu itzen kontrako gudu ikaragarrian, eta oraingoan... Oraingoan juduen kontra abiatu behar omen dugu!

* * *

Irakurria dut, egun batzu direla, "Prix Goncourt" delakoaren ingurukoai buruz Jon Mirande-k eginikako artikulua (1). Nondik sortu ditu, juduak, judu-zaleak eta judu-etsaiak direla-ta izkiriatu dituenak oro? Hango ustegoen gogoratzekotz ez da bide bat baizik: mundua eta gizonak antisemita amorratu baten begiez ikustea. Hango aldekoikeria, ez-jakinak, xinplekeriak eta... "ez-egiak" erokeria zahar baten agertze berriak ditugu: antisemitizgoaren, alegia.

Horik hola, Mirande-ren artikulua hondotik aztertzea ezin berez daiteke delako "filosofia" hortatik (2). Alta ba, antisemitizgoaren kritika amaika bider egina izanki, jarraiki behar duguia holako "gauza" bati oldartuz, hango utsak behin eta berriz salatuz, azkenik ga-

(1) Ikus "Egan" 1960, 3-6.

(2) Beste-alde, juduen etsaiekin hauxe dugu beti-ereko hixtorioa. Horren gaitik, heen teorien oin-arria ikustekotz beharrezkoak liretezkeen gertaera eta proba konkretuen bila asten garenean, berehalaxe agertzen zaigu hunakoa: antisemitizgoaren "egia" *aurretikan* on-artu behar dela, haren aldekoek nahi bezala "gertaerak" eta "probak" ikustekotz. Pentsaera horrek beti sasi-abstraktutik konkreturat egiten du bide, behin ere ez kontrako alderat. Batzutan (hala nola "intelektual ustelen" aurka egiten dutelarik), aldekoek ere aitortzen duten bezala, arrazoinaz eta experientziaz kanpo azitzen da, ta mugitzen, delako gogo-egoera: nahi-menez, ahal-menez, majiaz- eta erabili mundu berezian. Aspaldi danik ikasia dugu, "filosofia" harek ez duela inoiz *pathos* baten maila gainditu. Harat eta, batez ere, hura moldatzen duten kondizione ta hondoko kausa guztietarat bildu behar gure egin-ahalak, zerbait ulertuko ba dugu.

beko "Affaire Dreyfus" batetan murgilduz? Ez nik uste. Izatekotz, ordu genuke parrari emateko.

* * *

Orain zortzi urte duelarik, Mirande-k izkiriatu zuen, Europa-ri laudorio eginez: "Oriente-ko doktrina, (...) Europa hunetan erro hartzekotan, hemengotarren *Weltanschauung* bereziari egokitu beharr zaio, nahi ala ez. Europatarrak zuzentza nahi du, bai eta nuantzak". Hunako huntarak eraman dutea Mirande zuzentzak, nuantzek eta delako *Weltanschauung* horrek? Hitler berritsu erdi-zoro baten "ideiak" on-artzerat? Holako etsenplua ikusi-ta, europatar ugariak bilduko direla nago Konfuzius-en ganat, edo Oriente-ko nor-nahiren ganat...

Oro har, beldur naiz Mirande-k ez duela behar bezain xeheki bere pentsaera erakutsi, pondu batzu direla-ta. Juduak eta beren zaleak, besterik ba diote ere, libretasunaren eta berdintasunaren alde ez direla esaten daukunean, nor-baitek uste izan dezake Mirande bera *ba dela* "gauza" horien alde. Ba, aspaldi danik haren lanak irakurtzen ditugunoek ba dakigu holako irain izugarria ezin jasan lukeela. Mirande-k beti pentsatu bai du erriek elgarren kontra gogor ekin behar dutela ta —haren itzak erabiltzen ditut—, erri "basa, borthitz eta handiek, otsoek, guduzaleen spiritu aristokratikoa" dutenek, zanpatu behar dituztela "ahulagoak, bildotsak, bakezaleak eta hauzo onak". Bainan Mirande-k, non-bait gizon apala da-ta, ez omen du neurri gabetanik bere spiritu aristokratikoa erakutsi nahi. Horren gaitikan-edo ez dio hemen, zertako behar den puskatu juduek egiten dutelako ertsapen ezin-jasanezkoa: gerokoan juduak gogorrago zanpatzeko, alegia.

Dena den, Mirande-ren adiskideak garaituko ba lire, juduek ez lukete "Prix Goncourt" hori bakarrikan galduko... "Beraz —dioke bake-zale hauzo-on gaixoren batek—, esan bezain ahal-men izugarria balin ba dute oraingoan, zer gatik ez dituzte juduek askoz zanpatzenago beren etsaiak?" Berehalaxe europatar basa-jaun adimentsuek arrapostu: "Hain zuzen ere handik ikusiko duzute nolako izaki arradoak, bereziak, nardagarriak eta infra-gizonezkoak diren juduak." Eman dezagun, mail hortako intelektual gogo-zorrotzekin ez dugula guk eztabada askotan garaile ateratzeko itxurarik.

* * *

Beraz, ezin-bestearen ezin-besteaz, nihau ere aritu naiz asmatzen zer egin behar lizatekeen, hebreutarren etsai gaixoen aurka muntatzen

diren gaiztakeria izugarrien suntsitzekotz. (Otoi, ez uste ukan holako egin-bidean zein-gehiagoka asi nahi dudanik! Ezagun ditut nere mugak. Eta lan hartan maixu direnen tituluak ezin ukatuak direla dadukat. Nere hemengo ideiak, literaturari buruz bakarrikan emanen ditut, handik aristokrata-usai pixka bat bederen lortuko dudalakoan.) Hara, ba, nola ikusten dudan nik Mirande-ren eta mirandetar basa-jaunen paradisua.

Luzaro gabe bete behar liretezkeen xedeak:

1. Goncourt Akademi-aren Presidenta kendu, eta haren lekuan Eichmann jarri.

2. Urrengo Goncourt Saria "Mein Kampf" liburuari eman.

3. Horik on-artzen ez dituzten juduak, judu-zaleak eta batez ere juduek pagatuak garenok, zigor-zelai politerat eraman, *Weltanschauung* zer den ikas dezagun.

4. Zelai haren zigorrak, errien izaera bereziari begira moldatu. Adi-bidez, euskaldunen bat gaztigatu behar denean, hauxe egikera biziki egokia: bakar-bakarra utzi-ta, irakurri beharko du euskara garbi-zale baten liburu bat, oso-osorik. Hala ere, bakan, neurriz eta kontuz enplegatu behar da zigor hori, eta ezagun diren beste guztiak alperrikan emanez gero. Bestela, matxinadak sortuko liretezke.

5. Kultura bereziak ere azi, han, "nagusien morala"-ren ogiaren bidez. Ikus zer bertsu politak konpondu ditudan, etorkizunari begira, nahiz-eta Mirande bezainbateko poeta nuantza-zalea ez naizen:

Agur, nere biotzeko amatxo maitea,
Ez naiz behin itzuliko, ez zaitez kontsola.
Gaur beharrezko zaigu judu-zanpatzea,
Handik omen sortuko euskaldun gloria.

6. Europatar egiazko-kulturaren liburu goienak euskaraz argitaratu, hala nola "Nationalsozialistiches Strafrecht Denkschrift des Preussischen Justizminister" (3). Euskarazko itzulketa Mirande Jaunaren gain emanen da, diru-ordaintzarik gabe, haren kultur-zaletasuna saristatzeko.

7. Elgartasun berri bat ere muntatu, bide horietatik egitekotz euskararen alde. (Oraingoan zortzireun ta berrogei ta amazazpi-edo ditugu-ta, beste batto ukanik ez dut uste gaitz aundirik jasoko dugun.) Elgartasun horrek Mondragoe-n egin behar-ko lituzke batzarrak, hartan ukanen bai ditu ezin-utzizkoak oro.

* * *

(3) Berlin, 1933. (Nor-baitek, ezin-egonaren ezin-egonaz, itzulketaren zai izan gabe irakurri nahi balin ba du.)

Esana da, irria gizonaren berezgoa dela. Dena den, beti pentsatu dut gizonak on duela behin edo behin irri egitea gauza larrienen kontu, eta batez ere, bere buruaren. Hortan dugu noski senda-gailu ederra dogmatizgoa guztien kontra, eta aurrera bidean eragile egokia.

Hala ere, hunat eldurik artikulu huntan, gogoratu zait ea ez den nere irria halako kirrizka batekin ateratzen. Ez da arritzekoa: gai ugari balin ba dire munduan edo-zein irri izoztekotz sortu-arau, ez dea nabargarrienetakoa gure denborako juduen kondaira?

Mirande-ren artikulua bezalakoak milaka ere sortuko ba liretezke euskal-agerkarietan, ez dut uste inork pentsatuko lukeen, hori dela euskaldunen ustegoa. (Samingarri zait, badarik ere, Mirande-ren mintza-era euskaldun irakurleentzat egiten duelarik: "dakizuten bezala...", euskaldunak zozokeria horietan akort garela bai leki bezala, aurretikan.) Alta ba, lan huntaz nahi ditut behinik behin ixiltasunaren arriskuak ere aizatu.

Bada Paris-en jende asko Mirande-ren joera horien goratzeko gerturik. Ez dire —gure-erri kideak besterik esanik ere— ez juduek ez inork zanpatuak. Bai zera! Politika dela, edo dirua, ba dute horiek ahala. Bainan, zinez uste ahal du Mirande-k euskaldunen artean aurkituko dituela bide hartarako lagunak?

AGINAGA.

ZUZENBIDE DEBEKATUA

(Miren eta Joaneren historiaren hasiera)

(1960 - 1961)

Lizardi-saria irabazi etzuen poema (1).

ZUZENBIDE DEBEKATUA.

1. Karta-jokoa.
2. Nire grazia.
3. Janjan motzaren erak:

---

(1) Orrialde oetan eskeintzen dizuguna, irakurle, ezta *Zuzenbide debekatua, Zuzenbide debekatua*-ren aurkibidea eta ahapaldi banaka batzuek baizik, andik eta emendik alabearrez eskura zitzaizkigun gisa autatuak. (Egia da, bai, autatuetarik bat edo beste baztertu bearrean aurkitu gerala gero, ez ordea bertsoak oker neurtuak zeudelako.) Dena den, uste dugu bertso mordoxka bakan onek emango duela aditzera, bere urrian, poemaren mamia eta joera. Eztago esan bearrik, agerrian baitago, nondik datorkigun orain aizea. Aresti'ren poema egungo eguneko gizarte-poesia edo poesia sozialaren bideetan barrena dabil (gogora, esaterako, Figuera, Aragon, Nezval, Hikmet) eta eztitu, beste apaingarririk artzen badu ere, erriaren izkera eta jazkera gutxiesten, ezpailukete bospasei irakurle ikasirentzat bakarrik ari nai. Dei berri bat dakar berriz ere, zorionez, euskal-idazle gazte batek eta geure kaltean egingo genioke entzungor zaarragoek, entzungor egin bagenizaio. Aresti'ren neurtitzetan gaiñera, onek edo orrek besterik uste badu ere, maiz nabari diteke aaztuxe dauzkagun euskal-idazle zaarren oiartzuna. Eta auxe da arritzekoena eta pozgarriena: gaurko auzi gorien deadar bizia eta antziñako arbasoen izkera sendoa Bilbao'ko kale erdaldunetarik datorrela orain gure biotz-belarrietaraiño, euskeraren onerako. (L. M.)

a) Ekarrera.
b) Jasoera.
c) Betiera.

4. Zuzenbide debekatua.
5. Joaneren bihotzak.
   Miren eta Joaneren aurreneko aintzin-solasa.

ARGUDIOAK:

1. Ait: Ego vox clamantis in deserto. (Joane, I, 23.)
2. ...cum corriperetur ab illo de Herodiade... inclusit Ioannem in carcere. (Lukas, III, 19-20.)
3. ...cumque... filia ipsius Herodiadis... saltasset... placuisset... (Marki, VI-22.)
4. ...caput eius in disco... (Mateo, XIV, 11.)

ESKEINTZAK:

1. G. M. Z.'ri eta haren laguneri.
2. Anjela Figuera Aymerichi.

1. KARTA-JOKOA

ERREGEKO URREA: *Walt Whitman.*

Walt Whitman bizarduna badoa kantari
Patri Arka berri bat dirudi ta hari
Ekarri dizkiote loreak ugari
Ohore eman dezaion udaberriari
Goiko mendiari
Eta hibaiari
Emakumeari
Eta gizonari
Bainan oroz gainetik bere buruari.

2. NIRE GRAZIA

Nire grazia Joane da ta
Nire ama zen ederra
Haren moduan hegazi doa
Baso artean eperra
Horregatikan merezi zuen
Andre guztien aiherra
Neska-denporan eman zioten
Harma gaberiko gerra.

Nire grazia Joane da ta
Orain banoa abian
Desastururik desabilena
Kantatzera kopla bian
Orain eztago batere bake
Fundatu nuen kabian
Alkate hori bizi delako
Urte guztian Babian.

Nire grazia Joane da ta
Neronen indar sendoak
Egun bi beso hauetatikan
Izan dirade kendoak
Lege berrian jarri dituzte
Fortunako emendoak
Meza batekin ebakitzeko
Urteko dibidendoak.

Nire grazia Joane da ta
Egin nuen alegina
Nire inguruan bilakatzeko
Bizi-molde atsegina
Tirani-legez fundatu zaigu
Parlamentu hitzegina
Denik motzena gure Goizparraik
Eta Beldubaik egina.

Nire grazia Joane da ta
Eztit axola arditikan
Esku eskuma biok sartzea
Herriaren politikan
Egia batzuk esan nituen
Arimaren erditikan
Egia gogor ta biribilak
Gizartearen kritikan.

3. JANJAN MOTZAREN ERAK

a) EKARRERA.
b) JASOERA.
c) BETIERA.

4. ZUZENBIDE DEBEKATUA

Orduan Joanek esan zion Mireni:
Gu bizi garen munduan,
aurkitzen garen jente-bitartean,
gizarte honetan,
zuzenbidea
debekaturikan
dago.

5. JOANEREN BIHOTZAK

Joaneren bihotzak
dirade bortitzak.
Eztitu bentzutuko
tiranoen hitzak.
Burnietan dabiltza
alferrean sitzak.
Foera bitez jabetzak
ta buruzagitzak.

Joaneren bihotzak
eztik barkatuko,
blankoaren arraza
inoiz onartuko,
haren okerbideaz
eztuk ahaztuko:
Hori egia dela
Jainkoa lekuko.

Joaneren bihotzak
eztezake erreza,
erlijio-kontuan
ezpaita arteza.
Hala ta guztiz ere,
pagatuz apeza,
Lumumbaren fabore
entzun zuen meza.

MIREN ETA JOANEREN AURRENEKO PROLOGOA

Miren eta Joaneren historiarekin jarraikitzen dugu, edo hobeki esanik, hasten gara. Hasi, zerren, aurreneko zatia baino geroago argitaratua badere, hura bukaera zen, eta hau hasiera. Ezkenuen pentsatu Joaneren beste berririk edukiko genuela.

Baina bersotarako dadukagun zaletasunak eraginik, egun batean Basaibarren agertu ginen. Basaibar! Nork eztaki Basaibar nun dagoen? Haren berririk eztakienak, galde dezaiola Oar-Arteta nobelagileari.

Bertan, baserritar zahar bat ezagutu genuen, Joaneren bersoak kantatu zizkiguna. Berso guztietako aurreneko puntuaren hastapena, berdina zen bertso guztietan: "Nire grazia Joane da ta..." Egia da ezen askotan aldatzen dela; 80 bertso bildu genituen, eta bakarrik hogeiean zioen "Joane". Gainerakoetan agertzen zen: Josepe, Martiri, Santuru, Petiri, Eztebe eta Jakoe. Orain arte eztugu aldakuntza hauen arrazoirik jakin.

Bertso batean dio nola Joanek liburu bat eskribitu zuen: "Jenioen Liburua". Lehengo egunean gure lagun batek deitu zigun, antigoaleko hiri zahar bateko arkeoloji-lanetan, gartzela bat agertu zela, eta zehaztasun guztien artean, karta-joko bat izanen zela guretzat oso interesantea, bertan euskerazko berso zaharrak eskribiturik zeudelako. Guretzat eztago batere duda, bertso hoek parte direla lehen aipaturikako liburuan. Beste arrazoirik gabe, hemen ematen dugu. (Karta bat falta zen.)

Erresuma honetako judizio-kodizeetan sartu dugu begia, hea nunbaitetik agertzen zen gure hauziaren berriren bat, eta gure alegin guztien premio, paper-bildumarik zaharrenean, orain mila urteko batean, paper oso apurtu bat eskuratu zitzaigun, gure iritzian Joaneren deklarazioa dena (lehen aipaturikako judizioan harek emanikako deklarazioa), horregatik egun hemen paratzen duguna. Erraturik baldin bagaude, etorkizunak barkatuko digu. Deklarazio hau, bertso ezten hitz neurtuan dago eskribiturik. Joanek etzekien esanik neurtzen, baina hitzak bai. Hitz neurtu hauk 1.291 dira. Esanak gehiago.

Azkenean Basaibartik abisatu digute, hango baserri bateko ganbaran, berso-paper zahar batzuk agertu direla. Korreoz errezibiturik, berehala jarri ginen lanean, (80) bertso guztiak kopiatzen, baina zoritxarrez 24 geratu dira irakurri gabe, hain zeuden paperak apurturik eta sitsak janik.

Irakurleari eskatzen diogu, eztezala poema honetan intentziorik ikus, oro direla antigoalean gertaturikako gauzak, eta baldin gaurko egoerarekin eta gertakizunekin antza edo itxura kausitzen baldin badio, errua eztela gurea, ezpada berea, hau dela justiziagatik pertsekutazioa sufritzen duenaren poema, eta bila dezala bekatua, ez sufritzen duenaren baitan, ezpada sufri arazitzen duenaren baitan, hau dela egiak esaten dituenaren poema, Jondone Joane Baptista baten poema.

Eta gaur eguneko euskal metodo batean esaten den bezala, akats edo hogen asko kausitzen baldin bada, eztitezila akats guzti hoek poemaren gainean bota, ezpada poemaren egilearen gainean, sufritzen duen gizona bezain zaharra den gizon horren gainean, Joane edo Josepe edo Martiri edo Santuru edo Petiri edo Eztebe edo Jakoe edo Gabriel deritzan gizon horren gainean.

GABRIEL ARESTI



MONA LISA

Pizkunde'ko lorea! zure irriparrean
bizi ta eriotzaren eskutuak dagoz;
zan eta izangoaren bulkoak ba-datoz
batez nire gogora zu ikustatzean.

Betiko emea zera, Bizitza-iturburu,
ametsetako aingeru, atsegin-ekarle;
begiotan, ordea, agertzen duzu ere
biotza pilpil yartzen didan alako izu.

Sorgiña! Leonardo'k zu sortaraztean
Lukrezi'ren edenaz eta Beatriz'en
yainkozko ikuskariaz amets egiten zun;

ta aurrez zerua eukita, lezea inguruan,
goiz-argi txiunta zale ta gau-illuntasun
isilla, zure irudi ortan, zitun batzen.

BINGEN.

Caracas, 1961. Otsailla.

IZUIKAREA

Azur-azurretan
ozta, ikutu neutsan
Balbe'ren itzalari...
Otzikara, ituna,
goibela... A bildurra!
So neban ingurura...

Ixil zetzan oro;
neure oin-otsak soil
arrasbera minduan.
Orbelezko malkoz
yoian udazkena
ames ausien gezna.

Illerri-inguruan
itzelak baitziran
egoiaren orroiak.
Azurren artean
gogaiak artega...
Balbe ebillan geraga.

Ostera be ikutu
neutsan, eta... Alako
izuikararik... Ene!
Orri illen illeta
-eresia entzun
neban oinpean, itsu.

Orduan oiñaztu
gorri batek goitik
-beera ebagi eban
ortzia; eun itzal
torka batera sar
ziran eriosuar.

Begiratu neban
lerdi illunetara,
ta Izadia itun-itun.
Baiña, Erio, ez
az ala bizitza
onen aldaketa utsa...?

AURRAITZ.

ABESTIAK

Taberna baten aurrean
nintzalarik amesti
bulkoak arrapatan
milletan zait jauzi.

Triste eresi bat
itzak ere triste
begiok nigarrez
itxasorat urtzen.

Poetaren gogoa
bizi dabil airean
amets-errian errege
mundu ontan pobere.

BAUDELAIREN GISA

Iguiña ta tristura begi bietan
gizonak ez diote engainatzen.
parre ta irri zurietan
aragiaren griñak ez du berotzen
bere ezpainik, ez biotzik.
Desprezio ta iguiña dario
begi bi beltzetatik.

Maite aunat maite,
kaletako zozoak ez beste.
Maite aunat maite
baña gorrotoz ta zoramenez
ire gorputza nire animaren truke.

POETA BERRIA

zure elea
ez da gurina ta esnea:
arria, itxasoa ta aizea.

Munduaren atsa
nai nuke atzeman
Europako bide ugarietan
(ainbeste jendetza ta ain bakar)
eguerdiko eguzkia adora
goizetik-goizera lana
arratsaldetan Jainko beltzakin josta.
(Baña ez dut ardura)
ta gabeetan
bide ertzean naiz ezarriko
arri-meta txiki baten alboan
ta ankak gurutzaturik
artuko dut gitarra,
bardoaren gisa,
ta eresi bat kantatuko
ardura gabe ta triste:
o iri, o izar, oi ortzi
ez duzute balio ezer.
Gizonaren irri ta keinu batek
zuetako milla balio dute.
O iri, o izar, oi ortzi
ez duzute balio ezer.

Eta poblatuko dut
ene animaren bakardadea
gizonaren irriz ta neskatxaren musuz.
Deituko ditut lagun berriak:
Fauno zârrak, ene lagunak,
bidetan zear zabiltzatenak;
Picasso'ren Arlekin oria
(Kafka bera ote pailazoz jantzia?)
Pierrot gorria
Eta mundu guztiko clown
arpegi tristeak
jazkera gorria ta txano berdea.

LASA'TAR MIKEL.

ERDERAZKO LAU POETA, BI GIPUZKOAR ETA BESTE BI BIZKAITAR:

ANGELA FIGUERA - BLADI OTERO GABRIEL ZELAIA eta J. M. BASALDUA

Gabriel Arestiren selezioa eta itzulpena.

ANGELA FIGUERA AYMERICH

AINGERUEN ZUZENBIDEA

I

Edozein dukesaren moduan, Alejandra zeritzan.
Haren esku erreetatik edertasuna sortzen zen.
Zikinkeria landuz, elurra arra-kreatzen zuen.

Alejandra zeritzan, ezer etzen, inor etzen.
Berez bizitzen zen espia bat, biziaren kontra.
Behar-bada, ohar-gabeko potere erredimitzale bat,
munduaren oihal zikin eta haundiaren gainetik.

Ezer etzelako, garbitzen zuen.
Inor etzelako, garbitzen zuen.
Neguan eta udan,
leihar morean probaturikako eskuekin,
esponja ustel baten moduan putziturikako eskuekin,
eguna egun, neguan eta udan, garbitzen zuen.

Hori bakarrik. Atso bat. Hezur mehe batzuk,
gizartean ibiltzeko behar den haragiarekin;
bere begi urdinak, iturririk ezagutu gabeko
mila ta mila negarretako pasoagatik kolore gabe zeuden.
Hainbeste urte eta hainbeste bakartate, malezia
ilun eta zarratu bat sorbalden inguruan.
(Geldiro, hurrutirik, behar-bada haur-zaroko oihu bat,
behar-bada gizon bat, udako arratsalde, mosu pare bat,
itsuki irabazirikako eta galdurikako seme-alaba batzuk.)

Orain ezer ez. Atso bat, arropa garbitzen eta hedatzen zuena
jakin gabe nola ura, zikina eta lizuna eramanik,
goroldiotik eta arrokatik heltzen zitzaion;
nola eguzkia, haren fabore zetorrena,
edertasun biziaren alkimia zen.

Azkenean akabatu zen. Etzuen garbitzen.
Trankil zegoen, hauzo-artean,
karitate hutsean onartua.
Herriko Etxeak bere kostura eman zion lurra,
eta haren hobiaren gainean etzuen inork errezatu.
Bertan etzuen inork haren izenik eskribitu,
haren dukesa-izen argi eta ederrik.

Baina honek etzuen inportarik ukan,
zerren aingeru atsegiñek altzatu zuten
zeruaren apar eta anilaren gainean
garbitzale zaharraren arima
Paradisoko bazterrik ederrenera.
Bertan bere esku berriztatuek ukitzen dituzte
ur olioztatuak, zihor lilituak.
Bertan bere esku alegratuek orraztutzen dituzte
birjinen bilo-mataza dultzeak,
plantxatzen dituzte aingeruen tunikak,
eta amorioz ukitzen dituzte
Bildotsaren ilerik garbienak.

II

Kantatzen diot Etxeko Andreari,
hain zuhurra eta dexentea gaxoa,
hain inportantzi gabekoa,
ardi mantsoaren itxura dadukana,
haurrari deiadar egiten baldin badie ere.

Lixibak bigundurikako haren eskuari ere,
astelehenetan eta astearteetan,
asteazkenetan eta ostegunetan orratzak pikaturikakoak,
ostiraletan plantxak errerikakoak,
baratxuriak eta tipulak igurtzirikakoak.
(Larunbata berebiziko eguna da:
Eskaratza garbitu, bi egunerako erosi,
eta seiretan, hatzazkaletan barniza,
zinema merke batera joan
gizonaren besotikan.)

Etxeko Andreari kantatzen diot
goizeko zortziretan,
arduraz partitzen duelarik
armozuko esnea,
erdi-apurturikako taza sakonetan.
(Joaniko asko haunditzen da aspaldi honetan:
Harentzako parterik hoberena.)

Etxeko Andreari kantatzen diot,
orain hamabost urte hain pollita izan zenari,
orain triste-xamar edertasuneko kontseiluekin
barre egiten duenari.
(Emaiozu egunero biloari
ordu-laurden bat.)

Etxeko Andreari kantatzen diot,
suma eta suma egiten duenari, herraturik,
laurogetabost, eta bederatzi daramazkit...
zerren joan diren ehun pezeta,
eta oraindik eztiot ikazkinari pagatu.

Etxeko Andreari kantatzen diot,
gauean ohera joaten denean,
ezpaitu errosarioa inoiz bukatzen.

(Dolores beti beste argal dago,
Joaniko gaizki dabila estudioekin,
eta ttikienari ipurdiko haragiñoak
ikusten zaizkio, bai.)

Etxeko Andreari kantatzen diot,
hain nekaturik lokartzen denean,
aingeru zuri eta atseginak
etorten baitzaizkio kontsolatzera.

III

Gizon oso haundiki bat zen hau,
lau medikuen artean hil zena
(auromizina etzen izan mesedegarri),
lau eri-jagole diplomatu,
eta azkenean, apaiz eta eskribau.
Haren mila eta ehun ordena ta gurutzeak
etzitzaizkion bularrean kabitu.
Gloria bat zen ehorzketa ikustea,
zoazin ministroak, jeneralak,
eta apezpiku bat.
Trolebusak gelditu ziren,
baina jentea kontsolatu zen
hainbeste koroa ikustearekin.

Egun hartan bertan ehortzi zuten
Petra izeneko andre urrikari bat.
Bederatzi semek eraman zuten heriotzera,
denak galduak, urrikaria
ezpaitzen inoiz bikariatik pasatu.
Hogei urtean bizi zen bekatuan,
gosean, egarrian eta apretan.
Baina udaberriko arratsalde batean
dultzero zarratu zituen begiak,
eta dimisioa presentatu zuen
tuberkulosiaren aitzakiarekin.
Hain gorputz merkea izan baitzen hura,
bakarrik haizeak eta altzipresek
errezatu zioten requiescat bat.

Baina gau hartan bertan
gertatu zen mirari haundi bat,

zeinaren parerik ezpaitzuten ikusi
defunturikan zaharrenek.
Aingeru-koro ttiki bat
haien hegal alegerekin,
gelditu zen haundikiaren
hobiaren gainean.
Hegaldaketa zaratatsu
bat egin zen arrosen eta
krabelinen usai artean.
eta Petraren hezurren gainean
zegoen buztina zikina
ikusi zuen egunak
lorez beterik.

IV

Hamar urte zituen litxarrero harek.
Haren bizitza tristea eta pobrea izan zen.

Edozein egunean jaio zen, denon moduan,
haren erabaki eta pozkariorik gabe.
Behar-bada entzun zuen bere etorrera
etzela inoren onurako, baina bera
jaio egin zen,
beste erremediorik ezpaitzuen eduki.

Geldi-geldi hazi zen, oso flakoa.
Egia da amaren ditiak etzeukala
sobera esne. Hola gertatzen da
pobrea eta argala denean andrea, eta
hamar urtean zazpi haur ekarri dituenean mundura

Haren edukazioa birritan atsegina izan zen.
Amak esaten zion deiadarrez:
Puzka-semea, igorratua, eta
etorkizun izugarria igarten zion.
(Elikatura txarrena zegoenean,
profeziarik txarrenak esaten zizkion,
urkamenditik pauso bira jarritzen zuelarik.)
Aitak, zahagi batek baino arno gehiagorekin,
lezioak eta kolpeak ematen zizkion astegunetan,
plater haundiagoan jai-egunetan.

Noizean behin, joan zen eskolara.
Etzuen handik ezertto ere atera.
Etzituen godo erregeen izenak ikasi,
ezeta-re Amerikako hibaienak,
ezeta-re musika eder horrekin
kredoak eta aita-gureak.
Eta multiplikatzeko tabularekin
etzen inoiz bostetikan pasatu.

Eta bizi-moduan ere etzuen gauza haundirik ikasi,
gauza itsusi eta edonor zapaltzeko moduko asko
ikusi bazuen ere.

Dohai berezi bat zedukan, jakituria bat.
Haren biroen parerik etzegoen munduan.
Haren hiztegian mila hitz zakar eta
irain zikin zeuden, ahotik ateratzen zitzaizkionean,
pozkario eta alegrantza haundia ematen ziotenak,
gizonagoa eginen balute bezala,
arno bortitz bat edanen balu bezala,
zerua eta lurra zilatuko balitu bezala.

Esan dizuet hamar urte zituela.
Esan dizuet litxarrero bat eta biroti bat zela.
Eta egun batean hil zen, bai, edonola,
beste gabe, behin jaio zen bezala.
Zikinkeriaren eta litxarreriaren usaiean.
Eritasun labur batek hil zuen,
edo gose luze batek. Eztugu jakin.

Eztakigu ezer, ezpada isilik geratu zela,
bere aurpegi ttiki eta mutuarekin,
amaren deiadarrari erantzun gabe.
(Orain deitzen zion nire zerua,
erraietako zatia, eta axuria.)
Hain isilik, hain isilik, zen geratu,
ezen bildurra ematen zuen. Hain geldi,
ezen hauzoko andreek esaten zuten,
jauna, jauna, burua mugituz,
eta aitak astoaren moduan,
irrintzia eta intziria egiten zuen.

Eta etzen inor mirakuluaz konturatu.
Inor etzen enteratu nola arkanjelu bat,
Paradisuko kantorerik ederrena,
aleluiak eta hosanak
emaroen esaten zituena,
etxera sarturik, makurtu zitzaion haurrari.
Olio garbi-garbiekin santifikatu
zizkion ezpainak eta mihina;
eta hatzamarretako puntarekin
ahoaren gainean egin zion gurutze bat.
Haur baten irribarrea eduki zezan,
eta garbi sar zedin Aitaren erreinuan.



BLADI OTERO ETA MUNOZ

GEHIENTASUN HAUNDIARI

Gehientasun haundiari, arbolak,
bekoki ilunak eta bular sufrituak,
Jainkoaren kontra burrukatzen dutenari,
ilunpean kolpe batez deseginduak.

Zuri eta zuri, paret biribil horri,
eguzki gosetua, lur landu gabe egarritua,
guztiori doazkitzue, bai, zuzenik,
haragi eginikako nire poema hauk.

Itsasoari bezala entzun. Agina sartzen dute
lepo irakina ukitzen dien eskuan.
Ertzean entzuten zaie orroa hurbila, eta

berunezko itsaso baten moduan, hamiltzen dira.
Ene! Aingeru gogorrik giza-zale hori
zuek salbatzera dator, eta eztaki nola!

GALLARTA

Behar-bada, itsasoa. Baina ez. Behar-bada gizona.
Udagoiena da. Jainko ederra. Lur gorria.
Harri gorria. Behar-bada arbola bat
odolaren parekoa. Jainko ederra. Harria
eta gizona.

Udagoiena da. Orduan. Gailurrerantza
joaten ginen. Itsaso inprimitua.
Hitzez labur, baina uhinez zabal.
Arratsaldeko bostak inguruan. Ortuella
eta airea.

Orduan. Hertsi zituen eztakit begiak
nire lagunak. Pobreziaren jainko ederra.
Eta arrokak ebakitzen ziren lekuan,
burnia.

Begietako erregea. Sofokles urdindua.
Izarretako kadira hondatua. Pazientzia.
Bizkaiko burnia —Kantabriako itsasoa—,
hitzez labur. Nire poema guztietarako
legea.

ESKATZEN DUT BAKEA ETA HITZA

Eskribitzen dut
gizonaren eta zuzenbidearen
erreinuaren alde. Eskatzen dut
bakea eta
hitza. Esan dut
"isil",
"itzal", "huts",
eta abar.
Esaten dut
"gizonaren eta zuzenbidearen",
"hegoaldetako itsasoa",
Uzten didatena.
Eskatzen dut
bakea eta hitza.

ESPANIAREN IZENEAN, BAKEA

Arriskuan dago
gizona. Espainia,
etzaitez lokar,
Espainia.

Arriskuan dago, hea,
joan. Hegalda zaitez
gauaren hegalean,
egunaren hegalean.
Entzun.
Itzal zahar bat ezkutatzen da,
argi berri bat agertzen da.
Bakea
egunerako.
Espainiaren
izenean, bakea.

"KA NI GER"

Hemen nago
zure aurrean, Tibidabo
mintzatzen ikusten
lur hau geratzen zitzaidana esan nenzan "nire
aberria ere europa eta indartsua da"
ateratzen dut lepoa eta urreztatzen zait
pasatzen naiz irunzten erroma olibondoa sartzen naiz
Barako Arkutik terrepente
igatzen naiz oso liluraturik
Ebro sakonetik iheri
eta berriz ere joaten natzaitzu
Bizkaia
daramadan arbola sustarretik maitatzen dudana
egun batean zerutik desegin zutena.

Ikus hemen seinaleak
parti azterrenak
aldarria hasarrea intziria
zezen hamorratua zuzenik entzun
hasarrea iraina jainkoak ere ez
inoiz inoiz inoiz ene
nahi dut paper hau eztadila gal
harriaren azpian lepoa
aurpegian esnea haur horren
hatzamarra
ene inoiz ikus hemen
nola argiak neurtzen duen biziaren arbola.

ADISKIDEAREN KANTA

Egunez eskribitu nahi dut.
Kaleko gizonaren aurpegira,
eta ze izugarri izanen litzake
geldi ezpaledi.

Egunez eskribitu nahi dut.
Irakurtzen eztakien
gizonaren aurpegira,
eta ikusi alferrik eskribitzen eztudala.

Egunez eskribitu nahi dut.

Zumarrari edukitzen diot bekaizteria,
ikusiz nola aireak astintzen duen.

HIBAIAREN UHOLDEA

Gerriraino odola eta noizen behin
ahoraino
noa
aurrera, ahoraino odola, astiro,
noizen behin
noa
aurrera, lur zahar honen gainean, odolez
bustirikako lurraren gainean,
noa
aurrera, astiro, besoak odoletan
sartzen ditudalarik,
noizen behin odola edaten dudalarik,
Europaren gainean noa
nola barko tormentatu eta desmareatu baten brankan,
odola egiten duena,
noa
begira, noizen behin
zeru
behera,
ematen duena
isuririkako odol gorriaren argia,

aurreratzen naiz
oso
nekez, odol sarritan besoak sartzen
ditudalarik,
hazi gorri baten modukoa
da,
gizon biziek eta hilek botarikakoa,
terrepente ebakiak,
bapatean zaurituak,
haurrak
bihotz ttikia iraulirik dadukatelarik,
noa
odol isuritan sarturik,
noizen behin
igatzen zait begietara eta eztut ezer ikusten,
eztut ezer ikusten ezpada
odola,
beti
odola,
Europaren gainean eztago ezer ezpada
odola.

Odolezko arrosa bat dakart
esku odoleztatuen artean. Eztagoelako ezer ezpada
odola,
eta ikaragarrizko egarri bat
odolaren erdian deiadar egiten duena.

MUNDUÁ

San Agustinek bere "Bakar-hizketak" eskribitzen zituenean,
nazkaz eta ezin-bestean erori zenean azken soldado alemana;
punika gerren denporan
eta eskallera batean zihorreztaturikako andreen denporan;
orduan,
San Agustinek esku batekin "Jainkoaren Hiria" eskribitzen zuenean,
eta bestearekin herejiak konbatitzearren zehaztasunak hartzen zi-
orduan, bai, orduan, [tuenean,
gerran harturikako prisonera izateak etzuenean esan nahi: heriotzea,
[ezpada bizirik egoteko zoriona;
andre beti-dontzella eta gaiztoek izartegi apurtuak konpontzen zi-
[tuztenean,

eta gaz-utanoko metxeroak biguntasun tristeaz zurbiltzen zirenean,
orduan, askotan esan dut,
San Agustinek "Enchiridion ad Laurentium" liburuaren probak ko-
[rrijitzen zituen,
eta aleman soldadoek txiz egiten zuten haur bonbardeatu-berrien
Tristea, oso tristea, da mundua, [gainean.
paret baten kontra besarkada-lapurrek asaldatzen duten neskatxa
[aita-zurtz baten moduan.
Askotan nahi ukan dugu gizonen bakartatea negar-malkoz bete zedila.
Askotan eta milatan eztugu guk eskurikan luzatu,
eta eztugu besterik lortu, ezpada hareaño batzuk agin-artean.
Ene! San Agustin enteratu balitz nola europeano diplomazia
har-eman doilorretan zegoen sarturik fama txarreko "variété"-ar-
[tistekin,
eta nola ipar-amerikano soldadotzak hartzen zituen paketeak, non
[ortografi-faltarik ttikiena
onartzen zen nola seinale bat endoluminismoak uztarpeturikako he-
[rrien libertatearena.
Negar eginen dut hainbeste anka apurtugatik,
eta hainbeste kantsaziogatik, hamazortzi urte gabeko poetakan ikus-
Inoiz ezta ezagutu honelako desastururik. [ten dena.
Karitatearen Aizpak ere mintzatzen dira krisiaren gainean,
eta liburu lodiak eskribitzen dira nola eskimo-herrian ezta jadanik
[bizarra kentzeko jaboirik usatzen.
Esan nora goazin hainbeste angustiarekin
eta guraso ez-ezagunen hainbeste dolorerekin.
San Agustin enteratzen denean telefonoak eztirela usatzen,
eta suaren arriskuaren kontrako asurantzak lotsarren ezkutatu direla
[neskatxen ile orian,
ai ene!, orduan, San Agustinek oro dakienean,
zimist haundi bat eroriko da lurraren gainean eta begi-herts-edeki ba-
[tean guztiok geratuko garade idiotak bezala.

BIOTZ-BEGIETAN [1]

Orain
nire biziaren ipuia kontatuko dut
hautserrez beterikako abeze batean.
Aberatsen herria nire gerriaren inguruan

(1) Poema honetako titulua euskeraz eskribitu zuen Oterok, Lizardiren oroitzapenean, duda gabe.

eta gainerakoa. Eskribitzen dut: isiltzen naiz.
Terrepente jaio nintzen, eznaiz oroitzen
eguzkia bazen edo euria bazen edo osteguna bazen
Artilezko eskuek lotu ninduten, ama.

Zure beso zurietatik kendurikako
mataza, itsu baten moduan begiratzen naiz,
ilunpean entzuten dizkitzut pausoak, nire
bizi hondatua konpontzera datortza.

Gizon hoiek kiskaili ninduten, mintzatzen naiz
dolamentu oinazeztatuaren jelaz,
haurraren erormentuaz, bere kaligrafia tristeaz,
lore ikaratu desitxuratua.

Ama, eznezazu bidal berriz hotza eta bildurra
dominedun eta santudun mahai batera hartzera.
Zuk piztutzen duzu egia negarraren antzean,
eskua eman, gorde nezazu
zure mahai-zapien eta zamauen artean.

Hau da Madril, esan didate andreek
amandalen gainean belaunbiko daudelarik,
hau da lekua,
hemen ehortzi zuten erramu berde eta fresko bat,
hemen dago makurrik nire odola.

Gosezko egunak, gosezko eskandaloak,
sandalia misteriotsuak,
erromesen itzalen, eta ereinotz giz-eraileen
lagunak. Eskribitzen dut: isiltzen naiz.

Hemen lotu nion letra hitzari,
hitza paperari.
Hau da Paris,
esan didate aingeruek, eta jentea
akort zegoen, hau da Pari.s "Peut-être",
bertan sufritu nituen espirituaren hasarreak
eta esenploa hartu nion Eiffeleko dorreari.

Hau da nire biziaren ipuia, esan nuen,
baina etzen. Eskribitzen dut: isilitzen naiz.

OSO HURRUTIAN

Andre triste eta pintatu haiek
boltsa guztiari irritzen zioten hortza,
eta gizonek, irakurtzen ere etzekitenek,
barnetik begiratzen zioten, galtzerdietara.

Hau egarria, hauk eskaleak betitasunaren
gonetan. Elizaz eta hospe txarreko etxez
beterikako hiria: Bertan gizona asetzen da,
eta esku-beteka partitzen da gosea.

Tatxaz beterikako hiri benedikatua,
adulterioz eta perdunantzaz zauritua;
bertan arimak lohizkoak dira,
eta lohiak izarrak zikintzen ditu.

Hiri langilea, fabrikazko salmoa, bertan
arnegatzen da gizona, eta konseilu-maipuruek
errezatzen dute: Ene! Labe Haundiak,
lainopean infernu sakonak zarate.

Gauerdiko hiru orduak eta bost minitu.
Ateak, ateak, ateak eta ateak edonundik.
Nerbion ondoan egiten du gernu gizon batek.
Bere bizikletetan igaratzen dira bi goardia.

Eta begiratzen diet eskaparateari. *Paka*
eta Luz. Noren semeak. Zetazko galtzerdiak.
Meza-liburuak, eliz-liburuak edonundik.
Eta meza-liburuak. Kandelak. Zirioak.

Sortzez Garbiari bederatzi-urrenak.
Goian dago berna gurutzatuen
olgantza. Hauzo-herri eskandalagarria.
Baina trankil lo egiten dute dontzellek.

Eta kaletik kantatzen dut. Eztit
batere inporta jaio nintzen herriak.
Oso hurrutian entzuten bada ere
Jainkoaren itsaso neurri-gabea.

GABRIEL ZELAIA (R. Mujika)

GAUZAK, NOLA DIREN

Hemen hasiko banu ene kantua,
esanen nuke: Bizirik nago, bi ta bi lau;
arraia ezta bustitzen; zororik dago arrosa;
gauza agiriak esanen nituzke,
gauza zelaiak (nire izenaren parekoak);
eta hau esanen banu,
ehun mila modutan esanen nuke
hemen segitzen dudala bizirik, gizon
ttiki, kontent, sentikor eta altzatu honek,
odol-jario edo kolpe batek bultzaturik.

Barre begite, lehertu arte, moralista xerio
sasi-maisu izugarri hoiek (bakarrikan baitira
elikatzen ezkaren ideien ausnartzaleak,
besterik ezean oraindik askok
jaten dituztenak),
Karmenekin noala ikusten nautelarik eskandalo
hartzen duten jaun agurgarri hoiek,
arrazoiarekin duda gabe nire bersoak txarrak direla
estimatzen duten kritikero hoiek.
Eztiet ezer eskatzen. Ni bizi naiz. Kontent.
Ttua bota bezaidate, hala nahi badute
(edo ni arbuiatzearekin konsolatzen badira).
Abegi onarekin errezibitzen banaute
aginak erakusten dizkidate,
adurra dadukate zintzilik ezpainetatikan,
azufre batez kiskailtzen dirade hesteetan,
eta ikaragarrizko minekin

salbatu nahi dira,
anaiaren heriotzearekin bada ere.
Baina merezi bezain gaitz ezteritzet nik,
on deritzet, egiaz.

Bizia polita da,
eta nik nahi nuke eztezaten gal.
Embarazo temosoari uko daidiotela,
gorputza adora dezatela.
Biri zabalean harnasa har dezatela,
ahaltasun guztietara zabal ditezila,
eta lotsa edo bildur gabe,
kunpli eta mukurru ditezila.
Hainbeste gorrotatzen dituzten mugatasun hauk,
hain dira izaerak.

Esan dezatela nirekin (haur bihurturikan):
Harnasa hartzen dut, nire boltsuak
"bai" batekin jasotzen ditu nire errai guztiak.
Esan dezatela: bat-bi,
gauzak izenakatik aipa ditzatela,
(hain bakarrak, ederrak),
kanpora begira, zoriontsu senti
hainbeste erregalorekin,
hainbeste ttikitasun atseginekin.

Eztezatela pentsa jakintsuak direla
hainbeste gogoeta egiten dutelako,
zabalik lauda dezatela,
neurririk gabe eman ditezila,
haien gozamentuaz bizi ditezila,
eta ez gogorrik
lagunari ohostutzen diotenaz.
Kontenta ditezila direnarekila,
eta bila dezatela Karmen bat.

BLADI OTERORI

Bladi Otero laguna: Bizi zarela eta bizi naizela
eta guztiak garela dakidalako,
zu eta ni eta guztiak hiltzen garelako,
ezer egiten eztuenaren moduan, gure bueltak gastatzen,

mintzatu nahi natzaitzu, eta mundua mintza dakitzula
gauza guztien ezkutuan dagoen dolore honetaz.

Ikus dezagun, laguna, hea hau suport litekeen;
bihotz ustel bateko hazitegi irakina,
zizare gosetuen aginkada llaburrak,
barnetik jaten gaituzten egun edozerak,
miseriazko karga, esperientziazko hondakina,
hautsez eta negarrez oraturikako penak.

Lau aldeetatik hiltzen gara, eta baita-re
entenitzen eztugun Jainko baten boskarrenetikan;
metal hasarratua, kantsazioaren goroldioak,
mingostasun zaharrez horditurikako azidoak,
usteltasun biziak, gorputzeko minak...
Hau (zuk ongi dakizu), hau, hori ta bestea.

Zuk badakizu. Eztuzu barkatzen. Sutan bizi zara.
Min egiten digun suharrak hegala izan nahi zuen.
Badakizu; zure bersoak zerura deiadar egiten du.
Hain xerioa, hain dexentea, bekatuan ere Jainko-semea,
barnetik badakizu zer den ondikoaren hatzamarra,
poesia gabeko bersoa, amorio errebelatua.

Hain da zaharra nun eztirudien gizonena:
Itsaso abadonatuaren orroa triste hori,
ostotegi desberdin bateko lo-gabeko ikara hori,
mendi dardartiak, aire-falta argitsua,
haizean inork ezin ikus dezakeen hegaztina,
oro bizi dira eta sufritzen dute gure haragian.

Odolaren lau elementuekin, hezurrak,
ur-kolore gabea eta erdian nire ego hau,
ni naiz koloreztatzen den ur aldakorra,
pisatzen duen lur memori-gabearen inertzia,
bere buru barnean galtzen den aire harritua,
bihotz bat, baiezkorra, mutu-erdia, tematsua.

Haunditu eta hil egiten naiz. Ukigarria naiz, taupada.
Oraindik dirauen mundua bezain dolore zaharra naiz.
Nire gorputzean hartu dut grina, pasioa, misterioa,
esperantza, bekatua, oroitzapena, kantsazioa,
materiak eta suak, taupada zaharrek Jainko
haltu bati jasotzen dioten eskaera naiz.

Nire burua salbatzeko oro salbatu behar dut.
Naiz koral, naiz neskatxa, naiz itzal ta aire berri,
naiz zozoa sasian, naiz argia oihuan,
naiz izaera-gabeko sua, naiz lekua kantuan,
naiz izar ta naiz tigre, naiz haur ta diamante,
haiekin Jainko bihur nadila eskatzen didatenak.

Nik sufrituko banu! Ni banintz Bladi Otero!
Haren pisuarekin eta jakituriarekin hiltzen den
gizon ttiki eta xartal bat banintz bakarrikan!
Baina gugan bibatzen dena mundu osoa da,
eta hemen kontatzen dena ipui zaharra da.
Gizon izatea ezta hau. Gizon izatea beste gauza bat da.

Maitaleari, martiriari, zoroari deitzen diot,
hain arimen bila gorago joaten direnari.
Kementsuari, heroiari, obreroari deitzen diot,
egunean ogia irabazten baina arnoa eskatzen duten
gizon landuari, oro suportatzen dutenari.
Penatuari deitzen diot. Berotuari deitzen diot.

Zuzenbidé debekatua eta ordena kalkulatua,
hondamendi hilkorrak, ongi-egon birtutetsua,
bere buruan bukatzen den gizonaren kondizio mugatua.
hondorio laburrak eta kalteak asaldatzen dituzten
gizon zauritu eta gloriatsuari deitzen diet.
Gizon maitezale, apurtu eta sufrituari deitzen diet.

Zuk ere, Bladi Otero, zure mugen kontra egiten duzu topo
denporaren gogortasunarekin, zedarri imajinagaitzekin,
zure Bilborekin, zure egunekin, eta inork
esplikatzen eztizun eritasun izugarri horrekin:
Airetik pasatzen diren aeroplanoen zarata eta
inoiz barkatuko eztitugun gora begira hilikako hoek.

Batzutan iruditzen zait eztudala ezer konprenitzen,
zapaltzen dudan galtzada, begiratzen dudan abisoa.
Esistitzen duena hurrun eta sinesgaitz iruditzen zait.
Hemen mintzatzen naiz. Eta hurrun nago. Ni naiz, beste bat.
Lotan ibilten naiz, oroitzapen eta onerizte gabe,
libre eta pisu gabe, zoro bihurturik, zentzudun hau.

Gauza bakoitzaren ostean beste bat dago, haren berdina,
berdin eta desberdin, igoal eta diferente.
Gizon bakoitzaren ostean, beste batek egiten ditu
keinu lehendik ezagutuak, hurrun oso hurrutirik.
Bladi Oteroren ostetik, Bladi Oterok begiratzen dit,
boelta ematen dit eta bizkarretik datorkit.

Orain egun batzuk elkarrekin genbiltzan,
hotzean, bildurrean, urtarrileko gauean,
hozkirri, haren izar argi eta nabarrekin, eta
genbiltzan artean gauza bakana zen diferente sentitzea.
Zure ukondoak nire saihetsa ukitzen bazuen, ikara batek
ziostan: Hau beste bat da, misterio bat.

Hurrutirik mintzatzen ginen, balio gabe, dexente,
hurrutirik eta hutsik Jainkoa ezkutuan zegoelako,
gure biziko asti eta toki batean desberdinak,
gure pauso hutsetan, begirada iheskor batean,
nik diodan honetan: "Ni, zu, hura, egun bihar",
separatzen gaituen, erremedio gabe dolore den honetan.

Ibili behar genuen, karrika hutsak igaran,
inoiz habitatu gabeko etxeen aurretik pasatu,
eskallera bat berez finitzen eztela jakin,
ate bat zabaldu (hau beti da harrigarria),
beti adiskide hirugarren bati agur egin,
"Berso batzuk irakurriko ditut", esan zenezanari iguriki.

Zuri begiratzeak, bertan bakarrik zeundelarikan,
isiltasun haretan, bildurra ematen zidan.
Mintzatu zinen, eta zure barnetik haunditu zen poema,
salmo baten neurriarekin, kantu zahar batekin,
zu baino zaharragoa, gugandik txit hurrun.
Jakin nuen mirakulua. Jainkoak entzuten zuen.

Munduko doloreak zerakarren gugana.
Hasarre santua, amorio atrebitua,
arbolak, zimistak, materia, olatuak,
gizonagan atera ziren jakin-gabeko minetik
mila eta mila urtean galdurik egote batetik:
Eta "bai" dioenak bezala, "Jainkoa" esan nuen.

Bizia eta kantua posibleak zirela ikusi nuen.
Ikusi nuen nola, aho gosetu bat balitz bezala,
miseriazko hamiltegiak neurtzen zuen esperantza.
Lau elementuekin, gizonaren moduan, ikusi nuen
nola zen posible mundu guztia salbatzea.
Bertan ni salbatzea eta gorputza jainkotzea.

Horregatik, laguna, oroitzen zaitut negarrez,
oroitzen zaitut barreka eta mozkorturik;
ona naizela pentsatzen dudan artean, hamorruz,
esisti eztezan nahi dudan ego zornetsu honekin;
zure kantuaz gogoratzen naiz, eta isiltzera noanean
diot bihotz-zabalean: Bladi Otero, laguna.



MATEOS PINTOREA

(Hindemithen musikarekin irakurteko poema, Matias dioen lekuan Mateos irakurteko premiarekin.)

Pintatzen du Mateos pintoreak
mundu edo ogi bat, pintatua,
nola pintatua, pintatu berria;
kontuz pintura horrekin
Mateosena baita, eta pintatzen du;
bisonteen pintorearen pintura,
herriko dontzella koitadena,
egiazko iledun santuena,
herriko elizetako koitadoaren ilea;
Grekoa, diot, greziano edo toledano,
bere despinto luzearekin edo
Goia, galarazitzen baikaitu eta despintatzen baikaitu
gehiago, haboro, eta pintatzen du; Mateosen
aingeruak edo zamariak,
zamarianoak!, diot, gizonak edo
andreak diot, bai, zamarianoak,
aurpegi eta hortz eta begi
eder-eder zamari-kolorekoak,
gizonak baino iruditzenago dira
zamaria, eta zamariak baino
gizonak edo zentauroak; Mateosen
anaiak, gusuak eta gainerako ahaideak
gizon eta zamari guztiak garade.
Mateosek pintatzen ditu zimioak eta
zimiak, gizonak ere bai, ta zamariak eta
zaldiak eta behorrak; eta lehoiak,

inoxent eta bentturos, trixte-xamar,
munduko aurren egunean bezala,
natura-kontrako bekatu larriak baino
lehenagokoak, poz-pozik abereak
barre egiten zuen egunekoak;
haur eta inudeentzako animalitegia,
grado gabeko soldadoentzakoa,
eta jakintsuentzakoa, esan dezagun,
zamaritik gizonerako eta aldrebesko
aldakuntza estudiatzen dutenentzakoa; Solanarena
Solanaren moduan, lotan ibil, diot;
barregarria; Chagallena,
amesti, majiko, hegazlari,
tapiz majikoarekin eta gabe,
edo Kokoxkarena, bere ibilaldi luzea,
hilori gizakorragoak, edo ez hain
hiloriak; hor dabila Mateos
pinta ta pinta, nola pintatzen duen
Mateosek, eta zein gutti, arraio!,
hainbeste koitado oraindik, bai,
ezta, bai, oraindik, enteratu,
eta lastima da, ta lotsa,
eta ezlitzake aurrena izanen,
desperadoki igurikitzen dioguna,
atera dezatela,
oinak aurrean,
pintore pinuki pintatuz beztitua,
etor ditezila arineketan,
baina berant,
Ministroa eta haren medallak,
akademikoa eta haren kadira,
edo Joane March jauna eta haren urreak,
guztiak hain gogorrak konbatitzeko
Mateosek garbiro konbatitzen duen konbat horretan
horregatik haur tontoak eta inudeak
eta soldadoak aho-zabalik daudenean
abere mantsoen eta gizon putzitu
eta harroen aurrean, Mateosen koadroak
diren kaiolen aurrean,
haur tonto hoek biharko egunean
ministroak eta akademikoak direnean,
eztakit oroituko diren haien pintoreaz,
orduan ezpaitira haurrak izanen,

eztira tontoak izanen, haur guztiak bezala,
ezpada listoak, oso listoak,
listoegiak.

Horregatik nik eztakit zer izanen den
Mateos pintorearekin eta haren pinturarekin;
horregatik, nik orain, naizen poeta
txar honek, lehengo egunean Mateosen
pinturak liluraturik, eskribitzen dut
poema hau, bada-ezpadan.

Mateos pintorea, esan dut,
oro da, pintore haundia da Mateos,
eta naiko da gaurko.

EDUKI NUEN...

Aita bat eduki nuen,
gero hil zidaten,
eta ordutik honera
eztut ezer eduki,
arbola bat edo
eskeleto bat
aitaren usaiarekin,
esku bat,
bihotz bat, ezpain gogor bat,
hitz zehatz eta zuzen bat,
gizonaren
bular zabal eta edeki bat,
aitaren sorbalda bat,
eztut eduki
nun ezkuta haur
bakarti hau, haren mundu,
amets eta ikarekin.

Orduan nik bost urte nenduzkan,
gerra zen, munduak zeduzkan
bost urte, eta ni
ongi konturatzen nintzen
nire aitaren besarte hiletik
kentzen nindutela,

nire aita zen eta
hilik zegoen.
Orduan banenkien haren
semea nintzela,
kementsua eta
bildurtia, egun batean ni ere
hilen nintzela, hilen naizela, hura bezala,
beste gabe,
heriotze naturalez, asesinaturik.

Orain asko kostatzen zait
hartzaz oroitzea,
orain eskribitzen ditut berso hauk
guztiz ez ahaztutzeko,
kendu zidatelako,
eta nire aita zen, eta ni haur bat
eta urte guzti hauetan
asko behar ukan dut.
Orain berdin dit,
ez, desberdin dit,
hil da, hil dute
guztiz,
hogei eta gehiago urte honetan
ezta haren zatirik geratzen,
nire berso hauk baizik,
eta eznaiz orain haren semea,
nire ideien eta bersoen
semea bainaiz;
gaur kontatzen dut dolore gabe
haren heriotzea,
munduari diotsat, batez ere
haren eraleari,
eztirela orduakoak,
gaurkoak baizik, guztiak dira, egun,
gorroto gabe diotset, orain
berdin dit, berant da, orain
hilik dago, ongi hilik,
eta hainbeste gorrotorekin eztut hainbeste gorrotatzen,
ezpada ezer ez,
orain, eztadukat aitarik, eduki nuen, bat.

Nora Goaz Gizonok?

Ementxe, esku artean daukat Iparamerikatik eldu den eskutitz bat. Aspaldidanik barnean nuen bildur-zimiko bat berpiztu dit; amenazo beltz baten arrisku larriak makilkatu dit arima. Ango agintari ezagun batezaz ari da, ta kalean entzun oi diren esamesak aitatzen ditu. Agi denez, orain gobernura igo diren oietatik bat, eta ez edonor, azalkeri utsa omen da. Ala-olako jokabide ta moral baten predikari jatorra; baiña binbitartean bereak bere... Ta ortik jaio zait zalantza: orrelako gizonak agintari-aulkietara jaso ditzaken erria mundu librearen salbabide izan ote liteke gero? Gu guzion galbiderako, Amerika'k makiabelismu geiegi, bere patrika bai maite... Begira Cuba'ra, Guatemala'ra, Iberoamerika osora. Demokrazia protxugarria den bitartean bai... Latiñamerikak, zeukan fede-amiñia galdu du.

Ba-dire bi illabete euskalzale ezagun bat Alemania'tik etorri zaigula. Arranguratsu itzuli da. Gizarte ura sargori omen dago, materialismuz loakarturik. Bizigiro eziñeramana omen da ura. Ta ezin bizirik, dena zokoratu ta Euskalerriratu egin zaigu gure euskalzalea.

Beste lagun batek Erroma'tik idazten zidan: "Demokrazi-gosez gabiltzak, baiña zertarako bear diagu askatasun arraio ori? Emen zebiltzak italiarrok zertarako baliatu ez dakitela."

Munduak norako bat bear du ta orren billa dabil urduri. Kennedy gaztearen inguruan dabiltzan intelektual oietako batek, Schlesinger'ek, galdetu du: "Dalako *confort* ori zabalduagotu dugu. Orretan diardugu aspalditik. Baiña ona gure auzia: Joera orrek izan bear aal du gure gizabide? Txikikeri geiegi ditugu ta nazioak eta gizarteak ez dute izan gidaririk." Ez da aski bapo bizitzea, norabaiterako eragille bat bear da. USA'k ba ote du norako ori?

Demokraziak sortu du edo lezake mistika bat? Au da Sortalde-sartalde arteko prolema garratza. Ori gabe gureak egin du. Munduak mistika bat bear du, ezin-geldi bat. Libertadeak edozertarako

balio du: gorako, beerako ta planto egiteko. Gora-leia ori gabe demokrazia maldan beera doa. Kondairak ez du barkatzen: aurrera edo bide-zokora. Bidea da bizitza, ta bertan iñor eser badadi, galdua da; atzetik datorrenak kamiño-ertzera botako du.

Barne-deiari jarrai dezaiogun daukagu askatasun-egarria. Au falta bada, zertarako dugu libertadea? Norakorik gabe bagabiltz, zer egin gure askatasunarekin, Kokolopeko zugaztian bapo eseri baiño.

Esaiogun gaztediari komunismua materialista dela, ta purrapurra... Ta zer? Bost ajola zaio berari! "Komunismuak ba-dik maitasun bat ta berarekin ba-zekiagu nora goazen. Zuek ezer maite aal duzue? Nere gaztaroak zuen askatasun denak baiño areago balio dik! Zerbait egin bear diat, zerbait aundirik gizadia aurrera dezadan. Zuek iñora joateko gauza aal zerate, ba?" Zer erantzun onela itz egin dezaiguken gazte oni?

Ikusia da, minoriena da beti mistika, *élite* batena, onen agindupean gaiñerakoak artalde baidire. Komunismuak laister irents ez gaitzan, fanatismua bear dugu, maitasun borrokari bat. Esna gaitzate komunismuaren bizi ta lillurak. Mundua *élite* batena izango da, ta onek barnean duen garraz eraberrituko du gizadia. Komunismuaren okerbideak direla-ta, beste gabe, ez dugu aparteko gaztedi ori bere bideetatik aldenduko. Gure artean, zoritxarrez, komunista direnak *élite* orretatik irtenak dire, ortara iritxi badire, mistika baten atzetik zebiltzalako baita. Idealismua ideiaz ta maitasunez bakarrik suntsi diteke.

Zorionez gure gizarteak ba-du mistika ori, gaztedi osoa —*élitea* kendu ezkero—, bere atzetik daramakiena: futbola. Ez daukagu besteren billa ibilli bearrik. Zertarako? Futbolista onak ta mutil itzelak dauzkagu, ta ez ditugunean, ekarri ere egiten ditugu... Izan ere, zer egin dezake delako errusitar mamu orrek, onelako morrosko ostikalariak ditugula?

Maitasunak eta ideiak, maitasunez ta ideiaz garaitzen dire, ta ez zigorrez ta injustiziz. Norberak biotzean maitasunik ez baldin badu, gizarteak ematen dio. Gizartean bere ideiak zabaldu ta ezarri nai ez dituen gizonttoa, itxasertzeko zaborreriaren antzera, beronek erabilliko du altzoan ara ta ona. Morroi edo errege.

Gizarte ta gizonaren arteko borroka onetan norbaitek irabazi bear, gizadia borrokari onenek eramaten baidute berekin. Gure buruak gizarte-txepelkeriari menperatzen badizkiogu, artaldeko auntzik iñozoenak izango gera, ta gidaritzat datorkigun komunismu-artzaiak bere bordara sartuko gaitu.

Ori gerta ez dakigun, ez dugu aski noragabeko askatasun ori. Gizarteari, edo obekiago, gazte-*élite* orri joera bat, jomuga lillura-

garri bat luzatu bear genioke, ta ez zerurako bakarrik, baita mundu onetarako ere. Munduaz aazten bagera, zerurako bidea ere galdu egingo dugu azkenik.

Askatasun-irrika isilarazi diteke nolabait, gizonari ideialismu bat ezartzen bazaio. Gizadiaren erdia komunismupean dago. Nola salba dezakegu ori dena? Askatasun-bandera astinduaz? Bai zera! Ondo poliki esan digu Walter Schubart'ek: "Luzaroan oinperatuak izan diren erriek eskubide-sena galdu egiten dute azkenik. Injustizi geiegi eraman dituzte, ta onegatik deretxoaren moral ta bizitz-balioan ez dute federik." Komunismupeko erri oiek eskubidearekiko sinismena galtzen ari dire. Gaiñera, Ungaria'ri eman diogun laguntzak oinbeste kemendu ditu... Askatasun-egarriak ez du mundua askatuko, ez salbatuko, beste zerbaitekiko maitasunak baiño. Zer da bizitza larrugorria, zerbaiterako ez bada? Gizadi erdia komunismupetik gorde edo askatu nai badugu *élite*-gazteari elburu zoragarri bat zor zaio. Maitasun eta ideia zorabioa bear du! Maitasuna! Ezagutu aal duzu arrazoiketa utsez iñora joan edo ezer mogitu duenik?

Ez pentsa, Iparamerikak bere galtzairu trinkoenekin ez gaitu salbatuko. Europa zaarrak —eta berriak— du itza. Guk salbatu bearko dugu mundua. Gaurko au espiritu-gudua da, ta Amerika ori espirituz ta gogoz urri dabil. Europa da Kristaudiaren muin eta bertotik jaso bearko da gaurko gizona arrotuko duen legamia.

Kennedy'k zigortu duen amerikar "bapotasunak" ez garamazki iñora, onek sista lozorrorako balio du bakarrik. Tomas'ek Aristotele'kin egin zuena berriztatu bear litzake gaur berriro munduarekin, baiña Paulo Donearen sugarrez pizturik. Afrika esnatu da, ta Egalamerika aserre dabil; sendagarri ta asegarriren baten eske datozkigu. Zer eman? Mali lurraldeko Buruzagi batena duzu au: "Teilhard de Chardin'ek esan du gaurko munduak bear duena. Bere mezua espiritu-deia da ta materialismuari gogor egiteko bide bakarra."

Kristianismuak salba gaitzazke ta bearko gaitu; baiña zerbait falta zaigu. Leenik jakintza guzien sintesi bikain bat ta, zer esanik ez, ondoren fanatismu apur bat, ez zaunka egiteko —barka, orretarako ere bai, jendea esna dezagun—, norabaiterako, gorako irrika sortu dezagun. Izan ere goazen bidetik...

Egungo pentsaera ta goseak ain sakonki ezagutzen dituen Charles Moeller'ek esan du: "Giza-baloreak ez ditu kristianismuak gaur bezin urbil iñoiz izan." Au egia bada —ta Moeller ba-da nor gai auezaz jarduteko—, kondairaren aurrean gaurko kristauok erantzukizun berezia dugu, munduaren galera ez baida gure erruz baizik etorriko. Kristianismuak ba-du odol ta surik mundua kiskaltzeko. Materia-mistika baten aurrez-aurre aurkitzen gera ta orrek aurkezten

dizkigun prolema ta galderei erantzun egin bear diegu, borondate onekoak eta betiko urrundu ez zaizkigun oiek gugana ditzagun. Kristauok espirituaren mezulari gera; gere barneak maitasunez suturik, apostolutza berri bati ekin bear diogu, nora dijoan aaztu duen gizartea, gure mezu-lastargia aurretik, zuzen gida dezagun. Noragabeko gaztedi oni itz egin eta entzun dezaiogun, geuganatzen badugu etorkizuna gerea dugu-ta. Azkenean burruka ez da Washington eta Mosku'ren artekoa izango, kristauon ta komunisten aurkakoa baiño. Gure kondaira-une au illunabar edo egunsenti den guk erabaki genezake. Mendi-zulo illunbera edo eguzki-argitara goaz? Ona guk geuk askatu bear dugun arazoa. Oraindik komunismutik libre den gizarte au guganatu ta gizadi onetaz maitasun bidez jabetzen bagera, egunargitan izango da etorkizuna, Onetarako kristau mogimendu bat sortu bear da: filosofia, mistika ta gudua bear dire.

Filosofia. Gidari bat bear dugulako, norabait ekin bear dugulako ta gure maitasunari asegarriren bat opa diogulako. Komunismuak bere materia-dialektikaz egin duena, Kristianismuak jaiotordu ta berealako mendeetan egin zuen: egia ta pertsuna bakar baten mendean elkartu mundua. Marxismuak dialektika orren inguru-marian tinkatu ditu giza-jakite denak. Arbola orretatik jaso dute eren zorna jakintzatxerto auek eta orregatik dute komunista sorki ta endakiek borrokajario bat. Kristaudia, ordea, ez ote da apur bat atzeratu giza-jakitea burutzean, borobiltzean?

Komunismuak gaurko jakitearen nolabaiteko sintesi bat ba-du. Baiña gutartean ez da oraindik orrelakorik agertu, Teilhard de Chardin'ek bide orretatik ekin badu ere. Eman zitzaizkigun amairugarren gizaldian sistema oiek; gogora Tomas eta Bonabentura. Agian, gaurko lan au ez da gizon bakarrarena, giza-talde batena baiño. Teologia, filosofía, deretxoa, antropologia, biologia, kimika, fisika, astronomia...: guziok elkar-katiatu bear lirake...

Jakite au dena makutsik geldituko zaigu barnean maitasunik ez badu. Mistika bear dugu eginbear ori burutzeko ta buruturik aurrera bultzatzeko. Onetan apika, Augustin Donea litzake eredu. Fanatismutanta batzuk bear dituzte gure biotzak, zartatu ditezen. Taupada epelak ditugu komunismuaren ugoldea geldierazteko. La Pira'k zerbait erakus lezaiguke. "Sua ekartzera etorri naiz ta zer neri munduari su ematen badiot? Ez naiz pakezale etorri, gudua piztera baizik", esan zigun Berak. Gu, ordea, burutsuago gera ta sua ur epel biurtu dugu gizartean ta, leenagotik oraindik, gure biotzotan. Ideiak ba-dire, sintesiarekin edo ez, baiña dinamita apur bat kolkoratu dezaoigun burutapen bakoitzari, ta sar ori dena gizartean; ler dedilla mundua ta gere atzetik danbatakoa entzutean, "or konpon!" guk eta aurrera jo, gibelera begiratzeke, bestela gatz-irudi biur gaitezke-ta.

Gure adimenetan mezu baten eguzkia jeiki dediñean, ta maitasuna biotzetan piztu dakigunean, gu ere irten gaitezke gudu-zelai ta mendietara. Anarteraiño, gauden gure etxe-zuloetan. Zertara irten norakorik ez badugu? Zer erakutsi ta zabaldurik ez bada, illunbez inguratuta ta epelkeri burgesez baldin bagoaz? Guk ere ez dugu Kixote'ren illobia aurkituko, oinpean edukita ere, gugandik urrun izango baida, Kaprikornio'ko auzo-inguruetan gutxienez.

Kristau erlijioa ainbeste aaztu duen gizaldi gazteari kristau gizaera, umanismu, argi bat eskeiñi bear diogu. Ta onetarako leenik gizadiaren bideak ezagun eta konpreni. Gizaldiaren biozkadak neurtu gabe, ez genezake bere barnea suma ta ametsak uler. Leenbizi, ba, entzun, ongi entzun.

Igaro mendeetan jainkogabetasuna zen elburu prolematikoa. Orretara iritxi egin bear zen. Gaur ez, Jainkoa da gizarte-era onen arazoa, gaur Beragana iritxi egin bear da. Leen Jainkoa galtzen ziren lanak, gaur Beragana eltzen ditugu izerdiak. Egoera au gora-beera, ba-dut nik kolkoan maitekiro loxintxatzen dudan susmo gozoa. Segurki, jainkogabetasun onetatik jaioko da espiritu-zaletasun ernai ta gazte bat. Izan ere, giza-materiazaletasuna azalekoa da, barneak bestelako zerbait eskatzen dio gizonari. Jainkorik ezak, Aren urruti-miña piztuko du. Komunismua bera ere azkenik Aren billa jarriko da, ta dagoneko ez ote da orretan ari. Gauaren ondotik egunsentia.

Komunismua, ta bereziki, ideialik gabe, oraindik ara ta ona dabillen gaztedia irabaziko badugu, beren arrangura ta egarrien zergatia ta norakoa ulertu bear dire. Ez da aski aurrez-aurre tinko, delako "Anathema sit" ura jaurtitzea. Ez da bidezkoa, konprenigabe edo erdizka egin ondoren ezestea. Kristauek ba-dugu ulertzen eta entzuten ikasi bearrik! Ideiologiak, jokabideak, kezkak, mundu osoa ulertu: au da leenbiziko eginkizuna. Batekoak ta besteak lankide izan gaitezke ta bear dugu. Kristauek erantzukizun gogorra dugu: ideiologien sasipean doan egi-iturri gardena aurkitzea guri dagokigu, ta Jainkoagan fedea sendoki tinkaturik, egin dezakegu au, pentsaera-mogimenduak erabat gaizto ta deabru-kume ez direnaren ziurtasuna dugula. Aspaldiko "sic et non" "aut aut" batetik jaio ziren; baiña gaur bide berriak ere ba-ditugu: "auzo-bitzitza —auzo-lana— elkargudua", iru jokaeraok neke-samiñez lortuko ditugu. "Espiritua sugarra da ta ez paper zikin bat. Espiritu-labera urreratzen dena suak jango du; barne-su auek ez dire kanpotiko su batez zokoratu bear: ez geiago inkisiziorik, ez betiko kondenamendurik!"

Elkarrizketak izan bear luke gure mito. Konstantinotar kristauak bere egia maite du, ta berea soillik. Ortik bereala dator istillua ta ezin-ikusia, kristau ori ez baida apostolu utsa baizik. Utsune ta akatsak ikusten ditu ta ongi ikusten, baiña oiek direla-ta, mende osoa

gaitzesten du. Epaille-aulkitik begiratzen dio munduari, ez daki solaskide ta lagun izaten. Ebanjelio-kristauak, ordea, elkarrizketari ekiten dio, Itzaren gizon-egiteak ortara zirikatzen baidu. Konstantinotarrak sinistu bakarrik egiten du, beiñola ta nunbait egin zen Gizakundea siñistu, baiña ez du mistikarik. Ebanjelio-kristauak aitzitik: une bakoitzari dagokion Gizakundea berritzen ari da, Ebanjelio ta munduaren artean, elkarte kreatzaille bat nai du. Elkarrizketak alere ez du "amenismurik" esan nai, kritika-maitasunak baiño.

Gaiñera ez da azpikeririk bear. Zubiri filosofilariak esaten zidana datorkit burura: Kristau Filosofitik epaitzen duela esan, eta tomismutik zigortu. Tolesgabetasunez jokatu bear dugu, ta gure adiskideak "aruntzaxeago" iristeko ateak zipozki isten dituenean, gogor esan: ez zaizu zillegi! Giza-arrokeri orrekin ez gakizkioke elkarri mintza. "Aruntzaxeagorako" ateak zabalik bear ditugu, apriorismuak baztertuta antxe topa baidezakegu gure Jainkoa.

Elkarrizketa au ez da noski kristau guzien egitekoa, ez baigiñake denak gauza; baiña Elizak sortu egin bear ditu gizon oiek, eta sortuko ditu, gaur iñoiz baiño ugariago.

INTXAUSTI'TAR JOSEBA.

Arantzazu'koa

SUGE KALEAN

Zuaitz billusen adar beltz artetik, farolen argi xuri otzak ikusten ditut; galtzadako arriak idor eta kale buruko enparantza utsik ageri dira. Ni, destenore hontan, Suge kalean nago. Nere lepoari inguru, ikare ozpera batekin, gabardina eraiki dut. Orduari so egiten dut. Autobusaren zai nagoela bost minutu joan dira, baina urte bete iduri. Kale honen muturrean eta Napoleon'en biktori bat gogoratzen duen plaza horren itzaletik, autobusa irtengo da. Irian ez dirudi bizitz ondarrik baden, ez da ostrorik adarretan, lurrean euri mirailik edo kale zikinkeriarik ez dut ikusten; aizea, illerrietan oi duen bezala, arrizko etxe ixilen artean ixurten da. Telefonuak ixildu dira eta santu argizaiak il. Etxetan jende arnasdunik badenez dudatzen dut. Pozik nago horregatik gaur egiaz, irian bizi señalerik ez baita: bizia zerik zikin eta teiuena baita. Otz da Suge kalean, otz aize otzez eta otza maite dut, biziaren etsai garbia baita.

Autobus paradako burdin-aga eskuarekin artu dut; orduan batbatean oiu-orrua latza nere atzean asi da. Unean bildurrez gain nago; orrua horrek gogorazten didana ez dut bereala ezagutzen: tximio bat ala gaurko itzaldian aipatzen entzun dudan, aintziñako gizonen bat. Burua atzera inguratu dudanean: zuaitz bati arrimuz norbait; andere bat dago arridura bizian neri begira. Zentzu ta itz gabeko eiagora horren iturria ez nintzala ni berriro kale buruari so nago zerbait agertzen ote denez; baina lekua jendez utsik da, beraz ni naiz emakume hori bildur gorrian edukitzen dudana. Emaztekia itxura bitxikoa da: eun kilozko aldekoa izan arren, bonboncito troxatu baten isla baitu: zanka-mee luzen gainean zorro andi bat, zorroaren gainetik buru txipi bat, oso txikia eta buru hartan begiak zearka oker landatuak.

Bigarren soan naiz konturatzen anderea bi bazterretan mee eta erdian lodi dela. Nere begiraldia dela kausa Andere nazkagarria,

deiadarrak itzez lagunduz, poliza deitzen asten da. Lenen oiuek arritu baninduten oraingoek aspertzen naute; adio nere bakartasuna, agur nere gau otz, garbia. Emakumeari ixil dadin, nik ez diodala gaitzik gura, ez dudala deus gaizkirik egin. Emaztekiak, urrun nadin. Nik, autobus paradan leena naizela harek aski duela bere bidetik segitzea. Eta orruak berriro:—Bortxatzen nau, hartzen nau, eldu! eldu!—Nik ez dut mobitu nai; nere konzentzi ona alde ez naiz igituko. Baina Mari-dupel horrek oiuka jarraitzen du eta nere onetik jalgitzen naiz; andreari besotik elduta lekua ustu dezan, deabruak eraman dezan. Auzo etxetako argiak pizten dira; baina iñor ez da agertzen. Besteak: Eldu! eldu! hel! hel! Nik:—Zoazi, zoazi emendik eroa. Besteak: laga nazazu! Geiago ezinez, haren ao gainean eskua ezartzez oiuak geldieraztera saiatzen naiz.

Polizi gizonak bizikleta andietan igoak eltzen dira; andi dira eta kazketadun. Zatarki besotik lotzen zaizkit, baina paketsu egoten naiz; ez emakume hura ordea, gazta-arraren moduan zotukatzen da eta besotik lotu zaion "eñara" itxuski inarrosten du, zalapartakaz, kolpez eta oloz josten du.

... ...

Beranduago poliza bulegoan gaude, komisarioaren aurrean. Ez dakit nola izketa arrigarria arilkatu genuen; sendoki, gogorki erantzuteko indarrik ez daukat. Erdi asarre, erdi irri-parretan leertzeko estatu batean nago:

—Urde horrek, bortxatu nai ninduen, ni Marien haur bat.

—Baina gaixoa zure artzeko ez naiz aski azkarra, gutiago nuen zuri lotzeko gutiziarik.

Hortan jarraitu dugu, nola ezeztu, nola ukatu; Andere lodia asarretzenago ta komisarioa logale; orduan azken horrek dio:

—Ezarri biak itzalean gauerako; giltzapean gogoaren zentzua jin dakien.

Halan pixa zikina, mozkor urdailla zerion gelan sartu naiz, baina bereala gogoa ametsetan joan zait: kale otz batean bizi aztarnarik ez da, aizeak kalen usain bortitza galdu du, autobusa oraindik etorri leike. Baina autobus ordez nere gela auzoan, nere tegi auzoan espe dagon ema lodia zait aguro gogora etortzen eta sudurrera zikin usaina. Gorputzaren zentzu gozamenak egiaz teiu dira, denek goragalea ematen dute; zikintzeko jaioak girenak, naski ilik obeki: ilik kale otz, garbi eta ixil batean nagoke. Loak azkenean artu nau; nere auzo tegian maradikazio marmarrak ixildu direlarik. Andik, ez dakit zenbaten buruan tanpaz berriro esnatu naiz; bi preso-tegien arteko barra artetik buru txiki bat, buru ezagun bat, begiak zear landatuak, neri so dago. Aotik itzak txistuz txirristatzen dira:

—Zu zira nere kalean aurkitu dudan Erosen ume zikoitza, ni Mari-haur bat izan naiz eta il arteraino izango. Zure begiek aragi-argi lauso bat, leñuru likits bat daukate, zu gaur gauean ilgo zira. Eta erantzunik emateko astirik utzi gabe burua burdin artetik itzaltzen da eta anderea bere oe-atze zurezkoan etzinda, intzirika erorten da. Bigarrenekotz itxartzean, burua berriz burdin-barra artean, baina oraikoan ao-zabalik, agin zorotzak lerroan, mingaina kanpo: suge buru bat da. Ez da Paris ondoko oianetan ikusten den suge buru leguna, honek ezkata zorrotzez estalia du burua. Burutik landa gorputz luze guzia pasatu da.

... ...

Biaramen goizean Komisarioak dio, bezperan Suge Kalean borrokatu bi pertsonak ekartzeko. Poliza gizonak eltzen direnean bi etsaien esnatzera; leenik emazteki lodia lo idoroiten dute ta iratzartzen; aldiz beste preso-tegian gizona ilik dago. Arpegia gorbeltz du eta lepoari inguru, borobil arrigarri baten marka bada. Iduri du iltzez armatu larru ugal batez urkatua, gizona ito dela, baiña iñon ez da larru ederik aurkitu.

D. Peillen.

TORRE GAINETIK

Noizdanik ene erritarrak, mendi kasko hontan, bizitzeko kokatu diren ez dakit. Mendiari Freguig deritzayo eta erriari Guerraich. *Rumi* jendea ez du aspaldi emen gaindi bizi dela; urruneko lur aberatsetan, *Chelif*'eko lurretan errez aberastu dira eta orain erriko buruzagi ditugu. Benaissa'k duela bost urte Rumien akatsak erakutsi dizkigu eta haiek bezala aberats, haien gisa erriko buruzagi izateko, Benaissa bera, jarraitu bear genukela, zion. Egun batez eskualdeko Erri guzien gisa, *Douar* guziekin batean, Rumien kontra atera gira; jazartu gira eta etxalde bakan batzueri zelaiean su eman, kotxeak uzkailli eta erre. Egun hartatik landa eta bi urtez Freguig'eko gainera ez da Rumi'rik agertu. Alaz ere Frantzi'tik etorri dira soldadoak saldoan eta rebelden itzaletik, haien atzaparretik urruntzeko estakuruarekin Smala batean bildu. Smala hori alanbrez etsia da eta gu an ardiak korralean bezala ginen: otsamaitez ordu fitsu batzuetan irteten ginen, alanbreak itsi gabe arrapataka sartzeko. Gure etxeak ere loiz eta lastoz, gure arrizkoak mendian utzirik, eta alorrak utzita: hori irabazia. Baina Xuriei, fellagaekin ez arrolatzea itzeman diegu eta Xuriek berek eman armekin gure Duar'era sartu. Itzeman diegu bai gau et'egunez guarda edukiz ez ditugula rebeldeak urbiltzera utziko. Horregatik urte bete hontan Nere Douar txikiko guardia aldia, astean bein gauean eta beste bein egunaz da.

Gaur gauazko aldia dut. Ez gira aski gizon eta gau guzian hor egon bear. Zer gaitz den, ni bezala ezkondu berri naizelarik... Torrea, lau kantuzko torre bat da. Sartu eta atea itxi dut. Zubiak gora torre gainera igoten naiz. Beyan atea itxia da eta gainera beiko zubiak goiti tiratzen ditut. Hola bisiten axolbean nago. Orduko illuna da eta kanpoan Afrika gaua. Gazte gaztean Europan nengoenean emengo gau

zeruez eta emengo mendi korritzez nuen amets. Gaur izar guziak ageri dire, Ain-Merane'ko kale argiak ere urrunean. Baina erriaz bi plaka nabaritzen dut; plaka argia egoaldean da: lur horietan gardua, arria eta batzuetan garia sortzen da. Nere atzean aldiz itsaso aldetik mendiak beltz, olibatze eta piko-ondoen mantxak eta basoen txingolak.

Gaua astean zakur bakanak txaunkaz, Douar'eko jende baten botzak eta beyak eipetan zotukatzen entzuten dira. Aur baten nigarrak edo emazte zaar baten karraxi luzeak, pake hori urratzen du. Geroago ixiltasuna mila puzketan doa. Amarrak dira engoitik txakalak halaxen nigarrez asteko. Aduar'era urbiltzen dira eta halaxen zakurrekin ordu luzetan ots ederra eusten dute.

Gaua erdietan da nonbait eta aur baten nigarra edo bei, mando baten gau-intziria ez bada: ixiltasuna. Kanpora bezin usu ordea nere gogoa alde barrenera; hor aitzinean arrizko etxe berri bat sumatzen dut: enea. Etxe barrenean nere emezortzi urtetako andere gazte berria: Fatiha. Hau gorputzaren ederra. Nere anderea, *Smina* da, gizena da baina zaintsu alaz ere. Aitak berrogei milatan erosi dit. Prezioa amar millaz beeratua izan da, ezkondu baino lehen norbait haren xendan ibillia baitzen. Obeki nengoke haren ondoan, sua urbil, kafe edaten eta nere senar eginbidetan; baina Rumiak gatik eta emen Freguig gaineko arrizko etxean egoiteko, gardazko gauak jasan bear. Ezkondu gabean, bai gogo onez nere andere denaren gorputzari ezaguketa bat egingo bainion, baina moldegaitz eta beste norbait nere aurretik pasatu. Gaur Fatiha'k esan dit Douar'ean bizi dela, berak ezagutu gizona nonbait hor dago. Halaxen Rumi anderiek beren senarrei olako gauzak kondatzen omen diozkate; baina ez da konfidantxa gatik, nere apaltzeko baizik Fatiha'ren aitor hau. Zergatik bekaitz izan. Gazte kondu edo frantses kondu bekaizkeria; bego Fatiha lenen ezagunarekin onean nai badu, etxean lan eta nerea dateken seme bat egiten badit: naikoa.

Etxeko atea sumatzen dut torre gainetik. Atea patio edo barrio batera zabaltzen da eta ber barriuan beste bi etxe. Nonbaitik botz bat ezagun da; baina ez nadin arrengura Namoun'enean egongo da. Ez dut uste Douar'ean norbait sartu den. Halaz ere gogoa geyegi barrenaldean dut, obe nuke artetarik kanporat so egin, gauean Frantsesak kontrol egitera edo fellagak jatera etorri balite... Ia txakalak ixildu dira eta nere arnas, zizpuru, zapeta karraskak ditut entzutenenik. Kanpoan ordea ez da gaua ain beltz ez eta ere oso ixil: egurtegi batean abarrak karraskaz, garratoi bat igesi. Usaina ordea azkar da. Barrioko labetatik ke usain xee bat, gainetik itoka bei gorotza eta

etxetako su iletatik erenotz osto eta abar txokartuen azkarragoa. Torre azpiko gari beazanetatik, lasto-usain. Gaua emeki argixetan asi da. Urrunean Ouarsenis mendiaren exkerretik argi bat bezala: ollarrak kantan, beyak eta astoak zankakan, zakur batzu txaunkaz. Lenen gizonak lanera doatzi; ez du balio emen geyago egon nadin eta orain sartzez, ordu bete garda gutiago. Argitzearekin oi duen oztaldia sentitzen asia naiz. Torretik jaixten naiz. Arma bizkarrean, etxera arte armaturik uzten dut: bidean ez jakin zer...

Torre ondotik etxea zein eder... Baina zer, nor da nere etxeko atean? Sartzen? Ez bizkarrez ateari nere etxetik jalgitzen da gizona. Fatiha urdaña, norbait bazegoan bai hire ondoan gau hontan! Eta ni parregarri, astoa, ni *boudjadi*, etxearentako, iretako gardaz. O! Badakiñat Fatiha abisatu nauala, baina nitaz olaxen parre egitea ni gauaz ozten naizelarik! Hauk guziak gogoan pasatuta, etxera irixten, eltzen naiz eta atea... jotzen. Barrenetik Fatiha'ren botza: "Orano zu! Beranduago etortzeko esan dizut!" Orain bai seguru naiz. Uste du gizon hura dela berriz jiten eta ez nau ni oraindik espero. Urdaina! Giltza sakelan artzen dut eta atea irikitzen. Ate atzean Fatiha xutik. Dino: "Giltza euki eta zer..." Bukatzen ez du, nere burua leer-zorian bein tiratzen dut; tiroak esnatuta konturatzen naiz, orain obena bukatzea dela eta beste bi tiro. Lurrean etzanik dago Fatiha, egur besata baten aurrean datza. Zorionez lekukorik iñor ez eta arma anderearen ondoan utzita, nere soldado kapota kentzen dut eta barrio erditara ateratzen. Iñor ez da etxetatik irteten: alo arren, gure segeretu -oitura zarrak ez dira orano emen galdu. Barrioaren beste aldeko atean, amaren atean jotzen dut, eta kondatzen diot: suaren pizteko Fatiha egur artzen ari zelarik —arma egurtegiaren atzean zegoen— eta nik abisatu arren egurren tirakatzez tiroa zartatu dela.

Amak lagundu nau Fatiha garbitzen. Etxe barrenean erraztatu du eta Fatiha oe-estalgi batez inguratu. Gero etxen, banaka sartzez gizonak jin dira eta bi itzez galdetzen zerbaiten bearra dudanez; ez direla egitekoaz oso ondo konturatu ahal izan; destorbu tamalgarria, penagarria dela. Erriko gizon guziak pasatzen dira eta gazte bat pasa aldikal biotzean zimiko bat: haietan baita guziaren kausa. Zer goiza gardazko logalearekin naizela, an egon bear. Kanpoan dira Emakumeak: bakoitza bost *doro* pakatutako anderezkoak, doluaren egiten ari dira. Ateratzen naiz kanpora. Kanpoan dolu ederra, moda zaharrean. Hor daude andere multsoa. Khlima gazteak azkazalez, aztaparrez begitarteko larrua zarramikatzen du, odola dariola. Zaar asko, azkazalak mozturik, arpegiaren karrakatzen ari. Khedidja andiak, illea tirakaz buru gainetik idokitzen du eta lauzpabost aldiz berdin

ahurra bete; baina beldur naiz beti ber biloak direla. Rekia beltzari inguru, beste bi ema, bularra ukabilaz jotzen dute, tam-tam otsa eginaz. Eta danak noizpeinka oyu-orruaz: *Haodji anaya. Haodji entaya!* Gaxo ni, gaxo i. Besoak airean eta burutik tzilintzan begieri inguru jauzi ta saltokan, illea.

Anartean Aita gurea, Taogrit'era legezko Rumi gendarme'n billa joan da eta hona non soldado-medikuarekin batean Freguig'eko aldapa goiti datozen. Kargatuak dire. Baneki zerez...? Lau gendarme zer ohorea, baina beldur naiz. Eta medikua, haren laguntzalea, ez zaizkit gustatzen. Nere ixtoria entzunda danak ixil. Frantsesa ez dakidala erranik, haien esan guzieri belarri prestik nago. Medikuak esaten du gutienez bi balaren lana dela: Fatiha'ren gorputza erakutsi diedanean, ni ere izutu naiz. Medikuak diño hortarako Fatiharen gorputz barrenean billatu bear litekela. Tubib'a ordea prestik badago, gendarmeak erabe. Batek bambu tellatuan, juxtu Fatiha erori den ertzean, zulo bat aurkitu. Baina beste batek dio tellatuan polborarik badenez jakiteko bear litekela analisatu; beste batek, zorionez, tellatu guzia zizkek erdi-jana dela oartzen du. Gendarme nagusia armaz ari da izketan; diño nekea dela egur adar batekin tiro eragitea. Zer izerdia dudan!... Galdegiten dit ea zenbat kartutxu dauzkadan. Baina nik iñardetsi gabe, konturatzen da, danak beti sobrazko bizpalau dauzkagula. Laugarren gendarmea, gure izkuntza dakianak, eta medikuaren laguntzalea kanporatu dira. Kanpoan metatu emakumeri galde egiten dute zenbat tiro entzun duten. Danek ao batez ez dutela ezer entzun, nere amak aldiz diño: bat. Gendarmeak metru-txingola metalikua artuta, neurtzen ari dira eta andere guziak ateari inguru, galderek berotuta, karraxi eta oyu andikan. Nere ama kendu ezik, gendarmeek beste emazteki guziak kanpoan ezartzen dituzte barriotik.

Berriz etxean sartzen naizenean hor daude medikua eta tellatua utzita gendarmeak. Nere alagrantzia ezkutu bear dut sartzean. Entzuten dut: "Ez du balio inkesta egitea, beren arteko egitekoak dire, eta gerra baldintza horietan ez gira ezer probatzera elduko eta gain hau amar aldiz igaraitea ez zait gogoko." Medikuak aldiz: "Ez da egia bainan hala idatzi eta kito. Kontu idatzia itxiko dut, andere horrek tiroa partierazi eta bala batez il dela, esanaz." Rumi guziak etxetik badoazkit. Guziak pozik gaude, ni pakea gatik, Frantsesak aldaparen berriz ez igaraitea gaitik eta Douar'eko Cheikh'ak frantsesen beste bixitarik ez baituke.

Bi egun badu hori gertatu dela. Orain nere erritarrez naiz beldur. Batek beinepein ez ahal ditu tiroak entzun? Baneki! Zer lotsa, nolako ahalgea, jendek balekite bekaitzez il dudala. Alaik ere, iñondik ez

dut nere arrizko etxe xuria utziko. Norbait ate joka? Aita: "Ez augu aspaldian ikusten. Ez adila il baten gatik iltzerat utzi. Besterik ere iltzen duk eta tunba gabe egoiten. To! Hire emazte zenaren amorante-oia, egun amaost, fellagarekin mendian il duk. Alo arren! zer duk, ez adila zurbildu alaxen. I Frantzian izanaz geroz ez aiz gizona: dolua artzen! Badakik aspaldian El Hadj iturriko lurren itzultzea egin bearrik dela. Berriro emen nagok. Juxtu azkenik gardazko intzala ahaztuta, hire billa etorri nuk etxera. Goizeango bostak zitukean. Hire emazte zena, ate joitean, barnean entzun diat, baina iriki gabe esan zidak ez indagoela hor, beranduago etor nendin. To! andik ordu-erdi gabe ila zegoan. Baina zer duk *Abdaka* berriz...

1960 eko Urrian.

D. Peillen.

SALDA BEROA

(ESKUAL IPUIÑA)

Armadan, soldado solas;
eta neguan, elurraz.

Izan zen noizbait —ez dakit nola—, aintzindari bat, zuzena, beltza, eta "izarrez" jantzia, beste anitz bezala.

Ezkondua zen eta alabaño bat ere bai ukana, lerro-lerroan.

Pinpirin-aire poxi bat bazuen nexkatoak, eta etxekoak kontent. Delako "piano", edo ori, jotzen zerbait bazekien —etzuen besterik egiten—. Orai kordionaikin asia zen. Gauz aundi bat bezala, Egueberritan "La Comparsita" jo zuelarik, aita lo-zurrunga aundi batek arrapatu zuen.

Zerbait erraitekotan egon zen ama; bana aitaren beldurrez ixildu. Ez du erran beharrik, ez gizentzeko zer behar zen aspaldi ikasia zuena, eta etxeko lanetan guti.

Bere josteta berezia —urekoz landa—, "Bugy" izeneko behokarekin ateratzea zuen. Aren orrextatzeko bakarrik, soldadu bat ibiltzen zuten; eta erran daike etzela Iruñen bizimodu obia eremaiten zuen gizonik.

Ori bai; urte oroz berria sartzeko egunetan istillu gogorrak ibiltzen zituzten etxean.

—Aita —zion alabak—; etzinuke gero, Tartaro-beltzaren begia're ilundu lezaken mutiko itsusi zonbait etxera ekarri behar...

—Ez, alabatxo, ez; zuk erraiten duzuna ekarriko dut.

Etxekanderia ere, aspaldian, bere asmoak ongi itzulikatuz zabilan: "Zer dakite gizonak gauz orietaz! —zion bere baitan—. Ari berdin zako bat izan edo beste. Ni nuzu gero naigabe guzien jasaile tristia. Luze dela urtea asto-mokor bat ondoan plantatzen delaik! Eta ohoina ez delarik alare...

Ez, ez; orai berian erran behar diot:

—(...)

—...bai, gizona, bai; ori aspaldikoa dugu: nik erran guziak ala artzen dituzu. Ene elizkoitasunaz bada-re zure arrangura, ez dio orrek gure etxeari kalte aundirik eman. Eta ez da izigarrikeri bat nik orai eskatzen dauzutana: zure etxeko behar duzun mutila ongi-itz-egiña izan dedilla. Sobera balin bazauzu, aski duzu nahûzuna egitia."

—Ez, ez; etzait sobera. "Galonak" jauntzita igorriko zaitugu zu autatzera.

* * *

Kankoxe, Basterretxeko semea, soldado joan beharra da. Ez da egundaino etxetik atera. Amak arrosario gorrixka aundi bat sakelan sartu dio eta erran:

"Kankoxe; aitu ta gogoan artu zure amaren erranak.
"Etxeko oitura onak ez galdu.
"Zu bano obiak, ahal bada beintzat, lagunetako artu.
"Emaztekiaz ez sekula fida.
"Eta duzun-ura bano, gutixoño bazinu bezala gastatu."

Ixilik besarkatu ta, baratzeko bortatik badoa. Auzo lehenek ere ez dute auteman.

Iruñen bazen sekulako jende aldea; eta gehienak mutiko gazteak. Etzezaken sinets Kankoxek ango mundia. Alare etzuen iñor ezagutzen. Battitta zuen bere erriko laguna, eta Afrikako ateratzian, K...! denendako.

Sartu orduko, abere irrintzina aituta biotz ukaldi bat izan zuen.

Biaramun goizean nun ziren arrapatu ere bai; mando ihartu makalak, eta zaldi ikustekoak, orotarik bazen an. Egun guziz joaiten zen, gero, eta aietaz okupatzen ziren soldaduekin adiskidantza aundiak egin zituen.

Beste anitzetan bezala, atsalde batez an arrapatu zuten; eta xuxen, "Bugy" perekatzen.

—Bana, zer ari aiz emen? Ez al-duk aitu "tuta"? Nagusia ez duk noiznahi jiten, eta gaur emen duk. Mintzaldi bat deneri emaiten ari duk. Egun batzutako itzaletik ez au nehork libratuko!

Susmatu diteke gaixo Kankoxek senditu zuen beldurra, eta joan behar! "Zertako ekarri nute ni soldado? —zion bere baitan—. Delako "patio" aundian sartu zelarik denek ikusi zuten.

Noizbait aspertu ziren jaun aiek itz egitez eta bakotxa bere alde joan. Orduan urbildu zitzaion, "Izarrik" gabeko orietarik bat erasika, eta erran:

—Nun intzan i? Errak, nun ibili aiz? Ez duk bestiak bezala aditu.

Arte ortan urbildu zaie Aintzindari Nagusia:

—Nungoa da mutil au?

—Eskualduna, jauna.

Eta mutikoari:

—Ez alduk aditu galdia?

—Ez, jauna —gorputz osoa dardarika ari zakion.

—Nun intzan, bâ?

—Berdin du, jauna, egia erranik; aberetegian.

—Maite aldituk kabalak?

—Nere etxian egun guziz zaintzen nituen, eta enaiken egon joan gabe.

—Zer iduritu dazkik gure kabalak?

—Orotarik bada jauna —ihardetsi zion, zainak eztituz bezala—. Bana ederren artian badira ikus gabe sinets elaiken bezalakoak.

"Toska", "Amaya" ta "Derby" ez dira txarrenetakoak; alaik ere, "Bugy" eldu da or denak bano obia. Gaztexko da oraindik; bana urrun joain da..."

—Ail, ail, kabaletara.

Eta gero beste aintzidarier:

—Etzakozuela mutiko orri ezertxo egin.

* * *

Etxean:

—Ama, berri on bat ekartzen dauzut. Gaur begistatu dut guk behar bezal-bezalako mutikoa.

—Eta nun ori?

—Karrikaren erdian; ez diot itzik erran.

—Eta zer du bestiak ez dutenik?

—Ah! Zuk ez dakizu ze mutikoa!! "Bugy'ri" dagokiona.

—Gazteak arinkeria baizik ez muñetan! Laneko behar delaik zerbait, gauza ona behar liken izan... edo deus ez.

Zer eginen duzu pollita dela-ta, besterik ez badaki?

—Orduan ekatzu ikazkiñaren pertza baño latzagokoa, ta kitto! (Aitari erranen diot, bestela ez da emen deus egitekoik.)

Nagusiak bazuen aski bere pentsaketekin:

"Milla gizon beren aintzindari guziekin behar bezala gobernatzeko itz erdi bat aski; eta etxean birekin ezin burutu!"

"Zer egin ote nezake denen gustoa egiteko?

"Gure "Ketti" lili-buketa bano pollitago da, bana etzako hunkitu behar. Ama ta biak, bi denboretakoak. Nola nahi dut arraña ditzatan."

Ortan sartu da etxean:

—Nun dira etxe ontako jendiak?

—Aita!! Zu zira? Kontent naiz. Bazinaki ze berriak ditutan!!!

—Zer duzu, biotza, senargei on bat eskuratu? —besarkatuz.

—Ze, aita batek erraiteko pollita, aur bati? —amak berriz—. Zuk erran beharrik gabe-re ikasiko ditu, bâ!

—Kitti; emezortzi urteko aur *ttipi* bat zaitugu, naski!

—Amak dionez... Bana ez da ori nik erran nahi nizuna: ikusten duzulaik mutikoa, zuk ere erranen duzu: *"Liliari dagokion huntzia!!" "Bugy'ri dagokiona."*

—Alabatxo; edertasuna gauza aundia da, eta anitzetan galgarria. Edertasunak beste zerbait behar du; ez ala izaitekoz, zeure ispilluarekin baduzu aski edertasun. Hausten delarik beste bat ekarriko...

—Zein ongi errana! —dio amak—; zerbaitengatik nabilan ni!

Gure etxeko ongi-ikasi bat beharko luke...

Enintzan oroitu atzo erraitera: Pelo-mainguaren semeak nahi luke sartu.

Adiskidia dugu, eta ezaguna denezkeroz...

—Eta nik erran baneza badutala beste bat? —nagusiaren itzak—; Bainan, ez; aski min nuen zuetako baten nahia bazterreat utzi beharra, ez orai biena baztertzeko.

—Iduritzen bazaizue, iruen artian hautatuko dugu. Sekulan gaizki ateratzea balitz, denok ixilik egon beharko ginuke —dio amak.

—Ohoina dela ta, ez duzue enegatik sartu zela erranen, lehen bezala —Kettik berriz.

—Egia. Ekarriko ditugu San Jose egunian iruak bazkaitera.

Mahian erraiten dute dela gizona obekienik ezagutzen. Ni ere leporaño asea nintzan komediaz, eta obeki da ala.

* * *

Mahia prest-presta da. Nagusiak errana du nola behar diren gauzak. Olio-salda bero behar bazuen, bero da.

—Ketti; zuk zerbitxa...

Aita lehenik. Bigarren, delako pollit ura. Gero amaren adiskidia... eta azkenik Kankoxe.

Karrikan ezagutuak, bizpairu ogi-zopa emaiten dazko polikiño saldari. Ain zen bero...!

Bestea, ufaka! nun asten den kullarari aize emaiten.

Kankoxe, berriz, ez da sekula alako estutasunian aurkitu. Istan bat egon ondoan eta ikusi nagusiak zer egiten zuen, ezpain-oial ttipia belaun gainian edatu du.

Gero bazakien esne beroaren artzen: gutiño aldian eta bazter-bazterretik. Salda're ala.

Ama-alabak konprenitu dute zertan zen aitaren jokoa. Ez du geiago nehork itzik atera; eta denak kontent.

Biaramunetik asi zen Kankoxe "Bugy" orrextatzen.

JOSE MARIA SATRUSTEGI.

Juantxu, Gure Auzoko Demoniño Txikia

Etxano eta Uraga'tar
Yosu adiskideari, biotzez.

Diabru txikitzat daukagun zortzi urteko mutikotxo bat bizi yaku auzoan. Juantxu. Errotako Juantxu.

Errotako etxia, guriaren aurrian dago. Sagastoi bat bitarte.

Okerra eta gaiztua dala Juantxu, esaten dabe danak. Mutil okerra izatia, baliteke. Baña ez dot uste txar-txarra danik. Nik beintzat ez dot ikusi gauza txarrik egiten.

Aste ontan ikusi dudana ikusi ta gero, mutill ontzat daukat Juantxo au.

Entzun zer gertatu dan.

Ereñegun, euri aundiak bota ebazan. Lupetzez bete-bete egin ziran bidiak. Gure etxeaurrekua be bai. Goizian egun ederra etorri zan, baña egun txarra euki gendun. Illuntzia baño askoz lenago baltzitu zan arratsaldia.

Beste urtietako moduan, euren kabie egin dabe aurten be elaiak gure etxeko ateartian.

Areñegun goizian, elaikume batek egaz egin eban kabiatik, eta etxeaurreko sagar bateren adar batian gelditu zan.

Eguerdi inguruan, bota-alian asi zan euria eta an gelditu zan gizajua, busti-busti eginda. Gure auzoko Josetxu Errota osteko errekan uger egiten dabenian paretan dan moduan.

Arratsaldian, zaparrada gogorragua bota eban, eta elaikumetxua lurrera jausi zan, bete-betian be lupetzara. Lupetzez dana ondatuta gelditu zan. Parau zan moduan parauta, pentsau be ez egaz egiterik.

Juantxuk, bere etxtik ikusi eban zelan jausi zan elaikumia. Orduan, ipiñi eban buruan zaku bat, eta ortoztu egin zan, oiñetakuak ez

loitzeko. Ariñeketa batian arrapau eban txorikumetxua. Ez yakon alegiñ aundirik kotsa, gizajotxua arrapatzia.

Aiñ txartzat geunkan Juantxu ze, nik uste neban okerkerien bat egiteko, edo ilteko arrapauko ebala. Zutundu nintzan, txoria kentzeko asmotan, baña zabaldu be ez neban egin leioa.

Zer gertatu zan ba?

Juantxuk (auzokuak demoniño txikitzat daukagun Juantxuk!) kontuz-kontuz eskuetan artu eban elaikumia, biguntasun aundiagaz.

Arrituta gelditu nintzan ni. *"Baña Juantxu au mutiko txarra dala ez dabe esaten ba?"*

Ariñeketan etorri zan gure etxera, eta utsik euki dogun txorikaiola zarra eskatu eutsan gure anai txikiari.

Kontuz-kontuz eta astiro-astiro, bien artian garbitu eben elaikumetxua, elaiamia txioka ta batetik bestera ateartian eta etxeaurrian ebillen artian.

Beste elaikumak, bildurtuta egozan kabian.

Garbitu ebenian, kaiolan sartu eben, eta ezkaratzeko sutondoan ipiñi kaiolia.

Irriparrez begiratzen eutsien gure amak.

Egunsenti ederra atzo goizian. Goiztar agertu zan eguzkia, zeruan lañu errastu barik.

Eskolara joan aurretik, gurera etorri zan Juantxu, elaikumia ikusten. Bezperan lupetzaz beterik egoan pipitxua, garbirik eta dotore egoan, lumak ondo siketuta.

Gure anai gaztiak etxeaurrera atera eban kaiolia.

Ordurako, lenengoko egazkia eginda egozan beste elaikumak.

Laster konturatu zan elaiamia kaiolakuagaz, eta txioka asi zan, estu ta larri, inguruan bueltaka ta bueltaka.

Nire anaitxuak eukan kaiolia eskuetan. Juantxok zabaldu eban kaioliaren alanbrezko atia, eta kontuz kontuz eskumako eskuagaz atera eban, txiuka ta txiuka gelditu barik ebillen giltzapekotxua.

Mosu bat emon eutsan pikuan, eta gorantz bota eban aidera.

Ixillik eta irribarrez agur egin eutsien mutiko biak pipitxuari.

Gure amak be pozez egin eban irribarre. Negarranpuluren batek urten eutsela, esango neuke. Gero, diadar egin eutsien bieri, ezkaratzeko leiotik:

—Eskolarako ordua dozue! Arin ez bazoieze, berandu egingo yatzue! Ariñeketan joan zaitie, ariñeketan!

Ariñ joan ziran bai, baña bear zan ordurako allegau ez.

Eta maisuak asarre egin eutsien, eta errekreu barik itxi.

1961, Garagarrilla. BITAÑO.

ARBOLA SANTUA

Egun batean esnatu nintzan, baña nere esnaera bi eratakoa zan. Bat egun guztietan eguzkiaren irteeran izaten nuana bezelakoa. Bestea (nere barruan piztu zan esnaera gozo ura), mendira joateko gogo ikaragarri bat zan.

Ni mendizaletasun bage bizi nintzan, nere gogoan etzan iñoiz ara juateko asmorik izan, baña goiz zoragarri artan, nere aittona zana gogoratu zitzaidan, eta berak esan oi zizkidan gauzak nere oroimena bete zuten.

Abiatu nintzan ba mendiruntz, eta lenengo aldapari aurpegi eman nionean izerdiak erruz irteten asi ere bai; baña ni aurrera ninjuan; nere ikusi naiak, eta igeltsozko pipan belarra erretzen zuan buru zuri arek esaten zizkidan gauzak, ikusgura guztiz sutsu bat erne zuten nigan.

Ibillaldi bat egin ondoren, jarri nintzan atseiten, ba aldapa gogorra zan ura; ezin zeikean nolanai igo, eta alaxe nengoala, ara emen zertaz pentsatzen ari nintzan.

Nere aittonak esaten zidan:

—Mendira juan adi sarri, an aurkituko dek arimarentzat bakea, belarrientzat txorien ta errekatxoen abesti eta soñu alaiak, begiak poztuko zaizkik, gure basoetan diran zuaitz ikusgarriakin.

Gauza auek nere oroimenean zebiltzan jolasean bezela.

Jeiki nintzan, ta berriro eldu nion aldapari indar berriakin. Baña ura zoritxarra! Nere indarrak aundiak izan arren, argaltzen ari ziran, nere begiak etzuten zanak esaten zuan bezelako basorik ikusten, nere belarrietara etzan iñundik alaitasunezko soñurik eltzen, orroi asarre bat baizik; eta nere osasuna iruditu zitzaidan, txarragoa zala goialde aietan, ba nere biotz ta bularrak, oitu bage zeuden alako geiegikeriak egiten. Ikusten nuana etzan politta, eta gutxiago ikusgarria, nere begiak zuaitz asko ikusten zuten, baña itxusiak, beltzak,

illaratan ipiñiak; gudaritalde aundi baten antzera, odol egarriarekin.

Nere samiña au pentsatuaz!

Aittona madarikatzeko nengoan; baña ezin izan zeikean. Nik iñoiz gezurren bat esaten banuan, berak gogor artzen ninduan, eta nola egin zezakean berak, neri debekatzen zidana?

Jardun nion nere bideari, indarrak alnuan lekutik aterata.

Baña ailperrik!

Eznituan zuaitz´alu aiek besterik ikusten, eta auekin naastuta, sasi eta ota zikiñak besterik etzeuden.

Alako batean, ikusi nuan orraitiño zabalgunetxo bat; bedarra berde agiri zan bertan eta andik errez ikusi zeikean, goruntz begiratu ezkero zeru ederra. Juan nintzan ba alde artara eta arrituta geratu nintzan ikusi nuanean, ordurarte agertu ez zitzaidan bezelako zuaitza ikusita.

Biotza dar dar asi zitzaidan, arnasa berriz geratu, eta nere begiak ikusten zutena, eznuan sinistu nai. Ondoratu nintzan poliki poliki, eta begira geratu nintzan, bere ondoan etzan otarik, ezta laarrik ere, etzeukan ostrorik, adarrak erantziak zeuden, eta gerria oso sendoa, baña igarri igarrian zeukan oso zaarra zala. Begitu nion alde guztietatik, eta berriz leen nengoan lekura biurtu nintzan.

Eznenkian zer egin!

Alako batean, eta oso lotsakor, erabaki nuan zein zan galdetzea.

—Zu, zein zara?

—Ni naiz euskera!

Ezdakit nundik irten zion erantzun zidanak; esan zeikean, il zorian dagoen baten itzak zirala, baña erantzun ura gozoa zan, maittekorra, barru barrukoa.

Atzera asi ziran nere buruan oroimenak naasten, baña berealaxe argitu zan nere itxutasuna.

Nere begiak gauza polittik ikusi ezpazuten, piñu latz artean nengoalako zan (makiña bat euskal-seme erbestetarren artean bezela).

Orduan ikusi nuan zergatik zan ain zail zugaitzaganatzen, eta nolako indar ta osasun bear diran bere itzaleraño elduta goxoro goxoro egoteko.

An zegoan ba gure zuaitza, sendo baña goibel, baztarreratuta zeukaten, eta lurrik onenak lapurtuta.

Ainbat galdera geiago egin nion, baña ailperrik!, etzan erantzunik!

Larritu nintzan adarrak ostro bage ikustean, igartuta ote zeuden usterik. Eldu nion bati, urratu nuan apur bat, eta...

Ez, ezeak zeuden oraindik!

Negua zan noski, eta gure zuaitz zaarrak, bere sustarrak orbelarekin estaltzen zituan, epelean eukitzeko. Berak ondo zekian zer egin; ez bere inguruan zeudenak; udaberri eta negu, jantzi berdiñarekin

zeukaten dana, eta oberik ezbalego bezela arrokeri galantarekin erakutsiaz.

Orregatik zetozen errekak orroika, eta txoritxoak ere neguari zegokion saria eman nairik iges egin zuten lur epelagoetara.

Gauza oiek gogoratuta, jetxi nuan burua, nere aittonari barka eskatzeko. Ikusiko zituan nere barruko gora beerak, eta badakit barkatua izango nintzala, baña...

Ara beste atsekabe bat!

Beera begitu nuanean, nere oin azpian neukan sustrai bat. Mardula benetan! Jaso nituan ankak, eta zutitu nuan aalik eta ondoen. Zuaitz zaarraren sustraiak ziran; eta onek ama on baten antzera, orbel artean estalita zeuzkan, edurrak ezer egin etzeien. Inguruko zuaitzen antzik bage, sakabanatuta zeuden, bakoitzak nai zuan lekuan erneta; baña danak odol, gogo eta asmo berdiñekoak. Ikusten zan etzegoala illaran egoteko gurariric.

Kontatzen asi nintzan. Bat, bi, iru, amazazpi, emezortzi, emeretzi. Geiago etzan agiri; guztiz emeretzi ziran. Gutxi alajañetan!

Erabaki bat artu nai nuan, ba ondoan zeukaten zarra itzaltzen zanean, zer gertatuko zan?

Sasiak menderatu, ta betiko itota geratzeko zorian zeuden.

Asi nintzan deadarka, laguntasuna eskatu nairik, baita ixildu ere laister guztiz lotsatuta; ba piñu arteko aizearen astinduak atera zuan otsa, barre-algara iruditu zitzaidan, nere garraxiak eragin zizkien barre-algarak.

Orduan pentsatu nuan gauza bat. Bituko nituan nik geure errian zeuden ximaur danak naiz ta zatarrak izan, eta botako nuan sustar ondoetara, ia orrela indartzen ziran; baita ere kenduko nizkien ondoan irteten ari ziran sasiak. Baña nik ez nuan lan oietan batere jakituririk. Nere aldetik, zeozer ez, asko, aal baldin banuan egiteko gogoa neukan. Au bakarrik naikua izan balitz! Artuko nuan zuaitz zaarra bere sustrai ta guzti, eta eramango nuan urruti, beste lur batzuetara; an beragandik irteten zutenak, alai eta pozik, bakean biziko ziran lurretara.

Baña ezin! Ezneukan nik iñun lurrik, eta gañera sustarrak ondo erantsita zeuden azpian zeukan lurrari.

Besterik ezean, aizeak eramango balitu bere ego bigunetan, onen lora-autsak, nik zuaitz arentzat nai nuan lurretara, itxasoan zear, an beren frutua eman dezaten!

Ezneukan astirik eztabaidatan egoteko; zeozer egin bear nuan len bai len, eta erabaki au artu nuan.

Gure errian dauden ximaur guztiak bitu, eta eraman zuaitzari, urrena juan erbestera, aiek bidaldutako ongarri arekin konformatu

bage; neuk egokienak bitu eta ekarri. Orduan eznioke utziko edozeñi ongarri oiekin ibiltzen; geiegi bota ezkero erretzeko arrixkuan egongo litzake eta. Orregatik baratz-gizon jakintsu baten eskuan utziko nituzke abonu oiek. Eta orduan bai ikusiko degula zugaitz zaarra ezpada ere bere sustraiak ugaritzen.

Orain ba banoa, erbestea aztartzen, berandu izan dedin baño leen.

DEMETRIO AYERBE.



YVAR LISSNER'EK

EJIPTO'KO GIZALANTZE MIRESGARRIAZ IDATZIA,

«AINSI VIVAIENT NOS ANCETRES» DEITU LIBURUAN

Antziñako gizabidetan miresgarriena eta arranditsuena. ene ustez, Ejipto zaharreko pharaon-aroan landutakoa dugu. Antziñenetakoa izanarren, ez da, iñolaz ere, arkeologariak arkitu duten zaharrena, baiñan bai, ene iritzi apalean, danetan aberatsena eta ernegarriena. Niri, beñepein, Ejipto'ko gizalantzeak, beste iñungo gizabideak baiño geiago kordokatu eta ernarazi izan dit barrena eta antziñako erri miresgarri onen jakin-egarberak eraginda makiñatxo bat liburu irakurri ditut. Orain eskuartean daukazun euskal-itzulpen au, antziñako gizabideaz Yvar Lissner'ek idatzitako liburu jakingarri baten atal bat da. Bai neurriaz eta bai ernetasunaz, euskal-aldizkari batean gure mintzairan emateko txit egokia iruditu zitzaidan eta besterik gabe itzultze lanari ekin nion. Atsegin izan dakizula, beraz, pharaonen antziñako eskualdeaz Yvar Lissner'ek bilbatutako irakurkizun txairo eta ernegarri au.

Itzultzalleak.

I

LAU MILLA ETA SEIREUN URTEKO JOSTORRATZAK

Prehistori garaian, Ejipto etzen geroak biurtu duen munduko eskualderik agorrena eta arbolez murriztuena. Oiana, anartean, zabalgune aundietan nagusi zen eta sastraka bazterrak,

jungla deritzatenak, zabalera izugarriak zitun bere menpean, Ejipto-Barrena'n batez ere.

(Alexander Scharff.)

Pharaon'en errege-aulkiak ogeitamar dinastia alkarren segidan igarotzen ikusi ditu J. K. aurretiko 2.850'gn. urtetik 352'raiño, ots, Alexander Aundiak bere nausitasuna Ejipto Aundi'raiño edatu zuen arte. Eduard Meyer historilari argidotarrak diñonez, lenengo dinastiaren asiera, Kristau-zaro aurretiko 3.200'gn. urtean jarri omen genezake. Scharff alemanak, Hall ingelesak eta Antziñateko jakintzetan murgildutako bestetzuk diñotenez, berriz, Ejipto'ko historia 3.000 urte J. K. aurretik asi bide zen. Menes'en erregezaroa, ots, lenbiziko dinastiaren asiera emallea, J. K. aurretiko 2.850'gn. urtetsukoa dela irizten diote. Bere erregezaroak Ejipto'ko historiari asiera ematen dio eta bi milla ta bosteun urtean iraun-erazi zion. "Histori-aroa" deritzaiona, ezta, izan ere, arras ongi emandako izena, bi milla urte lenago, antziñako ejiptoarrak gizalandurik baitzeuden.

Ejipto'ko historiaren asiera baiño amabost, ogei edo ogeitamar milla urte lenago, gizona oiñarriturik zegon Nil-ibarra garaitzen zuten gaiñaldetan, be-aldeak zingiratsuak baitziren. Nolako tajua zuten? Iñork eztaki; beren lankaiak besterik ezpaiditugu ezagun. Eta lankaiok, arrizkoak, noski, antziña-antziñakoenak alderdi orotan berdiñak dira. Ez dio ajolarik, Nil-aranari inguruko zaizkion basamortuetan, Aphrika'ko iparraldean edo sartaldeko Europa'n arkituak izan ba'dira lankaiok; dela ogeitamar milla, berrogeitamar milla edo bearbada, laurogei milla urte, Euraphrika'n bizi zen *homo sapiens* giza-lanketa bakarrekikoa zen.

Paleolitiku erdialdean —amabost milla urtetsu jo ditzagun— Ejipto'ko eta Ipar-Aphrika'ko bizilaguna, ipar-aphrikatar gizabideko ezaugarri barrutikoa da. Paleolitikua burutzean, silex (sukarri) lanak obeagotzen ditu, arri-lankaiak sortarazten ditu, baiñan, J. K. aurretiko 20.000 eta 5.000'gn. (1) urtetan, mediterraneuko gizadiak bere kultura batasuna galdu zuen. Nil'en antziñako erriberetan eta legorturiko aintziretan, labetan kixkaldutako lurraz egindako etxagintzak, sukalde kondarrak, arrai-ezurrak, abere-ezurrak, txirlak, marphil-ezpalak eta austerreak arkitu dira. Alea jotzeko zerabilzkiten arrilanduak aditzera ematen digute, orain amar milla urte Ejiptoarrak iriña egiten ba'zekitela, nekazaritzan jarduten zirela eta uzta biltzen zutela. Garai ontako gizonak arranbela (2) ta gezia ezagutzen zitun;

(1) Nik erabillitako liburuak (Editions Corrêa, Paris, 1955) bixta-bixtako okerrez (aurrekoak eta atzekoak irakurriz aixa ikusi ditekenez) "en 2.000 et 5.000 av. J.-C." diño. Bidezkoa iruditu zait euskerazko itzulpenean utsune au zuzentzea.

(2) Arco.

arriz, ezurrez, eta marphillez egindako puntak lekuko. Ba'dirudi, bestalde, eltzegintza etzutela ezagun.

Neolitiku-aroan, J. K. aurretiko 5.000 ta 3.000'gn. urte bitartean, gizonak obeagotu zizun nekazaritza, abereak azteari ekin zion, etxeak eraiki zitun, murkoak egin eta oialak eundu.

Aldi artan, ots, 5.000 urte J. K. aurretik, Ejipto gertakizun bitxi batek ondamendiratu zuen: Nilen erriberetako alderdiak legortu egin ziren. Orra, garaia eldu; gizonak naturaren legepera makurtu bearra zeukan edo-ta adimenari argitasuna eskatuz gizabide bat sortarazi. Orrela, asieratik, Ejipto'ko lurrak aukerabearrean jarri zuen *homo sapiens*. Legorteak antzu biurtutako lurraldeak utziaz, Nil-aranera jatxi zen eta bertan kokatu. Baiñan, bearrekoa zitzaion bere soroak arregatzea eta ibai-azialdiaz babestea, dikeak eraikiz eta ubidez jantzirik. Nil-ibai apetatsu ta oldetsuak (3) eragiñik, gizon aul eta indargea bere organizaziño-doaiak arrotu bearrean arkitu zen. Orra zergatik gizalantzea lenago arrotu zen Ejipto'n, munduko beste alderdi askotan baiño. Ba-dirudi, gaiñera, ibaiak eta euren ibarrak egiteko aundi bat izan dutela askotan gizona alperkeriaren mendetik atera-aziz.

Tasa'tik urbil, Ejipto erdikoan, arkitu diren neolotiku illobiak, zera aditzera ematen digute, alegia, histori-aurreko ejiptoarrak, bizi onen irudi-antzean dagon geroko beste bizi batean sinisten zuela. Ankak kuxkurturik, ezker-saietsez etzanik jarrita, illotzak, arrautz tankerako illobia zizun bere egoitza; egokera phetuarena zen; arpegia sartalderuntz begira egon oi zen eta illotza zirri (4) batez edo ilatorra (5) batez estalia. Batzutan, burua almoadatxo baten gaiñean jarri oi zuten. Janari eta brebajiak gordetzeko zeuzkaten murko (6) nabarrak edo uberrak, bizar egiteko labanak, alabastro arrizkoak edo pizarrezkoak, marphillezko eskumuturrekoak, kollariak, ukendu-kutxarak, ale-zaparriak (7), arri landuzko aizkorak, aiztoak, eta arrizko karrakagalluak (8) gorputzetik urbil egon oi ziren. Tasa'ko bizilagunak dolikozephaluak ziren eta beren gorputz-ezaugarriak bereizten zituzten historia-barrutiko ejiptoarrengandik, baiñan garai ontatik asten da arimaren biziberritzeaz eta gorputzen iraun-azteaz Ejiptoarrak zeukaten pentsakizuna. Ulerpide sustraitsu au izan zen, geroago, piramide eraikitzearen oiñarri.

1925'gn. urtea ezkeroz, Gertrude Caton-Thompson eta Brunton taigabe jardun ziren lanean Badari'n, Tasa'tik egoaldera gizalanketa

(3) Caprichoso y antojadizo. (Capricieux et fantasque.)
(4) Estera.
(5) Mortaja.
(6) Vasija.
(7) Mortero.
(8) Raedera.

baten kondarrak lurpetik ateratzen. Gizabide onen ezaugarri zen, eltzeak eguzkitan legortuak izan bearrean, su-labetan izatea. Hipopotamu letagiñetan landutako txaliak (9) eta orraziak arkitu izan dira eta baita ere emakumezko irudiak illotz aldamenetan.

Baiñan, apainketa dizu, batez ere, beste gizabideetatik bereiziena Badari'ko gizalanketak. Leiar (10) lanketaren lenengo aztarnak arkitu izan dira an. Teknika onek garrantzi aundia izanen du gerora Ejipto'ko leiar-langintzan eta losagintzan. Badari'ko gizalanketa, aberatsagoa da oraindik tankera onetan, Ejipto erdikoak eta Aphrika erdialdeko erriak izan zuten artu-emanaren agiriak ematen baidizkigu. Sud'etik eta Nubia'tik ekarri oi zuten marphilla, magurioak (11) Itxaso Gorria'n zizuten etorkia eta turki-arriak Sinai'ko peninsulan.

Ejipto-Barrena'n egin jorraketetan, —E. W. Gardner eta Caton Thompson Fayum'en ari dira lanean 1925 ezkeroz, Junker eta Menghin ostera, Merinde-Beni-Salame'n 1928 ezkeroz—, ezurrezko jostorratzak eta amuak, kutxareak, burruntzaliak eta pitxiak idoro dituzte. Egoitzak, kañaberazko txabola bakunak ziren, zurezko armazoidunak, paretak esteraz egiñik zituzten eta geienetan obu-tankera (12) izaten zuten. Ildakoak "il-etxetan" amortajatzen zituzten eta sekula ez illobitan eta bizien jatenetan aurre-aurre egon oi ziren.

J. K. aurretiko 3.500 eta 3.000'gn. urte inguruan, Negade'ko lenen gizalantzeak izan zizun loraldi Ejipto Goenean edo Garaian. Izen au, Negade deritzan arkeoloji-egoitzatik datorkio. Orra, an arkitu direnak: urraidazko edo tupikizko (13) amuak, arpoi bat eta zeramika gorria txurizko apainketakin dibujoz jantzirik, gizonak, abereak, ontziak, txoriak eta arbolak aurkeztuz.

Negade'ko bigarren gizalantze aldiko eltzegintzak (J. K. aurretiko 3.000'garrenetik 2.600'era) —Gerzeh gizalantzea ere deitzen zaiona, bigarren arkeolojiku-egoitza baten izenetik— lanketaren ona dizu ezaugarri. Orra murkoen dekoraziño-gaiak: gizon-saillak, abereguduak, txoriak adarretan kokatuak, kokodriluak, gazelak eta jiraphak. Baita ere arkitu dira aizkora lauak, ontziak, tupikizko jostorratzak, gu orain baliatzen geranen ain antzekoak, gureakin nahas ditzakegula. Gerzeh'n, egin ere, agerpen izugarriak egin dira. Aldi artan Mesopotamia'n erabiltzen zituzten phorma berberako pegarrak (14), zilindruak, abereak phrisotan kolokaturik erakutsiz, kerten

(9) Cuchara.
(10) Cristal, vidrio.
(11) Marisco.
(12) Forma circular.
(13) "Urraida", Larramendi'k "urre-aire" Erronkari'n, eta "tupiki" Gipuzkoa'n, gazteleraz, "cobre".
(14) Cántaro.

entortxatuzko ontziak eta abere dibujokiko murkoak. Onek darakuskigu, irugarren millakia astean Chemdet-Nasr esan oi zaion aldian Ejiptoarrak eta Mesopotamiarrak alkarrekin artu-emanak ba-zituztela.

Hierakonpolis'en il-gela bat lur-azaleratu dute bi metro luze ta bi metro zabal dituna eta bi partetan zatitua. Batean illotza zegon eta bestean illotzai zegozkion tresnak. Ormak pinturaz dekoraturik daude: Nil'eko ikuskariak, barkuak, eize-gertariak, gudu ta dantzak... Guztiok, dinastiaurreko murkoen dekoraziñoa dakarte gogora.

Ba-dira Ejipto'n errege-illobi ugari, Negade'ko gizalantzearen azken-aro ondoren eraikiak. Zabalak, laukiak, barru-beteak eta buztinarriz (15) egiñak dira eta trapezoide phorma dute. Lurrean prestatutako zulo batetik jatxi oi zuten illotza il-gelara. Illobiok, neolitiku illobien jarraipena dakartenak dira, noski, eta erriko seme diren langilleak, "mastaba" arabiar izena eman oi diote (bankua, mintzaira ontan). Taju ontako mausoleotan egortzi (16) zituzten, Sakkara'ko iparraldean, Nil aranaren mugan, lenbiziko ta bigarren dinastiako erregeak: Horus Aha, Horus Djer, bere emazte Merjet-Neith, Horus-Ouadjet, Horus Kaa, au da, ezagun zaizkigun lenengo pharaonik geienak.

Errege izen aintzinetik dijoan Horus onek, jaungoikorik nagusiena aditzera ematen du; Ejipto-Garaia'n, prehistoria alditik jauresten (17) zuten. Aro onetan edatu zuten beren nausitasuna Nil'en deltara Ejipto-Goena'ko erregeak. Emendik etorri zen oitura erregeai Horus izena emateko, Ejipto'ko erreiñuko jaungoiko zaitzallearen aurkezleak baitziren. Erregeari lokarturik zijoakion jaungoikotasunaren emaille zen au. Horus'en ezaugarria aztorea (18) da.

Ejipto'ko kondairako notiñik lehenena eta zaharrena Menes izan zen, lenbiziko dinastiaren phundatzallea. Ez da, iñolaz ere, elezaharrak sortutako notiña; lehenik beste izen bat zeraman —izena baiño gaitzizena noskiago— "betikoa dena" esan gura zuena. Menes, J. K. aurretiko 2.850'garren urtetsuan bizitu zen eta Ejipto Garaia ta Barrena bere agintepean bildu zitun. Memphis'en phundatzalle izan zela oso argi ezpa'dago ere, ziur dakigu, bestalde, Nil uraitzean behera etorki, Menes'ek Delta menperatu zuela. 1897'an arkitu zuten Negade'tik urbil, illobi bat, ustez Menes'ena dena. Baiñan, egitan, Ejipto'ko kondairako bi lenengo notiñak Djeser erregea ta Imhotep izeneko jakintsu bat izan ziren. Au, arkitektu, mediku, apaiz, magu, idazle,

(15) Ladrillo.

(16) Ehortzi, enterrar.

(17) Jauretsi (jaun-etsi), adoratu

(18) Halcón, Zuberoa'n.

gnomiku-olerkari (19) eta Djeser bere Errege'ren kontseillari zen. Imhotep, orain lau milla ta seireun urte bizi izan zen eta berak zuzendutako egingaiak (20) ditugu Ejipto'ko mausoleorik aundiena, Sakkara'ko bizitzadun piramidea eta Djeser erregeren illobia.

Zer da, izan ere, piramide bat eta nola izan zuten Imhotep'ek eta bere nausi pharaonek arri- landuz eta maillaka egindako piramidezko monumentu bat zutitzeko ideia?

II

NUN DATZA SECHEM-CHET PHARAONA?

Illobi uts batean, pherula arba bat...

Kairo'ko auzoguneak amabost kilometroko zabalean edatzen dira: Heliopolis, erriburua baiño gorago dago situatuta, klima legorragoa dauka eta orretxegatik sanuagoa. Heliopolis uri artiphiziala izanik, gizonaren eskuak sortua da; ur tantorik txipiena eraman egin bear ara. Ogeitamar kilometroko tartea dago Kairo ta Abusir'en artean. Uri au, Sakkara bezalaxe, basamortuko ordeka-garaiaren ertz-ertzean dago. Auzogune jendetsu auetan bizi dira, Ejipto'ko erriburu zaharrena izandako Memphis'eko bizilagunen ondorenguak.

Piramideak bixtari dei egiten dio; nausikiro zutiturik dago ordeka-garai gaiñean; inguruan beste piramide txipiago batzuk ditu askoz beranduago eraikiak. Sakkara'koak, bere aizpen okre-kolorea dizu, baiñan, mailletan egiña delako ezta aien berdiña. Djeser'en erregezaroa baiño lenago, errege-mausoleu gaiñetan ladrilluzko konstruziño barru-bete ta irutxur-zuzendun (21) bat eraikiz amor ematen zuten. Onelakoari "mastaba" esan oi zioten. Djeser'ek egindako monumentuak sei mastaba ditu bata bestearen gaiñean eta ezta onetxegatik piramide bat zeatz mintzatuz, bizitzadun mastaba bat baizik.

Djeser'en erregezaroak emeretzi urteko irauna izan zuen eta bere mausolearen eraikuntza Imhotep bere arkitektuari leporatu zion. Djeser eta bere lau ondorengoak irugarren dinasti-barrutikoak ziren. Djeser'ek, J. K. aurretiko 2.500'gn. urtean ekin zion bere erregetzari eta geroztik piramide izenarekin ezagutzen dugun arri-monumentu tankeraren asmatzalle da.

Piramidea ta berak estaltzen duen illobia, ots, erraldoi neurritako

---

(19) Gnómico. Izen au, esakun-erakusgarriak eta moral legeak bertso laburretan egiten zituzten olerkariai ematen zitzaion.

(20) Proyectos.

(21) Rectangular.

illeta illobia, sinbola baten adierazgarri dira; eurak darakuskigute erregek zein uritan zuen egoitza. Djeser'en mausolea errege-uriaren ondorena dela esan liteke. Nil-araneko Memphis, esaterako, Alabaiña, bizidunen etxeak bezala eraikiak egon bearrean, ots, Nil-erriberan eta zurez, bustiñez edo kañabera kruzatuz, il-etxeak, arri landuz egiñak daude eta basamortuan.

Orretxek nabarmentzen du, ain zuzen ere, Djeser erregea bere aurrekoengandik, bera izan baitzen erregetan lenengoa piramideari sortze eman ziona. Baiñan, piramide au errege-illobiaren zati bat besterik ezta. Ildako erregeren il-egoitzak zati oietxek zitun: arresi bortitz bat, administraziño-lantegiak, elizkizunak egiten ziren patioak, almazen izugarriak, bigarren illobi bat eta opari-aldare bat.

Djeser'en bizitzadun piramideak millaka illobi ditu begipean bere baitatik; illerri izugarriaren ixiltasunean eta pakean, erregea bere menpekoen agintari dago.

Egun batean, egazkin-photo batek salatu zuen beste mausoleu bat ere ba-zela Djeser'en piramidetik urbil; bere planua uber-kolore garbi-garbi batean ageri baitzen basamortu lurraren gaiñean. Egazkinphotoa arkeologariarentzat eta erradiographia medikuarentzat berdinberdiñak dira. Euri jasa baten ondoren nabaitzen dira batez ere aspaldidanik ondarrean egortzitako uri-ertzak, arresiak eta illobiak. Sakkara'n, argazkiak (22) bi lauki zabal eta misteritsu salatu zitun eta 1951'gn. urtean, Ejipto'ko Zahargallu lanetako aztertzalle nagusi zen Dr. Zakharia Ghonem'ek lurpekoak argitaratzea erabaki zuen.

Djeser'en ondorengoen erregezaro bakoitzak etzuen sei urtetik gora iraun eta 1954'gn. urtean arkitutako illobia egin-erazi zuen pharaonak nortasun bereizi baten erakuspena egin zuen, Djeser'ek bezala, bizitzadun piramide bat egin-erazteari ekin zion; baiñan, langilleak irugarren bizitza parera iritxi zirenean, iritziz aldatu zuen. Ezpaitzuen artu nai betiko atsedena Ejipto-Goena'ko orronkari ta artzaiak bezala tumulu baten barruan, il-egoitza batean baizik, Ejipto-Barrena'ko erregekideak bezala. Au dela-ta, agindua eman zuen, arresi-pareta eta piramide lepotua (23) bitarteko zabalgunea betetzeko, irugarren bizitza pareraiño; gero, ormaren iparraldea urratzekoa, illobia aundiagotzeko. Mastabaren luzera zazpireun metrokoa izango zen eta zabala berreunekoa! Neurriok erraldoi tamañakoak ziren, onek artzen zuen zabalgunea Cheops'ena baiño aundiagoa baitzen. Azken onena 250×250 metrokoa baitzen.

Aurreneko txundidura arresi-orma arkitzea izan zen; ondapen

(22) Fotografías.
(23) Truncada.

txipienik gabe ondarpetua gelditu zen, lau milla ta bosteun urte lenago egin zuten bezalaxe.

Gero, luzaro gabe, Ghonem'ek ager-erazi zitun bizitzadun piramidearen saietsak osatzen zituzten iru planu edo orma etzanbera (24). Guztiau, orain lur-azaletik behera dago. Lau milla urtetan, aizeak igarri-ezean bildutako ondarraz estali ditu ondakiñok. Baiñan, problema bat dago askatugai: Nola sartu mastabaren gorpuzpean lurpeturik dagon abagunean? Au, eraikuntzaren erdi-erdian zegon, noski. Baiñan, nun zeukan sarrera?

1953-1954 negualdian, mastabatik berrogei metro iparraldera, arkaitzean barneratzen zen galeri bat ediren (25) zuen Ghonem'ek. Galeri onen arkitzea benetan arrigarri zen, eraikuntzak zabalgune aundi bat artzen baitzuen eta galeria, edo zeazkiago mintzatuz, tunela, garrantzi urrikoa baitzen. Baiñan, bearrekoa zaigu jakiten, Djeser'en mausolea, ots, bizitzadun mastaba, illobi ezaun-ezetik bosteun metroko bidaldira dagola soilki; bere zati-moldakizuna ezaguna zen eta bere planuak señalagarri balio zuen. Djeser'en illobia bere ondorengo pharaonentzat eredugarri izan zen bezala, piramide au arkeologarien azterketen gidari izan zen.

Lanari asiera emateko, illobi-gelara zeraman galeriatik zakarrak atera-azi zitun. Gangatik ialkitako (26) arriak lur-ateratzalle bat il zuten, baiñan, setatsu ekiñaz, eta lurpeko sator biurtuz, lur-azaletik berrogei metrora, Ghonem illobi-gelan sartu zen. Bero eze eta itogarri bat egiten zuen bertan. Erdian, illobi ikaragarri bat zetzan alabastrozko monolitu batean landuta.

Bi xehetasunek arriturik utzi zuten Ghonem jakintsua: illobia etzegon gelaren erdi-ardantzan doi-doi kolokatuta eta gaiñera, zearka-xamar zegon. Postura arrigarri onek ba-zuen zer pentsatu. Illobia utsik ote zegon? Irugarren dinastialdiko ejiptoarrak etziren sekula ausartuko olako legerik urratzen, illobiak il-gelaren erdi-erdian bear baitzuen!

Alabaiña, anartean arkitutako errege-ilgelarik geienak prophanatuak zegozen artean, au itxia zegon. Orra beste misteria! Eundaka illobiren artean, Tout-ank-Amon, Osorkon, Psousennes pharaonenak eta Hetephere erregiñarena ediren ziren soil-soilki ikutugabeak.

Sakkara'ko onetan, alabearrez, il-gelak ikutugabe iraun zuen. Illobiak berekin zitun, noski, illotza eta antziña-antziñako altxor (27) paregabeak eta arteko langaiak arkitzeko bezperetan giñan, iñolaz ere.

---

(24) Inclinado.
(25) Arkitu.
(26) Desprendidos de la bóveda.
(27) Tesoro.

1954'ko garagarrillaren 25'ean, larunbatarekin, illobiaren estalki ikaragarria altxa zuten, amabost tonelada pixatzen baitzituen; gero, zirritutik barrena aztertu zuten, elektrikazko zuzi batekin argiturik. Illobia utsik zegon!

Nola igarri misteri oni? Pharaona beste nunbait egortzia izan ote zen? Ba'ote zen beste illobirik bere gorpuzkiak zitunik? Il gela itxurazko illobia ote zen? Hipotesis au bildurrik gabe onartu litekena da; izan ere, aldi artan pharaonak bi mausoleu egin-erazten baizituzten, bat Ejipto-Garaia'n eta bestea Ejipto-Barrenean eta Djeser'ek berberak bi illobi egin-erazi zitun bere il-egoitza arresi barruan.

Mintza gaitezen orain uskeritxo batez, baiñan, berez uskeritxoa izanarren, testigutza baliotasun aundi bat duena. Iñork eztaki illobian zer gertatu zen, baiñan azkenekoz il-gela utzi zuten gizonak, orain bost milla urte, beren igaroaldiaren aztarna utzi zuten: arbatxo apal bat illobi estalki gaiñean kokaturik. Ikutu zuten orduko, auts biurturik jausi zen, baiñan, kondar azterketak erakutsi zuen pherula adar bat zela, ots, onbeliphera sendiko landarea. Erretxin klase bat egiñaz, Ejiptoarrak illotzak gantzutzeko (28) erabiltzen zuten.

Zer esplikazio eman genezaioke estalki gaiñean arkitutako arba oni? Eorzte (29) sinboliku baten adierazpena ote? Pharaonak agintzen jarraitu ote zuen eta bere illotza beste gela batean jarri ote zuten?

Mausolea bera misteri bat da; trazak ba-dirudi oro pentsatu-ezian egiña dela. Ezin ulertu genezaken estuasun batek eragin zien gela ta pasilluen antolamenduan. Gure ustez, esplikaziño bakarra auxen da: mausolea egin-erazi zuen pharaonak denbora labur batean okupatu zuela bere errege-aulkia. Nor ote zen pharaon au?

Bere titulua ezagutzen dugu: "Sechem-Shet". Illobian arkitu baitira labe-sutan gogortutako pegarrak eta murkoak eta auek ixteko sellu gaiñetan ageri zaigu.

Orra beste arrigarria: pharaon onek darama lenengoz titulu au. Baiñan bi itz auen alkartasunak tituludunaren nortasuna adierazten digu. Irugarren dinastiako errege bat zen. Djeser'ek, esaterako, Netjer-Chet izengoitia eramateko eskubidea zuen (chet-ek, "soin" "gorputz", esan gura du).

"Sechen-Chet" au Djeser'en ondorengoa dela uste dezakegu, beraz, eta 2.575 urte J. K. aurretik il zen, noski, ortxe-antxe. Onetxegatik da, ezpai gabe, illobi au bere aurrekoaren auzoko, eta egilleak emendik izan zuen asma-iturria. Auek orrela izatekotan, Sechem-Chet (30), Djeser-Atoti pharaona zen zalantzik gabe. Onen

(28) Untar, embalsamar.
(29) Acto de enterrar.
(30) Egilleak, aurrenekoan Sechen-Shet idazten du eta bestetan Sechem-Chet.

izena, errege izen-lerrotan Djeser'enaren ondoren baidator xuxen-xuxen.

Piramide guzietan bezala, il-gelan illobia sartu-erazteko egindako pasillu maldaduna, bi lekutan arrizko blokez itxirik zegon. Oetako ate baten aurrean bitxitegi baten aztarrenak idoro zituzten. Bitxitegia suntsitu egin zen, baiñan ez ala bitxiak; ikutu gabe baitzeuden aren barruko ogeitabat eskumuturreko, kollare bat, pintza txipi bat eta urre utsean egindako txirla bat. Alkarki batek baturik, txirla tapakiak itsasita gelditzen dira.

Txirla au, Ejiptoar bitxigintzako maixuzko ederlana da, ots, ejiptoar eder-langilleak oi zuen trebetasunaren agiria. Urrearian (31) landutako bitxi au zoragarriro akabatuta dago, batez ere bere tamaña gogoan eukita —amabi zentimetroko diametrua baitu—, eta Kairo'ko museuko apaingarririk ederrena da.

Zein erregiñak, zein printzesak eraman ote zuen? Zein emakume ederrek erabilli ote zuen koloretegallutzat edo-ta usaiki-pottotzat?

Arrigarria bada ere, pasillu batean ediren zuten. Pasillu au il-gela batera zijoan eta onen baitan illobi uts bat zegon. Pherula arba (32) eta pitxi auek zerbaiten siñale dira, iñolaz ere. Sakkara'ko mausoleak errege edo erregiña baten ezurrak gordetzen ditu, noski, bere baitan.

Baiñan, urtetan eta jorraketan jardunarren, ez lirake sekula santan arkitu ahal izanen, noski, mastaba onen baitan gordetzen diren misteri guziak.

III

EGUZKIA BIZITZAREN ERAGINGARRI

"Antziña, gizalantze au bizia izan zen, gira-arimak ernetua, egiazko sinismen batetik sortua. Onetxegatik izan zen iraunkor eta aundi. Asiera gabe ez da izanik eta ez da ezertxore egiten."

(Ivar Lissner.)

Denbora labur-labur batean, Ejiptoarrak arkitekturaren historiak jakin-erazten dizkigun arri tamañarik aundienak karriatzen ikasi zuten eta beroietaz baliaturik piramideak eraiki zituzten. Djeser'ek bere erregezaroan bizitzadun mastabak egin zitunetik, ots, arrizko lenengo eraikuntza erraldoia eginez geroz, pharaonak Gizeh'ko piramide aundiak egin zituzten arte, berrogeitamar urte igaro ziren. Bi-

(31) Filigrana.
(32) Zarba, abar.

tarte onetan, Ejiptoarrak, ladrillua arbuiatuz, arri-lantzean alako maixutasun jabe egin ziren, etzela geroztik lan ontan alderatuko zitzaion erririk sortu. Eunaldi labur batean, basamortu lurrean sakondutako illobi apala, mastaba biurtu zen, eta gero, Djeser'en bizitzadun mausolea. Cheops'en piramidea, eun eta ogeitasei metro altura duelarik, evoluziño onen erpiña bezala jo dezakegu; geroxe, piramide neurriak apalagotuko dira.

Nil ibai-egian, Kairo uriaren aurrez-aurre, Gizeh deritzan iria datza; zazpi kilometro sartalderuntz, desertuko lerro-lerroan, erraldoi eta bakarti, iru piramide islatzen dira zeru urdinpean.

Iru erregek eraiki zituzten: Chufu'k (Cheops), Chef-Re'k (Chephren), eta Menkau-Re'k (Mykerinos). Chufu, "chnum"etik dator eta "zaitu nazazu" esan gura du. Chef-Re'k, "eguzki-jaungoikoa ateratzen da", eta Menkau-Re'k, "Ra'ren izatea betikoa da". Herodoto'k, Ejipto'n egin zuen egonaldian, Chufu pharaonaz xehetasunak emateko eskatu zien ejiptoarrai, bi milla urte lenago illa baitzen. Bere izena, erri-oguzkerak antzaldaturik Cheops zela iduri zitzaion eta izen au eman zion errege oni. Cheops'en piramidea gallur lau eta arritsu baten ertzean eraikia dago, Chephren'ena sudoeste alderago, menditxo baten gaiñean; iru monumentuetatik txipiena Mykerinos'ena da.

Arabiar atsotitz (33) batek onela diño: "Izardia (34) denboraren bildur da, baiñan, denbora piramideen bildur". Piramidien aintzinean gelditzen denak pentsa beza: J. K. aurretiko 450'gn. urtean, Herodoto, historiaren aita, miretsirik gelditu zen ikustean. Gero, Antonio ta Cleopatra ikusi zituzten beren aurretik pasatzen. Cesar eta Bonaparte beren oiñetan gelditu ziren. Berealakoan, iraunaz daukagun ustea tajuz aldatzen da. Zer dira bi millaldi? Gauza utsa! Lau milla ta bosteun urte? Gizadi-kondairaren segundu bat. Piramideen iraunari ba'gagozkio, Cheops ahaltsua, Julio Cesar, Erroma'ko semerik sonatuena, Herodoto Grezitarra, bere irudimen eta oarmen gaitasunagatik aldiorotako historilaririk gallenena bezala etsiturik dagoena eta gerora sortuko zen phrantzitarren enperadorea, histori-aurreko gizonaren aldikide biurtzen dira. Monumentu auen aintzinean, denborak eztu izanik. Orain lau milla ta bosteun urte eraiki zituzten eta aldi artan aspaldi iraganak ziren gizonak sukarri bat karrakagallu biurtu zuen aroa.

Esphinjeak, erdi leoi, erdi errege, atzaparrak ondarretan estalita, urteak lerratzen (35) sorgor begiesten du. Misteri-aire bat dario eta

(33) Anbiola, esaera zahar.
(34) Izar-di, universo.
(35) Labaindu, deslizar.

bere ixilpekoa gorderik dauka. Alderdi guzietatik egin dizkiote pinturak eta dibujuak, neurriak artu eta argazkiak atera. Ba-dakigu bere luzera irurogeitamar metrokoa dela, betik gorakoa ogei metrokoa, bere belarriak metro bat eta ogeitamazazpi zentimetro dutela, bere aboak bi metro ta ogeitamabi zentimetro zabal; baiñan eztakigu nork agindu zuen monumentu au egin-erazteko. Ots, baiña; esphinjeak Chephren'en jauretxe (36) alboan dauka bere egonlekua, pharaon onen izena daraman piramidearen sortaldean eta oiñetan; ba-zirudien, beraz, Chephren'ek landu-erazi zuela. Baiñan, probatu egin bear. J. K. aurretiko 2430'gn. urtean bizi zen boskarren dinastiako Sahure pharaonaren piramideak, uste au zuzena zela erakutsi zuen. Sahure'k eraikitako bas-relief baten gaiñean, erregea bere etsaiak birrinduz ageri da esphinje baten irudipean. Baldin Sahure esphinje baten antz-irudipean ageri ba'da, berak egin-erazi zuen esphinje batetik urbil, zentzuzkoa dirudi, Chephren'ek eraikitako jauretxetik urbil dagon esphinje aundia, pharaon onetxen irudi izatea; Chephren zen, beraz, monumentu au eraikitzeko agindua eman zuena. Arkeologari batzuen iritziak aitziko (37) ba'zaizkigu ere, esan genezake Gizeh'ko esphinjea eztela Ra'ren sinbola, ots, Eguzki-jainkoarena, Chephren Errege'ren abere irudia baizik.

Cheops'ek, Chephren'en aitak, alegia, aldiari zipo egiñaz, beinbetiko iraungo zuen zerbait eraiki nai izan zuen eta orrela Ejipto'ko piramiderik aundiena egin-erazi. Eun milla lagun jardun ziren, gutxi gora bera, ogeita iru urtetan, beren erregeari betiko egoitza eraikitzen. Ontarako bearrekoa izan zen bi milloi t'erdi arri-mokor (38) karriatzea, lehenik laukitu ondoren. Batzuk eun eta berrogeitamar toneladako pixua zuten. Zama onen izugarriari igarri ahal dezaiogun, goguan izan dezagun, burnibideetako wagoirik aundienak berrogei edo berrogeitamar toneladako karga eraman dezaketela! Ontzitan eraman oi zituzten arrobitatik eundaka kilometrotan —zortzireun kilometro baitira Gizeh'tik Assouan'go alearri arrobitara— eta bana-bana igo zituzten arriok piramidearen maldadun ormetara.

Obraren zimendu-artzea ingurutik ekarritako arriz egin zuten. Nekez sinistu dezakegu, lehen aldian, piramidea losa zuri distirakorrez estalirik zegola diñon esaera; jantzi onek egitasunik gabeko apainduria emanen bailioke. Zeiñen ikuskari ederra Ejipto'ko zeru urdinpean! Karearri losak Nil'en eguzkialde egitik eraman zituzten obraren oiñetara, urteroko ur-jasa aundiaz baliaturik.

Cheops'en piramideak eun da berrogeitasei metro goiti ditu eta

(36) Templo.
(37) Aurkako, kontrako.
(38) Arritzar, bloque de piedra.

bere soiñak bi milloi bosteun eta ogeitabat milla metro kubiko. Piramideaz diardugula, ezjakiñari iduri zaio, zigor-kolpeak, zaindarien orru marrantak eta jopuen birao ta alakak (39) entzun bearrean dela. Uste ustela auxe. Inperio Berri aldian, Ejipto'ren izate osoa pharaon-jaungoikoa zen; bera bizi zelarik, beste denak alperrik zeuden. Il ondoren, beste munduan bear zion bizitzari segurantzi eman. Piramide aundia eraiki-lanean ari ziren eun milla gizonak bortxaturik ziarduten, noski, baiñan, baita ere erlejiñozko sinismen batek eraginda. Ezta munduan zigorrik eta ez bortxarik ere, alako phanatismua sor-araz dezakenik. Erlejiño anpatasun au izan zen eragillea, ots, pharaonaren mendekoak bultz-arazi zituna beren errege-jaungoikoari ikaragarrizko monumentu ori eraikitzera. Piramidea sinbola bat eta ideal bat zen bidenabar, ejiptoar erriaren bizi-indarra sutzeko laingoa. Dudarik ezta, bortxatzeak parte aundia izan zuela; apaizak eta estadu-morroiak so-eginean baitzeuden. Baiñan, pharaon-jaungoikoaren illotza gorde bear zuen mausolearen eraikitzea elburu bat zen. Etzion ajolik jendea lanaren zamapean eror zedin; erregeren geroko bizitzari segurantzi ematea zen premizkoa, erri osoaren aragi-irudia baitzen. Ejiptotar gizona mentalitate-sistema onen mendeko zen: danak ba-zuen zentzu bat eta etzen deus ere gertatzen arrazoirik gabe; eriotzak berberak bere tankera laborrigarria (40) galtzen zuen. Ikuspide au illauna (41) zen noski; histori-lege bat baita ez-baitasun (42) eta zalantza aldiak iraunean luzeagoak izan ditezela ekinaroak baiño, ots, gizonak zer dagien eta nora dijoan dakien aroa baiño.

Zergatik egiten zituzten pharaonak piramidien tankerako monumentak? Beren jo-muga etzen arkitektura langintza bat egitea, beren geroko biziari segurantzia ematea baizik aundiki ta sendoki. Pharaonak, ejiptoar guziak bezala uste baitzuten, izaki guziak "Ka" deritzan bikotea berarekin zuela; soiña iltzen da, baiñan ez ala bikotea. Eriotz ondoren, ostera, "Ka" delakoa ezin baldin ba'da gorputz batean itsasi, bere gaitasunak galtzen ditu. Premiazkoa, beraz, illotzaren iraun-eraztea da, desegin eztadin zaitu eta prophanatzalleen eraso babesean ipiñi. Auxen da piramidien izate-arrazoia, beren baitan gordetzen baidituzte pharaonen il-ondakiñak; enbaltsamaturik, bizi-antza gordetzen baidute gorputzak eta piramideak ez dira bildur eunki luzeak atxemateko. Pharaonak iritxi ote dute beren elburua?

Lau milla ta bosteun urtetan, Cheops'ko piramideak zazpi metro galdu ditu alturan. Baiñan, aizeak ba-du laguntzalle on bat, denbora,

---

(39) Blasfemias y lamentos de los esclavos.
(40) Espantoso.
(41) Efímero.
(42) Incertidumbre.

alegia, eta onen egonarria (43) neurrigabea da; orma-apaingarria joana du aspaldi. Losak, erraustuak daude batzuk; bestetzuk, karea egiteko balio izan dute eta balio dute oraindik ere. Fellahk, ots, ejiptoar nekazariak, arras debekaturik dute illobi-jauretxetatik eta illerritatik arriak eramatea eta areago oraindik inskripziñoak daramazkitenak. Baiñan, "izen gabeko" utzikiñaz jabetu litezke; nai duten eran baliatzeko eskubidean dira.

Piramidearen biotzera daramazkiten maillak jeixten ditunak —Cheops'enean igo egin bear da ta ez jatxi—, igarriko du zer gauza utsa den gizonak denborari eta eguratseko eragilleai (44) egiten dien borroka. Ilgelan ixiltasuna nausi da, axanpak itotzen zaitu; emen zetzan Cheops, kanpoan bizi den mundutik ormarik trinkoenaz apartatuta. Orma auek urratu ta desegiteko gaurko bonbarik indartsuena elitzake aski izanen. Alearrizko illobia antxen dago oraindik-orain, baiñan barrukoa prophanatua izan zen eta pharaonaren momia prophanatzalleak eraman zuten. Ezta geiago arkitu ahal izan. Beste erregien gorputzak beren illobitatik erauziak (45) izan ziren, naiz-ta, beren ardurarik aundiena, euren illotzak jendearen bixtatik apartatzea izan. Beren pitxiaz murriztu (46) ondoren, illotzak basamortuan utzi zituzten eta aizeak sakabanatu zitun euren soin-autsak. Beste momi batzuk, museutan agerian daudenak, ikustallearentzat, aldiz ernegarri eta aldiz laborrigarri izan oi dira.

Ejipto'ren iru milla urteko izana, gizalantze baten ekintasunaren eta aritasunaren eredu bikaiña da. Iru milla urteko aldi au beste errien kondairetan ere arkitzen da; beren asiera idazketaren asmakizuna da beti. Ioritasun (47) aldiai arrotz nausitasunaren garaiak darraizkie. Garaitua izan den erria nahas egiten da beste erriekin; gero, histori-ziklo erdi aldera, diktadura zibilla edo militarra izan zuen jasan bearra. Berriz ere amilpean jausi zen, berriz ere loraldi garaia ezagutu zuen eta bere kondaira amaitzen da iru milla urtetan bizi ondoren. Alaxe izan zen helendar-gizalantzearen irauna; onek, J. K. aurretiko 1400'garren urtean asiera eman zion eta bere azkena Mahomet II'garrenaren eskuetan Constantinopla jaustearekin izan zen 1453'gn. urtean. Europar okzidenteko gizalantzea, europar-ameriketakoa ere esan oi zaiona, J. K. geroztiko 451'gn. urtean asten da Champs Catalauniques izeneko gudaldian eta alabearrezko zikloaren erdira eldu bear; gure aldia, diktadura aldia litzake, beraz. Beste

(43) Paciencia.
(44) Agentes atmosféricos.
(45) Extraídos.
(46) Despojados de joyas
(47) Ugaritasun.

itzetan mintzatuz, gaurko okzidentearen egoerak, Ejipto'ko Erdi-Inperio'ko azkenaldearen tankera gogora dakarkigu. Gudak eta ondamendiak zemaika ari zaizkigu, eraberritze eta aberaste aldi baten aurrelari antzo. Milla ta bosteun urte phalta zaizkio Europa'ri, gainbera asi eta amilpean jausteko. Ejipto'k notin nabarigarriak sortuerazi ditu: errege anker eta on-puskak, tiranuak eta errege gizatiarrak, nausiketariak (48) eta edertiaz eta literaturaz maitemindutako adimen zoliak (49); esaterako, Nebkaure, Sesostris I'goa eta Amenophis IV'gna. Chephren, bere estatuak darakuskigunez, gizon zangar eta ausarta zen, begiratu bizi eta zorrotzekoa. Kairo'ko museuan gordetzen den bere estatuak, alakoxeko itxura kementsua dauka. Bere piramidia, berriz, burnizko borondate baten erakusgarri da. Chephren'ez esan duguna, Amenemhat I'goaz ere, ots, Erdi-Inperio'ko lenengo erregeaz, esan genezake. Ezagutu ere, garai ontan ezagutu baitzuen Ejipto'k bere azi-aldi betea —Amenemhat, J. K. aurretiko 2000'gn. urtetsuan bizitu zen—; bere seme Sesostris I'goa izendatu zuen erregekide. Amar urtetan alkarrekin gobernatu zuten Ejipto. Amenemhat I'goa, Thebas'ko jaungoiko Amon'en adoratzalle zen eta arengandik zizun izena. Asesinatuta il zen eta bere semeak auxe utzi zuen aldarrikaturik (50): "Izan adi gogorra ire mendekoekin; erriak ezpaitik obeitzen gogor eginda baizik. Ez iñorekin adiskidetasunik egin eta etzak iñor ire anai egin. Adiskideakin etzak uste onik [illegible]ki. Oeratu adinean zaitu-erazi zak ongi ire atea; arrisku garaian gizona. ezpaitik adiskiderik."

Kontsejuok Millingen delako papirus ospatsuan daude. Bere egilleak, Sesostris'ek alegia, Amenemhat bere aitaren aboan jartzen ditu itzok.

Memphis'tik berrogeitazazpi kilometro egoaldera, Licht deritzan irixkatik sartaldera, Sesotris'ek mausoleu bat egin erazi zuen. Au, ladrilluzko piramide bat da eta bere erdialdea Cheops'en il-jauretxeari kendutako arri-mokorraz dago egiña. Baiñan, illobia indarpetua izan zen eta pharaonen momia lapurrak eramana.

Garai oni dagokio ubide baten idekitzea. Suez'koaren aurrekoa deritzakegu, Nil ibaia Itxaso Gorria'rekin alkartzen baitzuen.

Sesostris'en jauretxean, janari, gordekari (51) eta loreak sail aunditan arkitu izan dira. Oitura zen illak mantentzeko janari-bilduma egitea, baiñan benetan arrigarria da Sesostris'en illobian arkitutako jatenak, egazti erriak edo lumatuak xoilki, okel-zatiak, letxu-

(48) Conquistadores.
(49) Perspicaz.
(50) Proclamar.
(51) Provisión.

gak, luzokertxoak (52), ogiak loto-lore zuri ta urdiñak, gure aldiraiño onik irautea. Ba-dira pinturak, errege-arakiñak idiak iltzen eta zatitzen margozturik dituztenak. Ba-da Sesostris'en irudia zurezko estatua baten emanik; bere neurriak berrogeitamar zentimetro pasiak ditu ta urre-zigorra ta tiara daramatzi; ankak billutsik ditu eta oial xume batez jantzirik dago. Irudi onek bizia ta naturaltasuna dario —gurealdiko irizteko laingoan— eta ez dakigu zer miretsi geiago bere baitan, irudigillearen azkartasuna ala oarmena. Bai bata ta bai bestea arrigarriak baitira.

Gizalantze aundiak, basakeri-itxasoan galdutako ugarteak direla esan liteke. Gizona bere oraiñaren baitan bizi da; jakintsuak, ederzaleak, idazleak eta libertatea ororen gaiñetik dutenak, ez dute ederresten bear bezenbat pakearen ontasuna berandu izaten den arte. Alaxe gertatu zitzaien Ejiptoarrai J. K. aurretiko 1675'gn. urtean, Asia'tik eldutako nomadak nausitu zitzaizkienean. Kassitarrak urte batzuk lenago Babilonia'z jabetu bezala, Erromatarrak Grezia'z nausitu ziren bezala, Hun-taldeak Italia'z eta Mongol-taldeak Pekin'ez, Hyksotarrak Nil-aranean edatu zuten beren agintea. Nortzuk ziren nausiketariok? Manetho'k, ejiptoar apaiz eta historilariak —J. K. aurretiko 280'gn. urtean bizi izan zen—, kontatu digu "errege-artzaien" etorrera ta phinkatzea. Bere kontakizuna Flavius Josephus juduar historilariak emandako aldakizunari eskerrak dakigu. Bere gixa antolatua izateaz gaiñera, au, judu-erriaren kondaira-ardatzari loturik dabilkigu zorigaitzez. "Amu"tarraz mintzo diren Kamose ta Ahmose pharaonen eta Hachepsout erregiñaren urtekariak, leialagoak direla aitortu bear da. "Amu"tarrok, Aouri delako uri batean phinkatutako nomadak ziren eta emendik sailletan jaurtitzen ziren Ejipto'ko iparraldera. "Errege-artzaiak" Amutarrak baldin ba'ziren, —izen au Siria'ko errege semitarren ezaungarri baita— probatua legoke Hiksotarrak Kanaandarrak zirela. Apika, Churri'tarrak edo Hurritarrak ote ziren, J. K. aurretiko 1680'gn. urtean Mesopotamia'n sartu zirenak eta Tigre ta Euphrate ibarretan Mitanni zeritzan erresuma ahaltsua irazan (53) zutenak?

Hiksotarrak Ejipto'z jabetu ba'ziren ere, zalantzik ezta, aspaldidanik an zebillen nahastea lagungarri izan zutela. Nahaste au mende erdi bat lenagotik ba-zetorren. Amabigarren dinasti-azkenaldean, aginte-indarraren auleria ezagun zen. Gudari-buruzagiak aginteaz jabetzen saiatzen ziren noiz-nai eta Ejipto, akitua gelditu baitzen, etsaiaren jaki guri biurtu zen arrezkero.

---

(52) Pepinillo.

(53) I-ra-zan, hacer ser, crear.

Historiaren legea da, aran iori batean egoitza jartzen duten nausiketariak, nagikerian galtzen direla poliki-poliki eta beren gudukoitasuna akitu egiten dela. Thebas'ko amazazpigarren dinastiako azken orregien agintepean, ejiptoarrak asaldatzen (54) dira ta libertate aldeko gudu baten ondoren, emezortzigarren eunkiko pharaonak jaurtitzen dituzte Hiksotarrak eta erresuma indartsu bati ematen diote sortzea.

Emakume batek, Hachepsout erregiñak, erantxi zion bere siñalea Ejipto'ko kondairaren aldi oni; J. K. aurretiko 1.501'etik 1.479 bitartean agindu zuen. Tradiziñoa zen Ejipto'ko erregeak Amon jaungoikoaren jatorrikoak zirela; au kaltegarri zitzaion bere erregin-agintaritzarako ta orregatik, bere gizonezkotasuna eta jaungoiko-jatorria aldarrika-erazi zuen. Pinturetan eta euskulturetan gizonez jantzita ta bizardun agertu-erazten zuen bere burua. Berak edertu ta aunditu zuen Karnak'eko jauretxea, bi obelisku izugarri eraikiz apaingarritzat; Der-el-Bahri'n mausoleu bikain bat eraiki zuen. Baita ere eginarazi bere aitak eta aitonak amets egin zutena, mendian illobi bat zulatu-azi baitzuen, Nil ibaiaren sortaldean, ondarrezko aize-jasak jotzen duten bazterretan. Ibar au, gerora, Errege-ibar izenez ezagutua izan zen. Eunkiak lerratzearekin beste irurogei illobi bilduko ziren Hachepsout'enaren inguruan. Nil'en bi aldamenetan uri bikote bat eraiki zen: bizien Thebas eguzkialdetik, illen Thebas sarkaldetik.

Hachepsout'en neba (55), Thoutmes III'gna. izan zen Sudan'etik Euphrate'raiño zabaldu zen erresuma aundiaren phundatzalle. Bera izan zen aldi artako erregerik aundiena. Oso gaztetan ezkondu zen bere arrebarekin eta lenen bolaran Hachepsout aundinaiari utzi bear izan zion agintea. Baiñan, azi zelarik, Thoutmes'ek bere emaztea eta Senmut bere amorantea il-erazi zitun eta baita suntsitu-erazi ere bere "arreba txit maitea"ren oroipengarri zitekean oro. Luzaroan lotuta egondako Thoutmes III'garrenaren kemena ta abailla (56) bat-batean libre arkitu zen. Palestina'z eta Siria'z nausitu zen Euphrate'raiño. Bere gudaketa kontakizuna —amasei urtetan gertatutakoak dira— arrian irarrita dago Karnak'eko jauretxeko orma gaiñetan.

Amenophis II'gna., bere ondorengoa, eiztari ta arranbel (57) tiratzalle aundia izan zen eta Siria'ko biurrialdi bat odoletan ito zuen. Pharaon au etzen xamurra bere etsaientzat. Kronikak jakin-erazten digu, Thebas'era zazpi Asiatar errege katiaturik eraman zitula. Oietako sei uriko ormetan zintzilikatu zitun eta zazpigarrena Napata'n,

(54) Sublevarse.
(55) Anaia, arrebarekiko.
(56) "Dinamismo" itzultzeko darabilt.
(57) Arco.

erriburutik egoalderatsuko urian. Zangartasunezko (58) ekite aundiak leporatzen dizkiote; zalantzik ezta, ordea, bere agintaritzak iraun zuen ogeitasei urtetan, bere izen-omena zaitzen jakin zuela. Gizeh'ko esphinjearen ankatartean dauka bere egontokia eta oroitarri batek darakus Amenophis II'gna. arranbela tiratzeko posturan.

J. K. aurretiko 1400'gn. urtea baiño geroxeago, Amenophis III'gnak, tiara bururatu zuen; bere erreiñu-aldian, erresuma, aberastasunaren ta arranditasunaren (59) gallurrera iritxi zen. Thebas'ko uriaren diztira gure aldiko Paris'koenaren antzekoa zen. Bere azokak mundu guziko emaitzez beterik zeuden eta bere etxegintzak erriburu guziai gallentzen zitzaizkien bikaintasunean.

Menpeko erreiñu anitzek pagatzen zioten zerga (60) pharaonari eta Sortalde-Erdiko erresumetako agintari aundiak, ots, Mitanni'k, Asiria'k, Babilonia'k eta Hittitarren erreiñuak, Amenophis'en harenera igortzen zituzten beren alabak eta ejiptoarren adiskideak izateaz illarraintzen (61) ziren. Thebas'ko jauretxetan altxorrak eta urrea pillaturik egoten zen. Uri bikaiñak, jauregi arranditsuak, aintzira (62) artiphizialak zerioten dirdaiak, illaun biurtzen zuten munduak orduraiño ikusi zuen guzia lujo eta apaintasun gaietan. Amenophis III'gnak, Luksor'eko jauretxea eta Memnon'go eskultura erraldoiak egin-erazi zitun. Auek, mendez-mende zelatari diraute arpegia Thebas aldera biurturik, orain suntsiturik den pharaon onen mausoleu izugarriaren aintzinean.

Ejipto'ko errege guzitatik ernegarriena Amenophis IV'gna. da. Au, Amenophis III'gnaren eta jende-xe sendi (63) batetik sortutako Teje bere emaztearen semea zen. J. K. aurretiko 1330'gn. urtean, Amenophis IV'garrenaren izenarekin, pharaon gaztea bere erregeaulkira igo zen. Alabaiña, adiñez gazteegi zelako, bere amak leporatu zuen errege-ordezkoa.

Umetatik, Amenophis IV'gna. Heliopolis'en gurtzen (64) zen Eguzki jaungoikoaren adoratzalle sutsua zen. Dirudienez, alkarren kontrako ideiak beroturik ziren aspaldidanik Ra'ren eta Amon'en apaizen artean. Thebas'en, Ra'ren kultua, Amon'ena baiño lenagokoa zen, onen jaurestea amabigarren dinastiaraiño irixten baitzen soilki.

Baiñan ideia-auzi onek etzuen borroka beterik ekarri orduraiño eta bi jaungoikoak beren tokia zuten ejiptoar panteoian. Amon, Ra jaun-

(58) Bravura, coraje.
(59) Esplendor.
(60) Tributo.
(61) Vanagloriarse.
(62) Lago.
(63) Familia plebeya.
(64) Venerar.

goikoaren itxura bat bezala aitortzen zuten. Amon-Ra izena arturik, bere jarraitzalleen txera gordetzen zuen.

Amenophis gazteak eguzki-jaungoikoa jauresten zuen Aten'en itxurapean. Itz onek "eguzki-obua" (65) esan gura du. "Aton" itza adiera gaizto baten seme da.

Aten'ek, biziaren, sortzearen, eta azitzearen gizatasuna aurkezten zuen. Ejipto guzian, Amenophis'ek, Aten'en jauretxeak altxa-erazi zitun eta bere izena onela aldatu zuen: Echnaten. Gero, Amon'en apaizen kontra urtetan borrokatu ondoren, Thebas abandonatu zuen eta erriburu berri bat irazan Tell-el-Amarna'ko bazterretan. Akhetaten ezarri zion izena, ots, "Aten'en osertz-uria" (66). Echnaten'i zor zaio Ejipto'ko poemetan ezagutzen den ederrena: "Zeiñen eder den zure egun-sentia zeru osertzean, o! Aten bizia eta bizitzaren emaillea! Zuk sortu duzu lurra zure biotzak agindu giñoan; zuk jartzen duzu bakoitza bere tokian eta ematen bakoitzari bearrekoa. Ene biotzean zaude zu. Gizonak zutzaz bizi dira beren begiak zure ederra aitortzen duten artean... Bein betiko bizi ta iori zeran ori!"

Eguzki-iñu (67) au Ejipto guztian arkitzen da, illobi orma-gaiñetan, jauretxe-arresitan eta Echnaten'en agindupean eraikitako monumentutan.

Aixa igarri genezaioke pharaonaren eta bere jarraigoaren erteerak zer zirrara eginen zuen Thebas erriburu zaharreko bizilagunetan eta zer samintasuna, berriz, Amon'en apaizena, Errege ta bere kortea urrun joaki ikusirik. Alabaiña, Echnaten etzen egindakoaz ase; Amon'en jauretxe guzitatik kendu erazi zuen bere izena eta txikituazi kulto-gai oro. Kutsu zahar garbiketa egin zuen artxibu ophizialetan eta eskribak agindua jaso zuten antziñako papirusetan borratzeko zorikabean jausitako jaungoikoaren aipakizunak. Amon'en apaizak beren mesedezko emari ta karguak galdu zituzten. Eguzki jaungoikoa izanen zen soilki jauretsia. Sekula etzuen ezagutu Ejipto'k bere baitan alako irudi-kontrako sukarrik!

Zerk bultza zuen pharaon gaztea berrikuntza onen gidaritza artzeko? Erlejiño-phanatismuak eragin ote zion? Aten'en apaiz-taldeak berotu ote zuten? Teje bere amak, apika? Politikaren eragiña izan ote zen?

Echnaten'en izakera ezta uste onen aldekoa. Erlejiñozale sutsua baitzen, aro (68) berri baten eta dotriña baten aintzindari izan zen eta bera bakarrik dotriña onen erakustalle. Echnaten, idealzale ez-

(65) Disco solar.
(66) La ciudad del horizonte de Aten.
(67) Himno, Mutriku'n.
(68) "Era" bezala darabilt.

ezik, ikusketari ere ba-zen. Bere aldiko gizona zenez, Ejipto'ko kondairaren gizaro baten aurkezlari da. Gainberaren atarian, Ejipto'k errege bati ematen dio sortze, ejiptoar erri osoaren berrikuntza indarraren sinbola dena. Amenophis IV'garrenaren agindupean edertiak bere gaillenaldia atxematen du; lantegitatik ateratzen diren obrak Ejipto'n sortu diren onenetarikoak dira. Estilu berria, "Tell-el-Amarna'ko estilua" deritza. Natura artegai biurtzea, ederraren goraipatzea, estetikaren azalpen-tankera guzietarako jobidea eta edertiaren gizakoitasuna ditu ezaugarriak. Kreta'k sendo eragiñik, Ejipto'ren antziñatiko edertiaren arau zorrotzak urratzen ditu. Ejipto'ko ederzaro (69) aundiaren estiluakin alderatzen ba'dugu, Tell-el-Amarna'ko au gainberaren siñale da, noski, baiñan ezin liteke ukatu bere jatortasuna. Pharaonak, antziña atxemangaitza ta urrutikoa ba'zen, jaungoiko izateari utzi dio ta gizon biurtu da. Errege au, bere gizatasunari dagokionez eta bere eguneroko bizitzan aurkeztu lezakete aurrerantzean ederlariak. Bere emaztearen egoitzak bakar-erazten dituzten arresiak jausten dira eta estal-zapiak zabaltzen, Nefertiti'ren irudi panpiña agerian utziaz. Pinturetan eta eskulturetan emakume bat bezala ageri zaigu eta ez erregina bat bezala eta phreskotan printzesak beren aurrak besarkatzen dituzte gaiñerako ilkorrak bezalaxe. Ederlariak (70) aukera ditzakete geroztik beren ederti-gaiak sentitzen dutenez, gauzak ager-erazi berak dakusten bezala. Onela ulertu dezakegu Nefertiti'ren irudi-ugaritasuna. Pharaon'en emaztearen arpegiko ingurumari (71) iaiotasuna guzizkoa eta berdiñik gabea da. Nor zen Nefertiti? Ba-dakigu, Amenophis III'garrenaren, ots, Echnaten'en aitaren hareneko emakume artean, Mitanni'ko bi printzesa zirela. Erresuma au Euphrate eta Tigre artean zegoen edaturik, bi ibai auek alkarrengandik bereizten diren tokian. Tusratta erregea zegon Mitanni'ko agintaulkian eta pharaonen kortera igorri zitun bi indoariotar printzesak Taduhepa eta Giluhepa zuten izena. Amenophis III'grna. iltzean, bere semearen harenera igaro ziren. Bietako batek izan bide zuen, apika, alaba bat Echnaten'en emazte biurtu zena Nefertiti izen leñargiarekin. Beraz, indo-europatar odola ibilli-zebillen aren zaiñetan.

Amabi urtekin, Amenophis IV'gna. Nefertiti'rekin ezkondu zen, au amar urtekoa zelarik. Bere senar erregea il arte, agintearen buruausteak alkarrekin eraman zituzten. Nefertiti etzen, beraz, Asiatar erregiñen tankerakoa, auek beren buruak gordezale izaten baitziren eta berentzaz iñor gutxi oartzen zen.

---

(69) Período artístico.
(70) Artista.
(71) Contorno, rasgo, facción.

Baiñan zorion au laburra izan zen. Tell-el-Amarna, erriburu berria, alegia, kortetarraz eta etorkiñaz zegon osaturik; leñargiak, ondasundunak eta tradiziñoaren aldezlariak Thebas'en gelditu ziren. Pharaona aulegia eta idealzalegia zen bere buruari leporatu zion arlo ikaragarria aurrera eramateko. Amon'en apaiz-taldeak, lasaitu ezezik, beren asarrea erakusteko motibu berriak ediren zituzten. Gaiñera, Amenophis IV'gna. zabartu zen atzerri-politikari buruz. Ejipto'ko pharaona berak uste zuten tiranua etzela igarririk, menpeko erriak burua altxa zuten eta zerga pagatzeari utzi zioten. Sortalde-ertzeko ejiptoar ahalaren gainbera biziagotu zen eta Echnaten'ek bere burua bakarrik arkitu zuen, orduraiño eutsi ziotenak abandonatu baitzuten. Ogeitamar urte pasatuxe zeuzkan il zenean, J. K. aurretiko 1344'gn. urtean. Tell-el-Amarna'n arkitutako bere busto batek, ia emakumezko baten phakziño eztiak darakuskigu. Sentibera eta azkaira ageri zaigu, begi aundi pentsakorrak ditu eta gorputz aula.

Senarra il zitzaionean, Nefertiti'k uste izan zuen agintaulkia gorde ahal izanen zuela bere aurrendako eta apika beretzat ere bai. Elburu onek bultzata, Hittitarren erregearengana jo zuen, bere semetako baten eskua eskatuz. Hittitarren ahalean oiñarriturik, bere agintea sendotu uste izan zuen. Alperrikako lana! Erregegaia asesinatua izan zen, Nefertiti ederraren ondora zijoalarik. Eztakigu zernolatan il zen erregiña, baiñan, pentsa dezakegunez, ejiptoar erriaren kausari traizio egin ziola salatuta, Hittitarren erregeari ots egin baitzion laguntasun eske. Beraz, ilbearra zeukan.

Nefertiti'k Hittitarren erregerengana jotzeak ba-du bere garrantzia; zera probatzen baitu onek, Hattusa'ko erregearen zaiñetan eta Nefertiti'renetan odol berbera zebillela dantzari, au Mitanni'ko erregetar printzesa baten alaba baitzen.

Echnaten berritzallearen eriotzari, biurrialdi larrizko garaiak jaraitu zitzaizkion. Semenkhare, Echnaten'en suia jabetu zen erregeaulkiaz, baiñan urte batzuk geroago il zen: nunbait, suntsitu-erazi zuten. Tut-ank-Amon ere, bere ondorengoa. Echnaton'en sui bat zen. Pharaon onek —bere illobi miresgarriaren arkitzea Howard Carters arkeologariari zor diogu—, Amon'en apaiz-taldeak eragiñik, Tut-ank-Aten bere izenaren ordez Tut-ank-Amon artu bear izan zuen. Tell-el-Amarna'ko egoitza utzirik, berriz ere erriburutza Thebas'i eman zion eta Aten'en jauresketa (72) bazterretsi zuen. Berau ere gazterik il zen.

Luzaroan galdegin dute ejiptologariak zenbat urtekin il ote zen Tut-ank-Amon. 1922'gn. urtean bere illobia arkitu zenean, bere izena mundu guzian edatu zen. Illobia idekiaz, bere baitan bigarrena ba-

(72) Culto, adoración.

zuela oartu zen Carters; arreta aundiaz atera zuten; urre utsezko zerraldo bat zeukan barruan eta onek, pharaonaren momiatik zeukan arturik phorma. Orduantxe ikusi zen momia au emezortzi urteko gizon gazte batena zela.

Aldi artako traidore eta azpilaria (73) Eje zeritzan; estadu-lanketari goitarra (74) eta Amon'en apaiz zen; Echnaten'en aldian azpilanean ziardun eta azkenean agintaulkiaz jabetzea ardietsi (75) zuen. Baiñan, aginteari gozotasunik artzeko astirik etzuen izan. Horemheb bere etsaiak, Ejipto-Barrena'ko gudari-taldearen buruzagiak, galerazi zion. Lau urtetan alper-alperrik saiatu ondoren Eje indarkeriz erailtzen, lortu zuen noizpait bere leikidea oztopo bidetik baztertzen eta pharaonen tiara bururatu zuen. Ejipto'ko kondairak alderakizun bat bururatzen digu: ito gabetanik ezin atera giñezken itxasoa, alegia.

Ejipto bixitatzen duen txangozaleak maiz entzuen du oiu au: "Ramses itzuli da!" Ramses II'garrenak, bere buruzale eta monomanibera baitzen, Ejipto'ko monumentutan bere irudia ahal zuen guzietan agertu-azten zuen. Ia ondakiñen erdiak, bere erregezaroan egiñiko ediphiziñoenak dira. Berak aunditu zuen Karnak'eko areto aundia, Luksor'eko jauretxea zabaldu zuen, Ramesseum bere izena daraman santuetxe aundi bat eraiki zuen, bere irudia zeramaten estatua erraldoiak eraiki-azi zitun lurralde guzian eta Nil'etik Itxaso-Gorri'rako ubidea berritu zuen. Eundaka batzuk emazte zitun, baiñan onegatik etziren txunditzen ejiptoarrak, bere aurrekoai jarraipena eman besterik ezpaitzuen egin orretan. Tradiziñoak jakin-erazten digunez, eun seme ta berrogeitamar alaba omen zitun. Batzuk bere aitaren emazte izatera eldu ziren, Ejipto'ko usarioak on-artzen baitzuen oitura au. Irurogeitazazpi urteko erregezaro luze baten ondoren, Ramses laurogeitamar urtetan il zen. Mende bat geroago bere izena iraindua zebillen eta berak irazan zuen dinastia bere ondorengoarekin itzali zen.

Sekula etzen izan apaizgoa orren aberats; apaizak eun milla jopu baiño geiago zituzten. Kopuru geiegizkeri bat izan liteke au, orrelakotan gertatu oi denez, baiñan ez gaitezen ahantzi, kopuru onek esakun zaharretan "asko, erruz", esan gura duela. Landu zitezkean lurretatik zazpitik bat Amon'enak ziren; bere apaizak, Ejipto'ko ta Siria'ko eun da irurogeitabederatzi urien zerga-emaria jasotzen zuten eta bosteun milla buruko aberetaldearen jabe ziren. Geroago, Ramses III'garrenak, Amon'en apaizai, ogeitamabi milla kilo urretan egin zien emari eta urteko eun ta larogeitabost milla gari-zaku baietsi.

(73) Conspirador.
(74) Alto funcionario.
(75) Lortu, iritxi, kontsegitu.

Jainkoak biziarazteko, pharaonak berari zegokionatik eman bear izaten zuen; bere ahala ta omena (76) beraka zetozen. Egitez, erregeak apaizen morroi biurtu ziren. Ejipto'ren gainbera biziagotzen ari zen; Libitarrak, Asiriarrak, Ethiopiarrak nausitu zitzaizkien eta gero Pertsiarrak, Cambyse buru zutelarik. Alexandre'k, Macedonia'ko erresumaren probintzi biurtu zuen Ejipto. Cesar, J. K. aurretiko 48'gn. urtean Alexandria erriburuaz jabetu zen; Cleopatra'rekin izandako idiliotik seme bat jaio zen, baiñan etzen sekula Ejipto'ko errege-aulkira igo. Erroma'ko probintzi soil biurturik, erresuma onen garitegi biurtu zen. Ejipto'ren ahala eta iru milla urteko kondaira oroitzapen illaun batean biurtu zen. Guzti ontatik, ondakiñak, monumentak, illobiak eta kemen-indarrak akitu zaizkion erri baten txirotasuna ta ajoleza (77) besterik ezta gelditu. Aize kiskalgarriak eraginda, ondar erasokorrak Ejipto'ko izanaran aztarnak irentsi zitun.

Baiñan, ondar onek ezin ditzake desegin gizonaren eskuak irazandakoak, ots, bere sormenaren testigutzako langintzak. Ejipto'k gizabideari egin oparia aintzakotzat artu bearra da. Burni-langintza, arkitektura ta arri-lantzea, ejiptoarrak asko aurreratu zuten. Orra, zor dizkiogunak: pillarea (78), Erromatarrak gerora beretu zuten apaizgo ta gizartego erakuntza (79), estadu-lanketari gorputz (80) baten sortzea, leiar, egutegi, ur-erloju, jeometri, oial, postal-administraziño asmaketa esta izar-jakintza ta sendakintza barrutian aurrerapen aundiak. Guztiau, gaiñera, gizadiaren talde aundiak oianetan eta estepetan anartean orron (81) zebiltzen garaietan. Ejipto'ko pinturak eta eskulturak gerora sekula iritxiko etzuen on-bete-mailla atxeman zuen. Pheniziarrak, Siriarrak, Judeguak, Kretarrak, Grezitarrak eta Erromatarrak bitarteko direla, ejiptoar gizalantzea, gizadi osoaren onibar (82) izatera eldu da.

Sormenez, ederlarien ahalmen eta jakitez, Ejipto, munduak ezagutu duen gizalantzerik biñaiñenetakoen seaska izan da.

Giza-arimatik sorturik, egiazko sinispen batetik jaiorik, gizabide onek bizia zerion; orra zergatik izan zen ain iraunkor eta aundi. Asierarik gabe ezerk ez du iraunik eta ezta deus egiten.

---

(76) Poder y prestigio.
(77) Pobreza e indiferencia.
(78) Zutoi, columna.
(79) Organización clerical y civil.
(80) Cuerpo de funcionarios.
(81) Errante.
(82) Bienes raíces, irudi-gixa arturik

IV

"BIZI ADI ALAI"

"Ni oeraturik nengon, baiñan begi aundiak zabalik"

Arri ta zur utzi oi dute momi-arpegiak darioten bizitasunak eta naturaltasunak. Ba-dirudi, illotzok aste batzuek lenago dituztela itxiik begiak, bizi-itxurak alako indarra baitu berengan. Batzuk, bost milla urte igaro ondoren, piztuera egunaren zai daude. Jakintsuak baietsirik dakigu, orain bizpairu milla urte eortzitako illotzen oinpeak, zumetasun zerbait gordetzen dutela oraindik.

Arima eta gorputzaren bereizteari diñogu eriotza. Antziñako ejiptoarren ustean, eriotzaren ondoren, arima gorputzari alkartzen zitzaion. Premizkoa zen, beraz, illotza onik iraun-aztea; arrazoi onetxegatik, ain zuzen ere, milloika ildako, pharaonak eta ejiptoar aberatsak, balsamoz gantzutuak izan ziren.

J. K. aurretiko 700'gn. urtez geroztik, illotzak gantzutzeari utzi ba'zioten ere, eun milla ildako, momia biurturik izan ziren. Millaka momia dauntza (83) Ejipto'ko lurpean; iñork eztitu oraindik atera-azi. Pharaonenak, ostera, batzuek museutan daude gorderik, baiñan, bestetzuek zai daude arkituak izan ditezen; euren artean, ezti ta zirioz igurtzirik, Macedonia'ko errege Alexandre Aundia'rena.

Gorputza onik iraun-azteko iru modu dira: lenengoa, ozkirriak (84) iraun-eraziko dion toki batean uztea da; bigarrena, bakterizida gaikiak (85) zaiñetan eta arterietan sartzea; irugarrena, illotzak igartu eta giro ezeari itzul-eragin. Ejiptoarrak irugarren metodu au erabiltzen zuten. Baiñan, giza-soiñak urezkoa dizunez euneko irurogei ta amabots, zailla da giza-eunak igartu-azten. Gantzulariak suaren eraginpean ipintzen zituzten illotzak eta iñoiz edo eguzkiaren beropean. Thebas'ko illerrian, Hatiay zeritzan baten illobian, momiak tetxuraiño pillaturik dauden il-gela bat ediren dute; Yeivin arkeologariak diñonez, gela-ormak eta pasilluak beztutzen ditun kedar-aztarnaz susmo arturik, momiak suaren eraginpean jarriak izan zirela pentsa dezakegu. Baiñan, ba-liteke ere, lanean murgildurik arrapatzen zituzten lapurrak ketzeko, illobi sarreretan zarbakin piztu oi zuten sutearen aztarnak izatea.

Deshidratatuz ere kontserba zitezkean gorputzak; ontarako, gatza, karea eta natroia erabilli oi zituzten, ots, hidro-jaurtilari gaiak. Ki-

(83) Datzaz, "etzan" konjugaturik, "egon"ekin, daude, dagoz, bezala.
(84) Fresco.
(85) Producto.

mika-azterketa bidez beroien aztarrenak arkitu ahal izan dira momietan, eta illobitan, berriz, natroiez beteriko murkoak.

Herodoto'k gantzuketa-metoduaz egiten digun azalpena, arkeologariak ateratako konklusiñoen idekotsu da gutxi-gora-bera. Momiphikaziño lana onela egin oi zuten: burmuiña (86), esteak eta urdaillean bilduak ateratzen zituzten, baiñan, etzituzten ikututzen biotza eta giltxurdiñak. Gantzulariak, zilborgunea (87) garbitzen zuten, palmardoz ukuzi (88), gero mirraz, urrinkiz (89), kanelaz, lakaiñez (90), txirbillaz, ondarraz eta natroiaz bete; batzuetan tipula gaiñeratzen zuten. Zaiñetan eta arterietan kimika gaikiak sistatzen zituzten. Zedro-olioaz, mirraz eta usaikiaz (91) igurtzirik, gorputzak, erretxiñaz edo breaz kutsatutako bendetan biltzen zituzten. Urrinki usaiña gure aldiraiño eldu da. Arpegi gaiñean, ildakoaren irudizko katamalo (92) bat ipintzen zuten, oialaz eta estukaz edo urrez egiña ta arri-ederrez apainduta. Burua almoadatxo baten gaiñean ipiñi oi zuten eta momia zerraldo batean etzanik estalki batez itxirik.

Ba-zituzten gantzuketa maiak —batzuk arkitu ere egin dituzte— beren lantegi onetan arduratsu jarduteko; maiak, oraindik-orain, natroi eta gatz aztarrenak dituzte eta inskriziño bati jaramon egiten ba'diogu, illotz batek momia biurtzen amar illabete bear zitun gutxieneko.

Jatorrizko oituran muebletegi guzia illobira eraman oi zen ildakoari lagunduz; au-dela-ta, onek, etxe edo jauregi bat zirudin. Gerora, okela ta janariak il-gelan uztearekin etsitu zuten; labetan gogortutako murkoak etxearen eta garatearen (93) sinbolatzat zeuzkaten; beroietan ageri diren irudiak, berriz, ematen duenez, jopuak alea deskargatzen aurkezten dute. Estatua aundi ta txipiak, mirabeak artillea euntzen eta iruten darakuste, illari laguntza egiñaz. Beste estatua batzuetan, jopuak, aragizko estalgarripean bizirik dagoenari, jakiak eta brebajerik premizkoenak eramanaz egeri zaizkigu. Neska gazteak billuzik aurkezten zituzten irudiak ere ipintzen zituzten illobitan; baiñan, auxen arrigarri: ankarik gabeak ziren! Antziñako tradiziño bat da, izan ere. Lenen aldietan, errege zenaren kortekide guziak bere nagusiari lagundu bear baitzioten illobira. Geroago, irudiak bete zuten ilgai bear zutenen tokia. Alabaiña, estatua auek itzul etzitezen,

(86) Cerebro.
(87) Abdomen.
(88) Lavar.
(89) Aroma, aromático.
(90) Arizpi, albañu, "hila".
(91) Perfume.
(92) Máscara.
(93) Hórreo.

zuhurtasun neurriz, ankarik gabe aurkezten zituzten. Illobiak altxor eta aberastasun ikaragarriak zituzten. Ezin ulertu diteke nola Ejipto'k burutu ahal izan zuen ainbeste denboran olako ondasunen eralgitzea.

Baiñan, Ejiptoarrak eriotza garaitzen ba'zekiten, biziaz gozatzen ere ba-zekiten. Eriotz kutsuko erlejiño baten mendeko izanarren eta siniskeriz beteak egonarren, biziaren ulerpide egizale bat zuten. Umore jabe izanik, giza-bizitzak baliotasun erlatibu bat besterik etzuen berentzat. Daduak, ajedrez-jokua, borroka ta gorputz-ekiñaldiak zituzten maite. Oturuntz ondoetan, beren jopuak soin-koipetzea ta koroatu-aztea zuten gogoko eta mai-atsegiñetan murgiltzen ziren leiatsu. Sendo ta giartsuak ziren, sorbaldaz zabalak eta giaz (94) meak; aboa aragitsu eta espresiñoa zorrotz eta erabakibera. Aberatsak gorputz liraintasunari garrantzi aundia ematen zioten; bataz-besteko arpegi normala zuten, sudur zuzena, begi esakorrak, ertzeki (95) phiñak. Aurrak, larru zuridunak jaiotzen ziren, baiñan Ejipto'ko eguzki kiskalgarriak luzaro gabe beztutzen zitun. Phreskotan, gizonak larrua okre-kolore dute eta emakumeak ke-kolore. Auek, illea motz daramate, ezpaiñak pintatzen dituzte, azkazalak koloregorritzen, adatsak (96) eta gorputza koipetzen; gizonak, berriz, peluka zeramaten. Gizamail goituxeko ejiptoar emakume batek edergarri-krema ta kolorete klase asko bear zitun euki, ta iltzean beroiekin joan oi zen illobira. Toilette-gaiak, ispilluak, bizar-labanak, orraziak, orkillak, ille-kiskurgaiak, auts eta kolorete estutxeak, zurezko, marphillezko, alabastrozko eta burdiñorizko (97) kutxareak erruzka arkitu dira; estutxe batzuek, begietarako auts-aztarnak dituzte oraindik. Laburtuz: ejiptoarrak usaikiak egiten ba-zekiten aldi artan.

Aurrak larrugorri ibiltzen ba'ziren ere, jopuak eta baserritarrak estalgarri bat zeramaten. Erresuma Zaharrean, zerbitzariak bularra agirian zeramaten eta oial zurizko gona estu batez jazten ziren. Renofer'en estatuak darakusen bezala, lenbiziko dinastietan, apaizak ere orrelaxe jazten ziren. Baiñan, denborarekin, jazkera osoago ta aberatsago biurtu zen. Emakumeak, kollarez, eskumuturrekoz eta txonkatil-erraztunaz apaindu gura zuten. Gizon bakoitzak ba-zizun gutxieneko erraztun bat, emakume bakoitzak lepo-kate bat. Geroago, ejiptoar guztiak, gizaseme ala emakume, belarritakoak eramaten zituzten. Laburki: kolorete ta pitxi-gaietan ejiptoarrak gure maixu zitezkean eta gure aldikoek zer ikasi asko zuketean Nil ibarrean bizi ziren apainzaliengandik.

(94) Cadera.
(95) Trazo, rasgo, facción.
(96) Cabellera.
(97) Bronce.

Ejiptoar eskoletako ondakiñetan arkitutako "kuadernuak" eta papirus-errolluak onik eldu zaizkigu. Eskolako erakusketa-oiñarria gorputz-zigorraldia zen. Ikasle batek onela idazten zion, adibidez, bere maixuari: "Ene sorbalda zigortu duzulako, zure erakuspena ene belarrietan sartu da."

Papera egiteko, papirusen txortena tiretan mozten zuten; bata bestiaren gaiñean ipiñiz alkar-gurutzatzen zituzten tinkatu (98) baiño len. Orrela egiten zuten ejiptoar tekstoak idazteko zerabilten papera eta oraindik-orain, bost milla urte igaro ondoren, aixa irakur ditezke.

Sumer'ekin izan zituzten sal-erosketa artu-emanetatik, ejiptoarrak sumeriar-idazketaz baliatzen ikasi zuten. Au izan zen beren idazketa-sistemaren sorrera. Asieran, piktographikua izan zen soil-soilki idazketa au; beste nolabait esanaz, irudiak itzaren ordezkoa egiten zuen. "Itz" batzuek konsonante batez eta vokal batez osatzen ziren; bestetzuk, konsonante zenbaitez. Gero, konsonanteak bakarrik idazteko usarioa edatu zen eta konsonante bilduma bat irudi batez aurkeztu oi zen.

Labe-zomorro sakratua darakusen dibujuak, zomorro (chpr) onen izena adierazten du lenengo, gero, "etorkizuna" (chpr) adiera abstraktua; ikur berexi batek ezaun-arazten zitun bi itzak. Orrela, bakuntasun-zurrean, ikur batekin aurkezten diren konsonante bateko itzak alphabeta bat egin-erazi zuten. Baiñan, pheniziatarrai zor zaien alphabeta onek, Ejipto'ko idazketa piktographikuan izan zuen sorrera ta onek bere jaiotzan seireun ikur izan zitun gauzak izendatzeko.

2.000 urte J. K. aurretiko bibliotekak idoro izan dira; baita ere labetan supetutako murkoak, barruan papiruzko errolluak zituztelarik, txit ongi iraun-eraziak eta arduratsu etiketatuak. Oetako biblioteka batean, Robinson Crusoe'ren antz aundiko kontakizun bat arkitu da; beste batzuetan amodio-poemak, odak, alegiak eta albisteak.

Ejiptoarrak eragozpen zenbait idorotzen zituzten zenbakiak idazteko, baiñan, ala're, ezagutzen zuten amarreko kontalegea. Beatz bat, 1 adierazteko, bi beatz, 2 adierazteko... bederatzi beatz, 9 adierazteko. 9 zenbakiari ikur bat erantxita 10 sortzen zen. Bi amarrekok 20 sortzen zuten eta abar. 100'entzako beste ikur bat zuten. 1.000.000 zenbakia adierazteko, gizon irudi bat zutik eta eskuak jasorik erabilli oi zuten; nunbait, alako numero altuak sorrarazten zion arridura aditzera eman gura zuen. 999 zenbakia idazteko ogeitazazpi ikur jarri bear ziren lerro-lerro. Ala're, matematikak oso goi-maillaratuak zeuden. Eurakatik izan ezpa'litz, etzen ejiptoar arkitekturarik izanen. Millaka urtetako oarbidez, izarrak, izargelditan eta izarbeletan (99)

(98) Prensar, apretar, oprimir.
(99) Estrellas fijas y planetas.

bitaratu zituzten, begi utsez ezin ikusi litezken boskarren neurriko izarrak barne.

Sendakintza barrutian, ejiptoarrak eskeletua ta odolbidea estudiatu zuten; biotzak organismuan duen eragin-indarrezko eginbearra eta organu nagusienen eginbearrak ezagutu zituzten. Sendakintzaz diarduten teksto zahar nabarienetako batek —arkitu zuenaren izena darama, Edwin Smith ingelesarena— iru milla ta seireun urte ditu eta bost metroko errollu bat da. Berrogei ta zortzi zirurji-operaziño aipatzen dizkigu bertan, kosko (100) urratzetik bizkar-ezurreko zaurimiñetaraiño eta bere egilleak diño bekaldeko gorputz-atalen kontrola burmuiñak daramala. Orain lau mende Europa'n etzekiten olakorik! Beste papirus batzuk gaitz auek aipatzen dituzte, esaterako: ezurtisis-gaitza, arteriosklerose gaitza, arthrite-gaitza, maxkuriko arriak, baztanga, poliomielitis, anemia, epilepsia, ezueria (101) eta apendizitis. Baiñan, iñun ez da mintzatzen siphilis edo min-bizi gaitzaz, ezta ere ortzetako karie gaitzaz. Gerora, aurrerapen eta gizabidea phinkatuz dijoazen ainean (102), gaitzaldi au gero ta aipatuago izanen da sendakintza idaztitan. Oraiñaldian oskiaren (103) erabiltzeari leporatzen zaion beatz txipiaren atrophia, aldi artako ejiptoar tekstotan aipatua da; gauza arrigarria, ordea, ejiptoarrak oiñutsik ibiltzen baitziren.

Ebert'en papirusetan, zazpireun sendakai ardura aundiz izendatuak daude, suge-oskaren kontrakotatik asi eta sukar-ustelaren (104) sendapideraiño. Illobitan pharmaziako sendakai-bilduma' osoak arkitu izan dira. Buru-soiltasunaren aurkako tratamentua illeak atera bear duen larrua abere koipez igurtzitzen egin oi zuten. Ejiptoarrak beren osasuna arretaz zaitzen zuten eta Sizilia'ko Diodoro'ren ondoren onela esaten zuten: "Gizonak zurgatzen duen jatenik geiena gaiñezkakoa da; guk jaten dugunaren irutatik bat aski da gorputzak mantentzeko. Beste irutik biak medikuak loditu-azteko dira." Herodoto'k bere baitatik onela diño: "Libiatarren ondoren, erririk sanuena ejiptoarrena da."

Ejiptoarrak beatzaz baliatzen ziren jateko, gero Shakespeare'n aldikoak bezalaxe.

Errege odolaren garbitasuna gordetzeko, usarioa zen pharaona bere arrebarekin ezkontzea. Oitura onek, ordea, kontrako ondorena ekartzen zuen, baiñan Ejiptoarrak etziren, nunbait, asko kezkatzen ontaz. Bi eunki Jesu-Kristo geroztik, Arsinoe'ko urian ospatutako ezkontzetatik iru-laurden aide-odolekuak izan ziren. Ejipto'n, "neba" ta

(100) Buru-ezur, cráneo.
(101) Gota.
(102) Giñoan, neurrian.
(103) Zapata.
(104) Tifus.

"arreba" itzak "maita-laguna" esan gura zuten orobat. Bere emazteaz gaiñera, pharaonak haren bat zuen; aundizki-alabak eta gudako espeak (105) osatzen zuten au.

Alabaiña, ejiptoarrik geienak monogamia zuten bizi-lege eta beren sendi-bizitza gurearen antzekoa zen. Ezkontz-austeak bakanak ziren eta emakumearen bizikera oraiñaldikoaren antz aundikoa zen. Iñun etzuen emakumeak, antziñako errietan, ejiptoar emakumeari legeak aitortzen zion eskubiderik. Grezia'n, emakumeak etzuten eskubiderik eta grezitar txangolariak Ejipto'ra joatean, arriturik gelditu ziren Ejiptoar emakumeai legeak opa zizkien eskubideaz. Sizilia'ko Diodoro'k (J. K. geroztiko lenengo eunkian) sumindu-xamarrik diño, eskualde ontan ezkontz-itunak (106), senarra beartzen duela bere emaztea obeitzera. Areago: emakumea zen gizona kortejatzen zuena eta ezkontza proposatzen ziona! Bestalde, ejiptoar emakume batzuek, bear-bearrezko gizalegerik etzuten aintzakotzat artzen; ots, bestela, eskutitz onen egilleak diñonari: "Ene lagun eder: nire guraria litzake zure emazte izatea eta alaber zure ogasunen jabe."

Odola beroa zuten Nil ibai-egietan; amar urtekin neskatxak ezkon adiñeko irizten zituzten eta ezkongai artu-emanak eukitzea gauza arrunta zen. Korteko emalizun batek, diño tradiziñoak, piramide bat ere egin ahal izan zuen bere irabazpide-bildumarekin.

Papirusetan idoro diren jardunetatik ideia bat egin genezake, Ejipto zaharrean maitaketa bizigiroa zernolako zen; nota-laburkizunak, galderantzunak eta eskutitzak dira auek.

Gurealdikoak bezalaxe, maiteminduak bakandu eziñekoak ziren eta gizonak onela idazten digu: "Ni egurastera joaten naizenean, bazter guzitara zuk laguntzen didazu nun-nai."

Baiñan, zertan pentsatzen zuen, orain millaka urte batzuk onela idazten zuen Ejiptoarrak? "Ni oeraturik nago, baiñan begiak ondo zabalik." Eztenaren zorrotzak minduta, xalantak (107) adierazten dio: "Beste batean, etorri gabe bertanbera gelditu ziñezke!"

Anna zeritzan batek, bere illobira urbilduko direnai, beragan ikasbide artzeko aolkatzen die: "Entzun: nik egindako gauza ederrak zuek ere egingo al-dituzute, ohorea zuen gain eror dadin." Eta emakume ez-ezagun batek bere maita-lagunaren iraun-ezaz du naigabe. "Eztut zure biotza geiago aztoratu (108) nai. Zertako?"

---

(105) Prisionero.

(106) Contrato matrimonial.

(107) Amante.

(108) Revolver, turbar.

Lau milla urteko poema zahar batek bizi onen izakera illaun (109) eta laburmiñari egiten dio aipamen.

"Iñor ez datorkigu beste aldetik beren zoria nolakoa den esatera... Goza biziaz. Ez utzi tristurari zure bizitzaz jabetzen. Orra! Iñork ez darama illobira bere ondasunik eta il diranetatik ez da iñor berrito etorri."

Buka dezagun: maitasun-poema batek betikotasun egarria darakus: "Zure abotsaren entzuteak arima aztoratzen dit. Nire bizi guztia zure ezpaiñen agindupetara makurturik dago. Zu ikustea naiago dut milla bider jatea edo edatea baiño."

"UARRAIN"EK EUSKERATUA.

Donostia'n, Ilbeltzak 13, 1959.

---

(109) Efímero.



DONIBANE'AK

(SAN JUAN'AK)

Izkuntzea, ekanduak, oiturak eta abar dira enderrien ezaugarririk urtenenak, eta oneikaz guztiz aberatsa da gure Euskalerri maitea.

Uri ta baserri bakotxak bere oitura bereziak ditu ta guk, euskaldunok, geure bizitzearen zati ditugu, belaunik-belaun geuganatutako oitura zaharrok.

Oitura asko errixka edo uri bakotxeko barik toki askotakoak, edo-ta Euskalerri guzti edo geientsukoak dira. Oneitariko da Donibane aurregun gabean etxondoetako baratz naiz zelaietan suak egiteko oiturea, be.

Sarri entzun izan dautsiet gure zaharreri, Donibane goizean eguzkiak dantzan egiten daula itsaso edo mendi ostetik urtekeran. Bizkai'ko baso-basoan jaio, azi ta bizia izan-arren, nik neuk ez dot iñoz ikusi olako ikuskixun gelgarririk, baiña gauza arrigarri bat nabaria bai ba-naz Donibane goizetan: ba-da, beti egon oi dira intzez, edo iruntzez, bustita gure baso, larre, mendi ta landetako bedarrak.

Doniane goizean, goiz iruntzetan ortozik ibilli ezkero urte atan arra bat azten ei dira neskato-mutikoak, eta pozarren joaten giñan, oiturea baiño ordu bi edo iru lenago ogea itxita, basorik-baso ta larrerik-larre, makilla bana eskuetan eta biotzak pozez, landetako lora mueta guztiakaz txorta ederrik egiñez.

San Juan-aldian orrillo betean egon oi da Izadia Euskalerri'ko baso, mendi ta zelaietan eta etxandera bakotxak, edo neskatxak, baso-lora, baratz-ari, galburu, arto-landare, berakatz, madari, arka-

karatz, mao, ta beste etxe-liliz egindako lora-moltzo eder, margotsu ta urrintsua eroan oi dabe Elizara, meza nagositan apaizak, abade jaunak, onetsi dagizan. Lora-txorta onetsi au ondo jagonda, gordeta, eukiten da, urte guztian, urrengo Donibane-aurregunerarte ta sasi-moltzo batean erre, orduan, illuntzean, su ta gar, neska-mutillak-eta kanta zahar au alaitasunez beterik abesten daben bitartean:

Doniane beizpera gabean,
abadeak asarretu zirian;
ez eben besterik egiten:
alkarreri muxturrak ausiten.
Gaur dala, biar dala, Doniane,
etzi San Juan biaramone.
San Juan dabil soloetan,
artoetan da garietan:
Artoak eta gariak, kaxan gorde.
Zapoak eta sorgiñak, sutan erre.
Ber-berton! Ber-berton!

Sugarrak apur bat makaldu daitezanean su-ganetik zear zapartaka asten dira neska-mutikoak, atso-agure ta umetxuak areri begira poz-eztitan dagozan bitartean, zantzo ta irrintziz, aitatu dodan abestia guztien arte abestuz.

Etxe-jaunak edo semeren batek, barriz, Donibane goizean, ogerikara, gosaldu baiño len, ortoz-ortozik joan basora ta lexar edo areitzadar edo landare dotorerik ekarri oi dau. Beretariko adar-zati bat gurutzez ezarri adaburuan lora, ortu-ari, igali-zugatzen orri, landare ta abarrez, eta etxaurreko ate-ondoan jarten dau. Elorri-adarra bere ipiñi oi da, ate-ertzetan, yusturi ta oiñaztuak uxateko. Doniane'tako egikixun oneik aintxiñako euskaldunek Izadiarentzat eben oneraspen edo jaierea ulertarazoten dauskula nik uste.

Euskalerri'an, kristiñautasuna zabaldu baiño len, gure asabak, antza, Izadi-jaia egin eukien mendi ta basoak mardulen izaten ditugun aldi olerkoi onetan. Eta oitura tolesbageok txarrerakorik ez daben ezkero, jai oneri (Donibane'ri) ezarriko eutsiezan, bear ba-da, uda betearen jaiok, oitura onesgarriok onarturik.

Iñungo iñun olerkirik ba-da, benetan olerkoiak Donibaneak Euskalerri'an. Beredin lora muetaz apainduta larre ta basoetako bedartza mardulak. Egunak garden, garitza el-ariñetan zibuka. Txoriak txorrotxiolari goiz-illuntzetan, udabarrian asi dituen kumen poza basoeri azalten. Erreka-munak mariorratz urdin, muxker, gorrixka ta beste kolore bizi ta dotorez alai. Sorginderak zidor-ertzetako lilirik-lili laztanka, jaieguneko jantzita... Pozkida, alaitasuna, eresia, abestia ta bizi izateko poza alde guztietan.

Izadia jantzi barri apaiñenaz jantzita egun luzeenen zelai gardenean, Egille Gurenari gorazarrezko aharaia (inoa), eresi leun eta samurren laguntasunaz alaikiro abesten.

Euskalerri maite-kutuna!
Zure oiturak gogoratuaz
zapartari jarten yat barna.

AURRE-APRAIZ.

Caracas, 1961, Maiatzak 30.



EZ BIZI TA EZ IL

Itxaropen gabeko agureen biziak luzatzeko, sendagilleek oiezbezelako neurriak artu bear al dituzte? Gaxoa iltzera beartua dagon garaiean, oñazeak ala bizia, zer luzatu bear dun erabakitzea, sendagillearentzat gauza zallenetakoa da.

Oraingo sendagaieri eskerrak, il zorian dauden agureen bizia askotan luzatu liteke. Bañan galdetzen da:

"Egun gitxitan iraungo dun il zorian dagon agure baten bizi tanto nagi bat ikusten degulako, zuzena al da oñazez bizi eraztea?"

"Sendaeziña, itxaropenik gabe ikusita, oñazez bizirik eukitzeko, sendagilleak bere alegiñak noiz arte egin bear ditu?"

"Orrela egiteak sendiaren gogoan sortzen dun naigabea, ordain aldian erabakitzea zalla izaten zaion burulana, nola neurtu?"

"Bizia ala oñazea bakarrik, sendagilleak zer luzatzen du?"

"Naita iltzea, sendagilleen artean esaten dan "eriotz ona", askok ez dute onartzen, sendagintzak, elizak eta legeak debekatzen dute. Orain bestelakora goaz, eriotz neketsu, oñazetsu ta onik gabekora. Gaxoarentzat oñaze aundigoak bakarrik irabaziko ditugula guziok dakigula egun, aste ta urteetan naita luzatzen danetara." Ta sendagilleak alkarren antzeko arrigarrizko gertakizun batzuk azaldu zitun.

"Agure bat, gibeleko gaitzez, eriotz zorian dago. Arrixku ori sendagilleek kendu dute, bañan ezin kendu izango dioten ilko dun odol jario edo beste gaitzen bat sortu zaio."

"70 urteko beste bat, zabaltzen aguro dijoakion minbiziakin dago, ta pulmoni bat etorri zaio. Penizilinak gaitz au sendatu dio bañan, oñaze aunditan, ilko dun bere minbiziakin gelditzen da."

"Amonatxo bat, 80 urtekoa, sendaeziñeko gaitz batzuekin gaxoetxe batean aldi luzean egonda, zentzunik gabe dagola, biotz eraso batek artu du ta laixterka beste sendaetxe obe batera aldatu dute. Garrantzizko azterketa guziak ardura aundienaz egin dituzte. Ordu

gutxi barru, il egiten da... ta sendiak kontu ikaragarri bat ordaindu bear du."

"Aspaldikoa da gauza au —sendagilleak esan zun—, bañan azkeneko urte auetan zorrotzago biurtu da. Oraingo sendagaiak geienetan bizia luzatzen dute ta askoz zar geiago bizi dira. Aspaldiko gaitz edo sendaeziñeri gogor egiteko ta urteetan aurrera dijoazen berezkoa dan aultzeari laguntzeko nola egin ugariago dauzkagulako, len baño agure geiago kementsu, ekintzan, azkeneko beren urteetan zoriontsu ikusten ditugu. Au da ikusten degunaren alde ona.

"Bañan ba da beste bat. Gaur, ustebidez bakarrik bizien artean bizi diran agure asko ikusten ditugu. Gaxoetxeko oetan igitu eziñik, arnas gutxikin, ia ilda, bizirik eukitzeko zulodunez sudurretik jateko zerbait eman bear zaiela; berez ezin dutelako mazkuria tresnaz ustu bear zaiela. Ba ditugu sendagaiak: dardaraz dagon biotza pizteko, zentzumena berberetzeko, oñazeak arintzeko; bañan il bearra bizitzaren zati bat da, ta amai gabe ezin geldi erazi genezake. Il ordua, burruka, oñazez beteta geldi geldi luzatu bakarrik egin genezake. Eriotzaldia luzatu bakarrik egin genezake. Eriotzera irixteko bide berri bat agertu besterik ez degula egin norbaitek esan du: oraingo sendagaien eriotzera eramate geldiroa."

Gai ontaz itz asko egin da. Guziak iritzi batean daude, gaia garrantzikoa dala diote.

"Sendagilleek erru pitin bat ba degu —batek esan zun—, Batzuek, beren ardura aundiarengatik, biotz aulak azkeneko takatekoa eman arteraño, beren alegiñak egiten dituzte. Illerazteko sendagaiak ematea Hipokrates'ek debekatu zula guziok dakigu, bañan dirudienez itxaropenik gabe il zorian dagonari ematea ere debekatu zula aztu egin zaigu."

Gaxoa sendatu lezakenik ez dagonean sendagille batzuen alegin geiegiak gutxigotzeko neurriak artu bear litezkela Walter Alvarez sendagilleak uste du: "35 urtez sendagille gazteeri eskatu diet oituraz bakarrik, oldoztu gabe ez jarduteko; beren buruari galdetzeko: Gaxoari orain eman nai nioken sendagaia onurakor izan ote lekioke?"

Alvarez sendagillea oroitu zan Worcester sendagilleak nola esan zion, bere sendagintzako lenbiziko urtean sekulako alegiñak egin zitula agure baten bizia luzatzeko. "Ta lortu zunean zorigaiztoko besterik ez zuela egin antz eman zion eta orrelakorik berriz ez egitea erabaki zun."

Worcester sendagilleak idazti batean esaten du: "Sendaezin baten aurrean, eriotza nai ta naiezkoa danean, batzuek uste dute beartuak daudela azken arte alegin aundienak egitera. Nere iritzia emanaz obeto

oldozteko esaten diet. Azkenetan dagonari pakean iltzen utzi bear litzaioke."

Gazte baten bizia luzatu nai izatea beste gauza da.

"Sendagille guziak dakite aurtxoen gaitz garrantziko geienetan beren egitekoa azkeneraño alegiñak egitea dala —Alvarez sendagilleak esan zun—. Arrixku aundian dauden gazteak ba liteke il ez nai izatea bizirik jarrai izan lezaken zerbait ikusten ba da. Senar emazte gazte alkar txit maitatuak, batak bestea utzi bearko dula ikustean atsekabe aundia artzen da. Zar baten azkeneko egunak gañera datozela ikustean, geldi geldi datorren bere eriotzak ez du ematen ainbesterañokoa. Urte askotan oñazez daudenak, laixter joan bearra arintasunez artzen dute. Batzuek galdetzen dute: noiz arte itxo egin bear det?"

Edward Rynearson sendagilleak bere lan lagunei agerpen oso egoki bat azaldu zien, esanaz: "Minbizi sendaezin batekin il zorian dagon baten oeburuan zaudetela uste izan zazute. Gaxo orrekin sendabide guziak egin dira. Jakintzak erakutsi dizkigun ekintza arrigarrienak egin arren, oraindik il zorian dago ta oñazez. Eriotza ezin sendatu da, ta ez dago beste egiterik."

"Nere ustez", Rynearson sendagilleak jarrai zun, "orrela gaxo dauden asko, noiz arte jakin gabe urdail, zain, edo mazkuri tuboak sartuta bizirik eukitzen dira. Egitan negargarria da".

Uste izan zagun zaintzen dun sendagillea beste sendagille batzuekin iritzi eske dabillela, ta artu litezken neurri guziak gaxoari oñazea ta sendiari naigabea luzatzeko bakarrik izango litezkela erabakitzen dute.

"Orduan, gaxoaren aideeri zabal zabal aitortu bear zaie", Rynearson sendagilleak esaten du, ta gañera: "Orrelako egoera negargarrian, oñazea oñazearen atzetik beste itxaropenik ez dagonean, jarrai nai izan lezateken gutxi ikusi izan ditut. Geientan, gaxoak berak bere egoeraren ezaguera zuzena artu du ta, oñazeak arintzeko, bere zorigaitza ez luzatzeko geiago, eskatzen du."

Ta orduan, zeñek esaten du neurri gabeko alegin aundi oriek egin bear dirala?

Agian Elizak?

"Dakidanez", Rynearson sendagilleak esan zun, "ez gure Eliza'ren eta ez bestelakoaren izenean, iñork ez du itz egin esanaz gorputz baten ekintza guziak gutxitzen eta iltzera dijoazenean, bizirik eukitzeko oiezbezelako neurri oriek sendagilleek artu bear dituztenik. Pio XII gn. Aita Done'ak, bere bizitzako azkeneko urtean esan zun, gaxoari geroak oñazea ta eriotza besterik ekarriko ez dionean, sendagilleak oiezbezelako neurriak erabiltzea elizak ez dula eskatzen".

Aurrerapen aundiak egin dira jakintzan radioterapia, arnas ema-

tea, altzairuzko birikak, zañez jaten ematea bezelakoak, "bañan ala ta guzi", Gerald Kelly, Josu'ren Lagundikoak, esan du, "esanda bezela gaxo dagonaren bizia luzatzeko alperrikakoak dirala dirudite, ta gaxoa ortara ipintzea beartua dagola esateko ez det ikusten zergatirik".

Sendagilleek, sendia, gaxoa bera ta gogo iritzi emallea alegiñak alperrik izango diran ustean daudenean, "sendagilleak al dun guzia oñazeak arintzeko egin bear du, ez bizia luzatzeko. Jainko'ak eraman nai dunean, sendagilleak oiezbezelako neurriak artuta bizia luzatu nai izateak pozik ezin ekarri lezake". Rynearson sendagilleak esan zun.

Berak ba zekien norbaitek galdetuko ziola: "Zure sendiko norbaiti ori gertatuko ba litzaio, zer egingo zenduke". Ta bere erantzuna izan zan: "Esandako zorigaitza nere sendiko urren bati gertatu zitzaion. Bere oean etxean euki gendun, eta eriotzak eraman zun arte, bere oñazeak arindu nai izan genizkion."

Rynearson sendagillearen esanak, entzule guziak ontzat artu zituzten. Gero batek galdetu zun: Ea bere esanetan minbiziakin zeudenak bakarrik, ala zartzaroko beste gaitz sendaezin batekin zeuderak ere sartzen al ziran.

"Gertatzen danak sendabiderik ez ba du, guzia egin ba da ta alperrik izan ba da, ez degu ikusten ezberdiñik", erantzun zun. "Bañan zabal zabal aguro itz egin bear da, ta ez sendagilleen artean bakarrik, baita ere inguruan daudenekin. Iltzea ez dala naita ezta ere errukiz egiten, baizik erabat bestera, ulertu eraztea lortzen ba da, ba liteke iritzi batean guziak ipintzea."

"Obe izango da ori ta aguro gertatzea", esan zun beste sendagille batek. "Egunetik egunera gauza au zorrotzago egiten ari da. Nere bizi guzia zarrak zaintzeko izan da. Osasuntsu, ekintzan eta kementsu euki nai ditut; bañan beren ordua iritxi zaienean, beren oñazeak arintzeko alegiñak egiten ditut ez zorigaitzezko bizi bat luzatzeko."

Ta jarrai zuen: "Rynearson'i guziok eskerrak eman bear dizkiogu katolikoen egoera erabaki dulako. Gutxik, oso gutxik, sinismendun artean ere, ulertzen dute. Pío XII gna. ez zan deun bakarrik, baita ere gizon zentzudun bat. 1957'gnean ontaz esan zuna aitatzea ona izango da:

"Naita iltzea ez da zillegi, debekatua dago; bañan gaxoaren baimenarekin, oñazeak arintzeko, eriotza agurogotzen ba dute ere loeraztekoak neurriz eman litezke. Au egitea ez da eriotza ekartzea, bera ezin urrundu da, ta laixterragotzeko artzen diran neurriak ba dute beren zergatia."

MUXIKA'TAR KINDIN.

Buenos Aires, 1961 go. Garagar rilla.
Selecciones'tik artua.

Frantziako minoritate kulturen alde

Duela amar urte Frantzian, Deixonne legeak, euskal, bretoi, katalan, occitanu kulturei leku bat egin zuen; ots eskoletan erriko Edestia, Geografia ta izkuntza erakusteko ordu bete et'erdi uzten zen. Amalau urtetan igaroten den *certificat* delakoaren oral'ean izkuntza haietako ikerketa bat egiten ahal zen; alaber Bachilleratuan oral-ikerketa bat egiten aal zen, bigarren izkuntza gisa. Geroztik zubi azpitan ur asko ixuri da eta lege horrez minoritateak oso gaizki baliatu. Lenen oztopo ederrena maisuen aldetik etorri da eta Euskal Erri guzian M. de Jaureguiberry anderea, Euskalzaindikoa, bakarra izan da euskeraren erakusle; gainera —bigarren oztopo— libururik ez da egin. Hor Euskalzaleen Biltzarra lokartua ez da goraipatzeko. Duela bi urte gure zabarkeriaz konturatzeko lege txar horren kontrako bat baizik ez zen bear; eta euskera ta besteak bachilleratutik kendu nai izan dizkigunean esnatu gira. FRAMM (Comité catholique pour la fraternité d'action des minorités métropolitaines) lenen batasuna gure kulturen alde katolikuen artean lan egiten ari da. MLCR (Mouvement laïque pour les cultures régionales) ezkertiarra aldiz. Marly'n Parise ondoan 1959'ko abenduan Ibarrondo jauna euskeraren alde mintzatu zen eta 1960'ko abenduan Jon Mirande Euskal literaturaz. Azken batasun honen euskaldun buruzagia S. Narbaitz jauna da.

Euskal Errian beinepein, bakoitzak bere alderdietan bildu jendekin biltzarre bat montatu dute, danek IKAS batasunean parte dute, naiz eskola laiku, naiz apaiz-eskolatakoak. IKAS Euskal Erriko eskoletarako liburuak eta diskuak egiten asi da. Holako batasunak

gure aurretik baziren occitanuen artean Conselh d'Estudis de l'IEO, bretoien artean AR FALZ; haietan etsenplu artuta egin da IKAS.

Baionako Musée Basque delakoan IKAS'ek bi euskerazko kurtsu iriki ditu; bata Aranburu jaunaren karguz, bestea Dagorret, EGAN'eko idazlearen, karguz. Astelen, asteazken ta ostiralez jende andientzat eta ostegunez aurrentzat; asteko ogeitamar bat jende bildu omen dituzte. Euzkerazko diskuak egiten asiak dire ta abio ona da. Baina lazteko lana bada egiteko Euskal Erriko maisuak prestatzeko ta gureganatzeko; erriko-etxeak, udalak interesatzeko; zeren Donapaleu ondoan bezala erri euskaldunetan ere maisuak kontra dire ta erriak euskal disku edo libururik ez erosi nai. Bordele-n Goyenetche jaunak lan ederrik egiten du: Euskal Kulturazko Klub bat egin du; Klub hartako mintzaldi batzu emanak izan dire irrati-bidez, Radio Bordeaux'en igande goizez entzun dire. Pariseko Euskalzalen Biltzarrak, erderaz euskeraren alde lan egiten du, baina euskal-kulturaren aipamenik ere ez dute egiten, emen ere baserritarismua, arrixku gabeko euskaldungoa maite baita.

Parisen. Otsailaren, 22 a.

D. Peillen.



naas - maas

ZERBITZARI hil da

Joan den maiatzean Gerezieta-n (Laphurdi) hil da, bere hartako erretore izandako Joanes Elissalde jauna, *Zerbitzari* izengoitiarekin aunitz geiago ezaguna. Gure adiskide zena Euskaltzaindiko egiten zen 1930 urtetik hunarat, eta idazlari bezala euskalzale handia agertu da beti eta eskuara ederra, aberatsa eta errezaren jabe.

Zenbat artikulo eta liburuxka ez ote ditu bururatu bere 78 urteetako bizitza luzean? Gaitz da jakitea. Aspaldiko *Eskualduna* astekarian, *Herria*-n eta *Gure Herria*-n, eta beste euskal paper aunitzetan, ameka irakurgai ager arazi ditu. Neurtizlari erreza ere zen, eta zenbait bertsu gelditu dire askoren buruetan, hala nola: ...*bizi dadin eskuara / orai eta gero —berma gaiten hortara / eskualdunak oro—*, delako hura.

Azkain-en jaioa 1883 urtean, Uztaritzen apez lagun eta Liginagan erretor zenbeit urteetan egon eta, Mendiondo-ra igorri zuten erretor. Orduezkeroz hemen bizitu da, bere nausigoa erakusten, denen adiskide alabainan, baiño halako dembora iraganetako larderia idorño aire bat erakusten aldika.

Euskalzale beroa zen eta bai pilotaria ere. Bera eta Oxobi (Otsobi) izan dire 30 urte horietan, iparraldeko gure anaien arteko euskal eragille eta sustatzaile goren, sutsuen eta jarraikienak. *Eskualzaleen-Biltzarreko* idazlari-segretario gisa, Zerbitzari-n predikuak famatuak gelditu dire urteko batzarretan. Eta gero *HERRIA*-n irakurtzekoak ziren, aur sarituen buruzko haren artikulo luzeak, errika ematen euskal-etsaminen zeekeriak, eta hiri bakotxeko historio eta kontu. *Gu-*

tienik 40 edo 50 herri pasatzen zituen bahetik, aldiz bitxi eta aldiz sakon aski, eskuara gaizoa putzutik atera naiez.

Bein gure etxean, Iruñean, pasatu zituen egun batzu, eta oroit naiz bere solas bitxietaz eta bere jite biziaz. Bestazalea zen biziki eta gure adiskide gaizoak bazakien bai mezperak laburtzen euskal besta edo pilota partida baten bixtan. Azken dembora huntan urbilsko nabaitzen bizitzaren epea, adiskideei ezin zuen bere pena estal, etzuen etsitzen.

Gizon ona errotik, bihotz handikoa, apez zuzena beti. LARREKO, MANEZAUNDI eta halako batzuk bezala, nekazari zaarren gandik zuen ikasi eta aberastu bere euskara garbia, eta Akademia obeagorik etzaukan. Gerezietako bere hil-mezan, txoriak multxoka bildu omen ziren kantari eliz-ingurura, Labeguerie sendakinak kondatu zidanez. Euskalherriak seme kartsu bat galdu du eta uzten duen ziloa ezta aise beteko. Bere arreba, aaide eta urbilekoeri gure doluminik bizienak.

* * *

NAFARROAN

LERGA-ko hil-arria.—Lerga-ko ondoan, Eslaba eta Aibarr-eko eskualdean, Erroma aldiko arri landu bat arkitu dute joan den abendoan. Metro bat eta 25 cm. gora da eta 70 cm. zabal, izkiribuekin, eta gaiñeko partean zaldidun baten eta bi presunen itxurak. Izkiribuak dio; VM- ME- SA- HARFI / NAR- HVN- GE- SI-ABI / SVN-HA RI-FI- LIO / ANN. XXV. T.P.S.S. /

Euskal izen zenbeit badela hor diote ikasiek, VME eta SAHAR bereziki, gaiñerakoa latinez; hala balitz kausitze handia litake Luchaire-ek aurkitu Akitaniako euskal izenen parekoa, bainan Lergako izenak eztaude batere garbi. Latinista jakintsun bateri da xilatzea, VM- ME- SA- etc., silabak laburpenak diren ala ez.

Gauza bat da segura, lurralde hori dena, XVIII garren mende erdiraiño gutienik eskualduna izan dela; Erromanoen demboran berdin ote? Baietz iduri luke.

* * *

GURIDI Iésus, hil

Euskalherriko musikalari haundi hau Madrilen hil da aurten supituki, 75 urteetan. Gasteiz-Bitorixan jaioa 1886 urtean, bere aitasoetan ba omen zuen Ledesma musikalari entzuna. Bere ikaskintzak Madrilen, Parisen eta Bruselas-en eginak zituen eta Conserbatorioko

buruzagia zen Madrilen, hil arteo. Guztiz atxikia gure euskal kanta ederreri, horien iturburuan landu ditu bere obra geienak.

Teatrorako operak eta zarzuelak bururatu zituen: *Mirentxu, Amaya, El Caserio, Mandolinata,* besteen artean, eta orkestarako *Sinfonia pirenaica, Leyenda vasca, Una aventura de don Quijote, Estampas vascas,* eta oroz gaiñetik *Diez melodías vascas,* mugaz haraindian ezaguna ere. Besteetan baiño gorago igaten da azken hunen orkestatzean, euskal eresi eta soiñu garbienetan mamitua, guneka Haendel eta Dukas oroit arazten diguna.

Gizon ona gustiz, urbil erreza eta jendekina, gaztetik asi zen euskal kanta zaarrak harmonizatzen; orduan ere, berri guti jakina, *Santimamiñe* lezetako beialako pinturak (rupestres) Guridik kausitu zituen, bere arkeologia-rako ixuriari segituz. Uts haundia uzten du arabar ospetsuak eta euskalseme guztiek deitoratzen dute galtze hitsa, musikazale direnek bezala.

* * *

Michelena jaunaren gorazarrea

Naiz Euskaltzaindikoen artean aspaldi egon gure lankideak joan den ilbeltzan Errenderi bere hirian egin zuen, Akademiara sar-predikua. Euskaltzainen, agintarien eta aditzaleen aitzinean irakurri zuen bere lan sakona, "*Euskal iztegi-gilleak*" gaia hartuz; A. Villasante-n gain egonik erantzupena. Gipuzkoako gobernaria ere han zagon, jendetasun yestua erakutsiz Del Moral jaunak, euskalzaleei.

Errenderiko hiriak herri-jai batzu antolatu zituen, eta bai oturuntza handi bat ere, *Panier Fleury* jantokian. Kampotik jende aunitz zen, bainan bereziki hiriko bere lagunek, multzo handian, ukatzen zuten erdal errefrau zaarra; *nehor eztela bere herrian profeta.* Bazkari azkenean, Basarrik prosa rimada gisan, nekez berriz asmatuko dituen iduripen eta gogoeta minbera batzu atera zituen kolkotik; hala zioten entzuleek; norbaiten begietan urbil zagon nigarra.

* * *

LIZARDI zenaren omenez

Joan den maiatzaren 28 garrenean ospatu zuten Tolosako Lizardi taldekoek J. M. Agirre olerkari handiaren oroitzapena, eta Euskaltzaindiaren laguntzaz, olerki sariketaren erabakia. Iparraguirre Teatroan eman ziren sariak; leena Orixe ezagunaren poema bati, bigarre-

na Aranalde apez jaunari, eta irugarrenari Dorronsoro Lukas-eri, apeza hau ere.

Mirentxo Moraiz andereñoak irakurri zituen bi olerki; eta jai guztiaren antolazalle izana beste aldetik.

Epaikariek zuzen jokatu nai izan dutela olerki sariak emateau eztugu dudarik, bainan olerki horieri itzalik bota gabe, iturri onetik dakigu sariketa hortara, besten artean, bi olerki aipagarri ere presentatu direla, bata *Erkiagarena* eta bestea *Aresti* jaunarena. Besteak bezala, hauek ere argitara ditzaten itxadoten dugu.

Goizeko meza emaillea A. Villasante izan zen. Oturuntza ederki zerbizatua tolosar andereñoek, eta maiburuan A. Olano apezpikua. Basarrik bota zituen bertso batzu bazkari azkenean.

Zezen plazara, atsaldean dantzari talde multxo bat etorri zen Eskualherriko lau kantoinetatik; geien gustatu zena Iruñekoa omen; besteek ez bezala, kordeona soiñu ederrakin, aterazuzten plazara nafarrek, Luzaideko *jantza-jauzi* xarmantak; bainan, gauza jakina, astiroago eta gustagarriago jauzi horiek.

* * *

Bertsularien saiaketak

Nafar Aldundegiko *Euskararen aldeko* saillak aurten bi bertsulari saio antolatu ditu, Betelun eta Iruritan. Betelun bildu ziren Araiz eta Larraun ibarretako bertsulari gaiak, txapeldun atereaz Martin Oreja, "*Txetxu*"; bigarren eta irugarren gelditu ziren Múgica Uhitziarra eta Iriarte Arribekoa.

Irurita Baztango herri ederrean bildu ziren Bestaberri egunarekin 8 gazte; garaile atera zen Arozamena lesakarra, Madariaga arantzatarrak eta Perurena Arizkungoak segitzen ziotela. Arozamena gazteak badu sasoi eta bai eskola ere; uste dugu bidea eginen duen. Gero ikusi gintuen garzaindar mutiko lerdenak *mutil-dantza* ezin ederrago batean trinketean. Afaltzean kantari xarmantak aditu gintuen; herriko alkate Iturralde jaunak zinez eskuzarta bat merezi du.

Irugarren saiaketa prestatzen ari dute Leitzan, irailleko 4-garren iganderako; ager ditazke, herri hortako, Areso, Arano, Goizueta, bi Basaburuak, Ituren, Zubieta eta Elgorriaga-ko bertsulari gaiak.

Horiek denak eta Bizkaikoak *Euskaltzaindiak* antolatuak dira; *Urkiolan* ospatu zen saiaketa bat, eta *Mungian* eta *Markiñan* ere; azken herri huntan eta *Ondarroan,* Ayuntamentuak lagun, Euskaltzaindiak prestatu gogo ditu aurren euskal etsaminak, sari askorekin.

Idaho eskualdean (U.S.A.) 62 urteetan hil da ospe haundiko idazlari hau. Nobel saria irabazi zuenean esan zuen, sari horretarako Barojak zuela merezimendu geiago; euskal idazlariaren tankera motxa eta zorrotza maite zuen, eta halatsu idatzi du berak ere. Barojiano bat zen bera, bainan Berako nobelegilleak ez bezala, Hemingway-k bete betean bizi ditu bere nobelak eta asmakizunak.

Odolezko gertakari hitsak idaztea maite zuen eta arriskuen eta bortizkerien artean bizitzea ere. Espainia laket zitzaion, eta zezenketazale fierra bezala toreroen artean maiz zabillan. Gizon aidorra zen, osagarri azkarrekoa, edari bortitzenen zurrutari gaitza.

Mauka-ats eta papoa agerian zabillan, beti kurri emendik harat, guduetako eta bestelako naasturi haundienetara prest; ihizi basa-en eta pizti bildurgarrien ihiztari ausarta. Azkenean bere burua hil du dohakabeak bere osasun gogorraren suntsimendua ezin jasanez.

Brunete-n egon zelarik gerla korresponsala bezala, 40 milla pezeta eskuratzen omen zituen artikulo bakotx; orduan izkiriatu zuen *Ezkilak norendako soiñatzen*. Beste irakurgai aunitzen artean, *The killers* (Hilzaleak) eta *Afrikako egimendi pherdeak*, dira aipagarrienak; azken hau bidaia luzeko azalpen ederretako liburua. *The old man and the sea* (Agurea eta itsasoa), denek aditu bederen egin dute dudarik gabe.

Eskualdunak amintto bat ezagutu ditu Itzea-ko nobelegillearen bidez, eta Iruñeko sanferminak etzituen uts egiten; bere nobela *(La Fiesta)* hortaz mintzo da, eta hiriko karrika zaarretako ardandegi zuloetan adiskide bat baiño geiago utzi ditu.

* * *

Bainako Musée Basque-ko buruzagi berria

Baiona-ko Museorako zuzendari berri bat izendatu dute, Ithurriague zenaren toki utsa betetzeko. Tira bira batzu ibili ondoren, eskualdun bateri kargua eman diotela laket zaiku esatea; *Joanes Haritschelhar* jauna, orai arteo bederik *Agen*-eko Lizeoan irakasle denari. Euskera-laria da eta hispanista ere, eta uste dugu eta igurikatzen gure adiskidearen izendapen hau, eskualdungoaren onerako izanen dela. Gure goresmen bizienak onart ditzagula.

* * *

Nobela eta Teatro-gaien norgeiagoa

Eleberri eta Teatrorako irakurgaien Euskaltzaindi-ko txapelgoak arrakesta haundia erdietsi du; 15 baiño geiago obrak aurkeztu dira, eta Euskaltzaindiak izendatu epaikariek badute buruauste, oberenak autatzen bi sail horietan. Sail bakoitzarako Bizkaiko Ahorro Kaxeak eman ditu 8 mila pezetetako sari bana. Lanak igortzeko epea bukatu da eta erabakiak urriaren azkenerako harturik izan behar dira.

* * *

Eskualzaleen biltzarreko bilkura

Eskualzaleen biltzarrak bere urteko jaia Arrosa herrixkan (Bidarray eta Baigorri arteko bide erditsuan), egin arazten du, buruilairailleko 4-ean, astelenarekin. Baionako apezpikua ere ba doaie, eta Gouyon jaun agurgarriak prediku eta dena euskaraz egin nai omen du. Sortzez erdalduna izanki eta kanpotarra gaiñera, ikasi du gure mintzaira, eta huntan esaten omen ditu otoitzak publikoan ere. Ikasbide ederra gu guztiendako.

APAT-ECHABARNE.

Aldizkari hau jada moldiztegian prest, Ormaechea Mikolas idazlariaren hil berri samina etortzen zaigu. Euskalzale guztiek deitoratzen dugu galtzapen aundi hau. Orain hemen geiago ezin ezarriz, gure ORIXE ospe aundikoari dagokion berria datorren numeroan emanen.

A-E.



Gipuzkoa'ko moko-fiñen Elkartea asi da lanean. Ta berak antolatuko ditu noski Donostia'ko aurtengo euskal-asteko jan-edan-sariketak.

Itzalditxo batzuek ere eratzeko asmoa badu laister Donostia'n bertan. Lenengoa, ziur asko, José Pla idazle ta *periodista* ospetsuaren gain izango da.

* * *

Donostia'ko aurtengo jan-edan-sariketak aitatu ditugun ezkero, esan genezakeala uste degu, sariketa oietako baten gaia, txipiroi-prestaera izango dala.

Orobat, ziur asko antolatuko degu noski, igaz bezalaxe, sagardo-sariketa bat ere. Ta ikusiko degu nork bialtzen digun Guipuzkoa'ko aurtengo sagardorik *le plus gouleyant*...

* * *

Joan dan Uzta'ren 10'ean, Donostia'ko *Gaztelupe* Elkarteko jangelan, ta beste donostiar batzuekin batera, Biarritze'ko *L'Operne* deritzaion *Confrérie*'ko zaldun autatua izandu zan errenkada auen egille apala.

Jai-aldi atsegin-polita egin genduan gure *intronisazioa,* frantzesak esaten duten bezala, ospatzeko: bazkari bat, jakiña; itzalditxoak, kantu alaiak, zin *serioak*...

Ona emen ondoren bazkariaren jaki-errenkada.

Janariak: arrai-zukua *Donostiarra,* legatza *Koxkera,* Idiazabal'go gazta ta Bergara'ko bizkotxa sakatuak. Edariak: Getari'ko txakoliña, Gaztelupe-sagardoa, Gaztelupe-ardo beltza ta likurak.

* * *

Oraintsu irakurri degu, lenengoz, *Arte español de la comida* deritzaion Enrique Sordo idazle *catalan* ezagunaren liburua.

Lengo urtean argitaratu zan, ta idazlan atsegingarri-samarra da. Euskaldunon jan-edan-zaletasunari buruz dio: "Si en algún lugar de la geografía hispana puede ser situado actualmente el viejo y burlesco mito de Tragonia, este lugar ha de ser el país vasco".

* * *

Orain aste bi, Madrid'eko aldizkari batek Carmen Nonell idazlearen *Itinerario Gastronómico Español* izenburuko lantxo polit bat argitara eman du.

Onatx bertan Euskalerri'ko sukalkintzaz ezartzen diran lerrotxo batzuek: "Cocina sencilla, pero fuerte, como sus gentes, como sus costumbres... Vasconia, tierra marinera, de gentes recias y primitivas, debe la mayor parte de sus platos a los marinos que acomodaron el producto de su trabajo a sus necesidades".

* * *

Sukalkintza portitzaz zertxobait irakurtzen edo entzuten degun bakoitzean, alako Hita'ko Artzipreste Juan Ruiz aren bertso bat etortzen zaigu beti ta beti gogora: *Fígados de cabrones con ruybarbo almorçaba.*

* * *

Paris'en argitaratu da orain illabete batzuek "Guide Gastronomique de l'Auto-journal 1961". Frantzia'ko milla jatetxeren berriak dakarzki ta txit ernagarria da. Beraren egilleen iritzian, Frantzia guziko bi jatetxerik onenak Paris'eko *Laperous* eta Vienne'ko *La Pyramide (Point)* omen dira.

* * *

Beste Gida bat ere agertu da oraintsu. Au Inglaterra'ko jatetxena da. *Egon Ronay recommends* deritza, ta orobat, bai barrunbez bai azalez, ongi tajutua dago.

* * *

Norbaitek galdegin digu, ea lengo zenbakian aitatzen genituen Mexiko'ko janari batzuek —*mole de guajolote*, adibidez— zer diran: egiazkoak ala txantxetakoak...

Egiazkoak, motel, egiazkoak! Esate baterako, *mole* itzak euskeraz gutxi-gora-beera egosaria esan nai dik, eta *guajolote*'k berriz indiolloa.

Ona emen orain eun-bat urte inguru Mexiko'n bertan jan-edangaiaz argitaratutako liburutxo batean ezartzen dan *guajalote en mole poblano*'ren *errezeta:*

A un guajolote, cuarenta chiles pastillas tostados y remojados, cuatro piezas de pan y unas tortillas tostadas en manteca, dos cuarterones de chocolate, una poca de semilla de chile tostada; de todas especias, poquitas; y ajonjolí, también tostado; todo esto bien molido se deslíe en agua y se fríe en manteca; se acaba de sazonar con un polvo de canela, tantito vinagre y un terroncito de azúcar. Estando sazonado, se le agrega el guajolote, hecho cuartos".

* * *

Datorren zenbakirako *cocktail*'ari buruz idaztitxo bat gertutzeko asmoa degu.

Idaztixo ortan azalduko degu argi ta garbi guk edari (?) orrezaz degun iritzia.

Gaurkoz naikoa izango degu, bein batez Castilla'ko ardantegi batean irakurri genituan bertso batzuek ezartzea: "Todo el que sabe beber — sabe también cuando menos — que mezclar dos vinos buenos — es echarlos a perder".

* * *

Iruñea'n laister izango dute jatetxe berri bat. Ta ez nolanaikoa. Aiuntamentua'k idikitzen du.

Non? Katedralaren atzeko arresi zarren gañean. Zumalakarregi'ren atearen inguruan.

Lengo egun batez eman genion begiralditxo bat, eta bai etxea ta bai beraren atari ta ingurumaiak, txit eder eta dotoreak iruditu zitzaizkigun.

Gure ustez, eta oso oker ezpagaude, etxea lengo Redin'go gaztelutxoa bera da, baña, jakiña, eraberritua.

Izen berria *Zaldi Zuria* izango omen du, ta bertan Naparroa'ko jan-edan jator-bereziak baizik ez dira serbitzatuko.

Gure zorion beroenak Urmeneta Alkate jaunari.

* * *

Madrid'a erregebidez goazela, ezker-aldetik eta amabost-bat kilometro bertara iritxi baño lenago, ikusiko dezute, baldin begiak ongi idikiak badaramazkizute, iragarki aundi bat. Iragarkiak dio: *Ongi etorri.*

Badira onezkero gutxienez urte bi, Alcobendas izeneko toki artan oriotar jator eta prestu batzuek *gasolina* saltzen dutela. Orain illabete batzuek, berriz, *Bar* polit bat idiki zuten. Ta, entzun degunez, laister jatetxe bat ere jartzeko asmoa omen dute.

Ezagutzen ditugu aspaldian oriotar oriek, eta ziur gaude, baldin asmo eder ori betetzen badute, ta emen beren errian bezelaxe, ongi baño obeto emango dutela jaten. Ta ez da *propaganda*...

* * *

Lengo zenbakian aitatzen genduan *Mushrooms, Russia and History* liburuan ezartzen da, arrigarria dala Castilla'n *níscalo* ta Cataluña'n *revellón* deitzen zaion perretxikoak —*lactaria deliciosus*— Euskalerria'n izenik ez izatea.

Telesforo Aranzadi'k gai au, arin-samar bederik, ikutu zuan. Ta beraren iritzia zan, Euskalerria'n izen berezirik ez baldin badu, emen perretxikoa bera ere ezagutzen etzalako, zala. Gure lurretan ia orain arte piñudi gutxi baitzan, ta perretxiko au eskuarki piñudietan sortzen bait-da.

Dana dala, baliteke Iztueta'ren *zizgorri* —*zizgorri*, ta ez *zizori*, diogu— perretxiko au, *lactaria deliciosus*, izatea.

Gaur ez dago eztabaidarako biderik. Egungo egunean gure baserritar geienak *piñu-perretxiko* deitzen diote-ta perretxiko mota oni.

* * *

Orain dala denbora gutxi, Ramon Perez de Ayala'ri galdegin zioten, interviu batean, ea beraren jaki ta ardo gogokoenak zeintzuk ziran. Ta *Tigre Juan*'en egilleak erantzun zuan: edozein jaki —esate baterako, baita baratzuri-zopa ere—, ongi maneatua izan ezkero, ta ardoetan berriz, Frantzia'ko gorriak eta España'ko jereza.

Gabriel'i.—Txipiroiakin ze ardo mota edan bear dan? Zuria ala beltza? Galdera egokia...

Gauza jakiña da, arraiakin, magurioakin eta, erabat esateko, itxasgarau guziekin, ardorik onena zuria dala. Baña, ala ere, gure iritzia da, txipiroiekin, ta orobat bakallaoarekin, ardo beltza ta gorria ere ongi datozela. Batez ere, indar aundiko orietakoa ezpada. Esate baterako, Arabar Errioja'koa edo orrelakoa, ta ez naparra edo Aragoi'koa.

* * *

Lengo udaberrian, Aia'ko Iturriotz izeneko *Venta* ezagunean, lege zarreko bazkari koxkor bat egin genduan.

Amabost-bat bazkaldar giñan, eta guziok euskaldun garbiak eta jale on-samarrak. Onatx jaki-errenkada:

Xixa zuriak arraultz gorriekin, amorrai txiki prejituak, txalsasieski erreak, ollasko basatiak, auek ere erreak, eta mamia. Ta mota guzietako edariak.

Bazkalondoan bertsotan eta pelotan zerbait eginda gero, Andazarrate'n barrena itzuli giñan Donostia'ra.

Andazarrate'ra oñez —jakiña— jatxi giñan, ta zapelaitz aundieder bat, gure buruen gain biraka, laguntzalle genduala...

* * *

Garagarilla'ren azkeneko egunetan Maroilles'en (Frantzia, Nord) berealdiko jaialdiak egin dituzte bertako gaztaren sortzapenaren urtemuga —millagarrena— ospatzeko.

Oroikarri bat ere jaso dute erriko enparantza nagusian Maroilles izeneko gazta aditua —*réputé pour ses agressifs aromes et ses saveurs violentes,* Paris'eko egunkari batek dionez— goratzearren.

* * *

Ona emen jaki-prestaera berri bat. Zezen-gaiaz argitaratzen dan aldizkari batetik artzen degu. Egillea, Antonio del Amo, Madrid'eko Puerta de Hierro'ko sukaldaria da. Ta euskal-aldaera au Jose Maria Rekondo toreatzalleari eskeintzen diogu.

"*Zezen-isatsa babarrun zuriekin.*—Ipintzen dira kazuela batean tomate, azenario, baratzuri ta usanbelar batzuek, eta, urin berotan, *egiten* dira gutxi bat. Bereala ipintzen da zezen-isatsa ere kazuelan, ogiriñez erraustatu ta bira batzuek zartagian, urre kolore gorriantz illuna artu arte, emanda gero. Guzia geitzen da ardo zuri, cognac eta salda garbiarekin. Botatzen zaizka neurriz piper-auts eta gatza ere.

Ta su ezti batez gutxitu ta saltsa lodi-samar baten antzera gelditzen danean, iragotzen da —jakiña, zezen-isatsa aurrez bereizturik— *txino* tapitu batez.

Bitartean egosten dira beregain eltze batean babarrun zuriak eta, zertxobait txukaturik eta zezen-isats eta saltsarekin su-gañean kazuelan batu ondoren, ateratzen dira maiera."

* * *

Orain urte batzuek gure Joxe Txikia sendagille jakintsu ta jator batengana joan zan. Ta sendagilleak, mingaña, sabela ta birikak aztertu ondoren, esan zion:

—Ezin dezakezu arraultzik geiago jan.

—Bapo ziok!

—Arrai urdiñik ere ez.

—Sardiña bat ere ez?

—Ez. Ta gañera ezta ardorik edan ta tabakorik erre ere.

—Ederra dek kontua! Ta, miriku jauna, zer derizkiozu: *regimen* onekin urte askotan biziko al-naiz?

—A!, nik ez dakit, egia esan, urte askotan biziko zeran edo ez, baña bai, sendabide onekin, urteak txit luzeak irudituko zaizkizula...

* * *

Maite'ri.—Maia bedeinkatzeko euskerazko otoitz labur eta errexerrex bat nai zendukeala? Or dijoakizu bat.

"Jauna: bedeinka itzazu orain Zuri eskerrak artzera goazen janedanak eta gero egun batean bildu gaitzazu guziok zeruko maiean. Amen."

* * *

Frantzia'n jan-edan-gaiaz argitaratzen dan aldizkari batetik aldatzen ditugu bi errenkada auek: "Rien n'égale la joie de l'homme qui boit, si ce n'est la joie du vin d'être bu".

* * *

"Azpeitia'ko langille batek Cordoba'ko edo Jaen'ko aberats batek baño obeto ta geiago jaten du."—*Ortega y Gasset.*

* * *

"Ondo jan, gaizki jan, iru aldiz edan" (esaera zarra).

A. A.

ADABAKIAK

BESAMOTZ TREBEA.—Bein batean ipui beltzak bildu eta ekarri zizkigun onera Jon Mirande'k. Onako au eztakigu beltza dan, baiña badu nolanai ere alako humore-lurrin bat, oarkabez bedere. Orestes Llorens dalako batek 1953-an argitara zuen "El afán de las condecoraciones" deritzan lantxo batetik itzulia dago:

"Gure aldameneko Frantzia'n zaletasunik biziena agertzen dute domiña, zinta naiz gurutzeren bat bular-aldean etamateko eta erakusteko. Onelaxe adierazten digu onako zin-ziñetan gertaturikako gertari onek.

"Ba omen zebillen beiñola Napoleon Tuillerietan barrena eta ona nun topatzen duen soldadu zaar besamotz bat.

"—Nun galdu uen besoa? —galdatu omen zion maitekiro enperadoreak.

"—Austerlitz'en, jauna.

"—Ez uen kondekoraziorik irabazi?

"—Etziran nitaz oroitu, agi danean.

"—To nere gurutzea!

"Eta Napoleon'ek, bularrean zeramana arturik, eman zion esanaz:

"—Légion d'honneur-eko zaldun egiten aut.

"Soldadu arrituak erantzun omen zion totelka:

"—Beso bat galdu dedalako izendatu nau zaldun berrorek? Zer gertatuko zitzaidan biak galdu banitu?

"—Lejioko ofiziale egingo indudan.

"Ori entzun orduko, artu zuen soldadu zaarrak ezpata eta, zazt!, kolpe batez moztu zuen gelditzen zitzaion beso bakarra."

Emen gure galdera dator, gurea eta izkirimiri au astiro irakurri duenarena: adarra jo nai ote digu Llorens'ek ala berari jo ote diote adarra?

* * *

L. Mitxelenak bidali dizkigun bi oar oek, nonbait sartu bear eta, ementxe sartu ditugu.

EUSKAL-LITERATURA ETA... ADARRAK.—Beldur naiz oar onen gaia ez ote den gai irristakorregi orietakoa, Góngora'k esate baterako ezpaitzituen adarrak "con perdón de clérigos" baizik aipatzen. Dena den eta barka eske aurren-aurrenetik asten naizelarik, orretara bulkatu naute idazle trebe eta lankide maite dugun J. M. Satrustegi jaunaren itz batzuek. Onela baitzion 1619-an Tolosa'n agertu ziren euskerazko eta erderazko bertso batzuek direla-ta: "*Adarra* (cuerno), en sentido figurado, tal como aquí se usa, es completamente desconocido en lengua vasca y carece de sentido. Hay que recurrir a otras fuentes para su interpretación". "Esta palabra es la traducción servil de *cuerno* en la acepción de "comercio carnal ilícito", tan traído en el vocabulario jocoso de aquella época en España" (1).

Eztakit ongi gure izkuntzaren alde ala kaltez mintzatzera ote noan orain. Naiz alde naiz kaltean, ordea, esan bearrean arkitzen naiz orrelako adarrak, ezin-ukituzkoak izan arren zenbait gizasemeren burukopetak ziñetan eta benetan apaintzen dituzten edergarri oriek, eztirela iñolaz ere Satrustegi jaunak nai lukean bezain urriak eta bakanak XVI-XVII'garren mendeetako euskal-literaturan. Ain zuzen ere, agitz oker ezpanago, gizaseme batenak dira gure izkuntzan agertzen diren leenbiziko adarrak. Ikus Detxepare, E 6:

Gaoaz loric ecin daydit haren gogoan veharrez
Gogoan vehar handidicit bethe nuyen adarrez.

Onelaxe itzuli zituen R. Lafon jaunak: "La nuit, les soupçons que j'ai sur elle m'empêchent de dormir: je la soupçonne fort de me couvrir de cornes".

Goroxeago, argi eta garbi mintzatu bear badugu, badirudi biziro gogokoa zuela Oihenart'ek itz ori. Bere 137'garren atsotitzak, esaterako, onela dio: "*Emaztearen gaizes xikira sedina adarrequi ehorz sedin.* Refrau haur athera da Ilhartiz edo Epitafio hontaric. *Heben dago, ber'adar[r]equi, ezina, emastearen gaizes xikira sedina.* Celuy qui se fit chastrer par depit de sa femme, fut enterré auec les cornes. Ce Prouerbe est tiré de cet Epithaphe. Cy gist, auec ses cornes, le pauure corps sans ame, D'vn qui se fit chastrer, pour déplaire à sa femme".

(1) Ikus J. M.ª Satrústegui, "*La Celestina* en la literatura popular vasca", *Boletín de la Real Soc. Vasc. de Amigos del País* 16 (1960), 167 ss., eta geroago 17 (1961), 2'garren zenbakian. Bertso oriek eliz-gizon batzuek atera zituzten dirudienez, delako Olazabal tolosar bat, eta aren ingurukoak, larrutzeko.

Berorren Neurthitzetan ere agertzen da berriz gaia eta itza, 19'garren orrialdean:

Onarsun-trucu huts, alau' esconzea,
Esta hori esconze, bana da salzea;
Heren erosle senarrac
Ser mereci luque? adarrac.

Benazko eliz-gizon bekosko-illunek ondu dituzten ezkero geienbat euskal-liburuak arimen onerako, ezta miragarri adarren lekukotasunak ez maizegi agertzea. Alaz guztiz, biar edo etzi norbaitek bil lezakean adarren euskal-lorategirako, ona nola mintzarazten dituen Mikoleta Bilbao'ko eliz-gizonak Peru Xauna deritzan zalduna eta Alonso ezkutaria:

—Esta enjuta?
—Como vn cuerno.
—No os he dicho, que no me traygas essas comparaçiones?

—Esso fuera si V. M. fuesse persona sospechosa, que no se ha de mentar la soga en cassa del ahorcado.

—Sicu dago [alcandorea]?
—Adarra nola.
—Esteusut esan sedeguidisula [sic] ecarri orrelaco comparaçiñoyric?
—Ori lisate, valiz sure meçedeori, persona sospechacoa, serren esta aytatuco soquea, vrcatuen esean.

Eta beeraxeago, ezkutariaren aoz:

—Esta es vna de las tres cosas que Ganaza dezia, que el hombre buscava con gran cuydado y quando las ha hallado le pessa.
—Cuales son las demas?
—Vna suçiedad en la cama, y los cuernos, si su muger se los pone.

—Ori da bat yru gausetaric esan eroena Ganasac aditu joela guisona, cuydadu ascogas. Ta ydoro asquero oy dauela damu.
—Ta seynsuc dira vesteac?
—Ycuscatasumbat o e a n, ta adarrac y m i n i t e n badeusas Emasteac.

Ene iritziz, zabalduegiak daude adar oriek garai artako euskal-liburu bakanetan, baita esaera zaarretan ere, orduko euskaldunek aotan artzen etzituztela uste izateko. Eta ori, iri andietan ez ezik, baserrietan ere gertatzen bide zen. Eztut sinesten, esan bearrik ere eztago, gerok, euskaldunok, asmatu genduenik metafora ori, metafora baldin

bada. Bai, ordea, beste anitz gauzatan bezala, laster aski eta muziñik egin gabe gereganatu genduela.

Mikoleta'gan beragan arki diteke gaiñera *Celestina*-ren aipamen garbia. Joane adiskidea ari da Peru zaldunarekin izketan:

—Essa ya se llamara comida y no almuerço

—Porque?

—Porque dicen que a buen comer o a mal comer tres vezes se a de beber.

—Ay diçe nra. Madre Çelestina que esta corrupta la letra, que por dezir treze, diçe tres.

—Ori errasti guey emon dite xatecoa ta es almorçua.

—Segayti?

—Serren esan daroe, xateco onari edo deunguearri yrru bider edangodala.

—Or diño gure ama Çelestinac dagoala letrea corrumpiduric, serren amayrrugayti diñoala yrru.

Enau geiegi arritzen orduko euskaldunek —erdal-teatroa ere izaten zuten ezkero Nafarroa'n, Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n beintzat— *Celestina*-ren berri bazutela jakiteak, baita eskolatu gabeek, irakurtzen etzekitenek ere, aren izena eta gertaerak aotik belarrira eta belarritik aora zebiltzalarik nai ta ez. Egungo egunean bertan, landuxeak geralarik geienok, eztitugu irakurri, ezta alderatzeko ere, aotan darabilzkigun obra guztiak. Literatur-historia irakasten ari direnak egiñaalak egiten dituzte ikasleei oek irakurri eztituzten —eta seguru aski sekula irakurriko eztituzten— obra frankoren mamia edo bederen usaia eskeintzeko: orain zinema izaten dute lagun zenbaitetan orretarako.

Are geiago. Zenbat bider eztira irakasleak berak besteri entzunaz eta irakurriaz baliatzen azaltzen dituzten obrak azaltzeko? Emen ari zaizuena, esate baterako, eginbide orretan aritua da aurten eta, lotsagarri baiño lotsagarriagoa bada ere, eztu beiñere *Celestina* irakurri, bizpairu zatitxoz landara. Okerrago oraindik. Badira emengo eta ango literaturen historiak idatzi dituztenak —eta eztut berriz ere nere burua nabarmendu nai— azaltzen eta epaitzen dituzten irakurgai guztiak irakurri gabe. Liburuen orriak ebaki gabe, zenbat kritika ez ote dira egin eta egiten?

Antziñakoei gai orietan artu diegun aurrea, ez ote da sarri itxurazkoa egiazkoa baiño areago? Aietariko askok ezin irakur zitzaketenak irakur genitzazke. Baiña, eta or dago kakoa, irakurtzen ote ditugu beti?

* * *

LUISA MISERIKORDIAKOA, LARRAMENDI ETA PEÑAFLORIDA.—Leengo batean Ibiñagabeitia'tar Andima adiskideak zenbait oar eta zuzenketa bidali zizkidan Caracas'tik nere *Historia de la literatura vasca*-n agertzen diren argitasun eta iritzien inguruan. Besteak ere jakingarriak zirelarik, bat josi zitzaidan gogoan. Andima'k uste du eztela Peñaflorida Luisa Miserikordiakoaren izenaren azpian izkutatzen den Azkoiti'ko 1762'gn. urteko *Gavon-sarien* egillea, Aita Larramendi baizik.

Iritzi ori, dakidanez, Manuel Lekuona jaunak agertu du leenbizi, *Egan*-en orrialde oetan (1956, 5-6, 31-32 or. batez ere). "Nik egia esan —dio—, Loyola'ko eskua ikusten det argi ta garbi kantu polit oietan, Loyola'ko esku jakintsua. Eta esku ezagun-ezagun bat gañera, A. Larramendi'ren esku bipil ta alai, eta maltxur ta desairetsua."

Bertso zoragarri orien aitasuna Peñaflorida'ri eman nionean, Manterola eta Urkixo'ren ondotik nenbillen eta oek berriz, oker ezpanago, aoz-ao zetorren eta Aizkibel'ek jaso zuen esanaren ondotik. Orrelako probak, naiz kanpo-aldekoak eta axalekoak izan edota axalekoak eta kanpo-aldekoak direlako, sendoagoak izan oi dira obraren mamia eta barrena aztertuz atera ditezkeanak baiño, azterketa orretan ikertzale bakoitzaren joera, zaletasunak eta sena geiegi nabarmentzen baitira. Gertatzen ere da, ordea, batzuetan lekukoak makur mintzatzea eta emen ere orrelako zerbait gerta zitekeanik ezin uka eta Lekuona jaunak ederki azaldu du nondik zetorkean lekukoen utsa. Baditeke, alegia, Peñaflorida izatea kopla orien argitaratzaillea, egillea etzelarik.

Barren-aldeari bagagozkio, leenago joko du begiz edozeiñek Larramendi egilletzat Peñaflorida baiño, baita Aita Meagher eta orduko beste edozein jesuita ezagun baiño ere. Peñaflorida, *El borracho burlado*-n ikus dezakegunez, euskaldun garbia zen, izkuntza sendo, ugari eta betearen jabea; idazle gaillenaren eta egiazko poetaren maillara eltzeko, aatik, geiegixko falta zitzaion. Ziria sartzen eta adarra jotzen ere, etzen gure kondea eliz-gizonaren pareko mutilla.

Izena izengoitipean estaltzeko izan zitzakean arrazoi sendoak Lekuona jaunak agertu ditu. Orrelakorik gabe ere, gogoz gordeko zukean bere burua Aita Larramendi'k emakumezko gonen azpian. Izengoitiak, gizonezkoak baziren ere, bestetan erabilli zituela badakigu.

Zoritxarrez, lepoa egingo bagenduke ere orrelakoxe jolas-bertsoak onduko zituela Larramendi'k, iñoiz ondu bazituen, eztaukagu bere eskutikako besterik, dakidanez, oekin erkatzeko eta berdintzeko. Bertsotan asi zenean, edo beintzat bertsoak argitara zituenean, adar epikoa jo zuen geienbat. Eta ikus dezagun nola orrua eragin zion adarrari poesiaren Fray Gerundio onek, *El impossible vencido*-tik artu dut perla polit au:

Españarren anciñaco hizcuntzan

Amalaudún

Nor, goi Lenén, izán da, garr-orí
Piztú devaná? ausartzí, edó onesgún?
Ausartzí; ordeá fiñ: onets, indardún.
Amodió ausárt zan, ta onésle-usartzí.

Etzeván aberéc usté egotzí
Zeuré ausartzián cerbait icigún:
Cégocan gustú batí (etzán mindún)
Zuré onesgún chingártzen zanarí.

Auxé, escutagái zeuré Esposarén,
Garturíc irtén zan ain biciró,
Non arraió batí da berdindú.

Ta chimistá ain beró oní, ceñarén
Polvorác, mirets dánean luzaró,
Balarén indarrá ción fidatú.

Ezta bear bada alferrik izango Larramendi'k berak amalaudun illunxko oni ezarri zizkion argibideak onera aldatzea: "*Nor izán da,* izandú, edo izatú da, *piztú,* viztú, iracequí, *devaná,* duená, *gar,* edó car *orí. Lenén,* orí berá esan nai deu *Principe,* nolá Latinez badiogú, *principem locum tenere,* lenéngo lecuá, edó lecu lenená iduquítzea, euquítzea. *Lenén goiá,* goituá, goicoá, goratuá, orobatézcoac dira hitz oec (synonimos): etá emén ez hítzai, báicic hítzaquin esán, edó adierazo nai degunarí oartú bear gátzaizca. *Ausartziá* alá déritza valentiari: *onesguná,* onetsí, amatú, maitatu; etá andíc *onesguná,* amorea, maitetasuna. Gañeracoa erráz da..."

Eta obe agian erdal-itzulpena ere aldatzea (zein da ordea zeiñen itzulpen?):

El que encendió essa llama fulminante,
Fue valor o fue amor, Principe Augusto?
Valor; mas fino: amor; pero robusto.
Amor valiente fue, y valor amante.

No audaz imaginó bruto arrogante
Introducir en tu valor el susto:
Solo a un gusto aspiró (y era buen gusto),
Que fue ver centellear tu amor flamante.

Este, hecho escudo de tu Real Esposa,
En llama se vibró con tal presteza,
Que a la del mas violento rayo iguala.
Y a centella tan rapida, y fogosa,
La polvora, admirando su viveza,
Fió todo el impulso de la bala.

Badirudi badagoela zenbait alde Barrokoaren lore mardul onetatik gaurko beste nonbait aipatzen den gizarte-poesiaraiño. Baiña Góngora'k, adibidez, ez ote zion ezer irakatsi Miguel Hernández'i?



ZINEMA

Lotsatzen banau ere, aitortu bearrean naiz ia arrastaka eraman nindutela Ingmar Bergman'en "El séptimo sello" ikustera, baiña zorionez eraman ninduten, arrastaka bada ere. "Zazpigarren..." zirelako film geiegi ikusia nintzan, batetik, eta etzidaten oroitzapen atsegiñik utzi. Eta naiago izaten dut, bestetik, arte-gaietan egiten diren aurrerapenak urruti xamarretik ikusi. Bide ibilliak, betikoak, erosoak eta maldarik gabeak izan oi dira, ezagunaren ezagunez aspertzen bagaituzte ere. Saioak, probaketak, berriz, ezin uka bearrezkoak direnik, ezpailitzake bestela lurralde berririk arkituko. Baiña zaarrak erosoak bezain nekagarriak gertatzen dira bide berriak. Obe da, noski, Góngora edo Joyce irakurtzea bestek aztertu, barrendu eta adierazi dituen ondoren, eta alaz guztiz ezin ditzaket irakur tantaka eta pittinka baizik. Bide berrietan barrena abiatzeko nagitasun ori zabalduxea dago, nolanai ere: ez ote dute orrelako zerbaitekin topo egiten, bein baiño geiagotan euskal-idazle berriek ere?

Nere nagitasunak eta nere bildurrek etzuten oiñarririk. Ingmar Bergman'ek eztu film orretan izkuntza berririk asmatu. Ongi dakien eta ongi dakigun izkuntzan dakarren mandatua, ordea, oi ez bezalakoa da agitz. Zineman oi ez bezalakoa esan nai dut, mundua bezain zaarra eta arrunta baita gaiñerakoan.

Zalduna aspaldi utzi zuen jaioterrira atzera itzuli denean, izurrite izugarri batek illunduak dauzka Suezia'ko lurrak. Izuak eten ditu gizonengan lotsaren eta prestutasunaren lokarriak. Eta itsas-ertzean nekeak eragin dion lo-alditik iratzarri orduko zai dauka eriotza, janzkiak beltz eta arpegia zurbil, eliz-gizon baten gisan.

Eriotzaren itxura larriak berritzen dizkio betiko galderak: Jainkoa, il-ondoko irautea ala ezereza. Eta azken orduetan asten da noranai, argi-eske, bide-billa. Jainko-billa dabillela esan diteke. Ez, noski, Orixe'ren antzera, nai lukean Jainko ori ezpaitu ezagutzen eta zalantzarik gabe aitortzen. Nolazpait ere ezagutzen du, ordea, Pascal'en ura (eta barka besterena baldin bada, Pascal'ena izan bearrean) egia baldin bada: "Etziñake ene billa ibilliko, aurkitu ezpaninduzu."

Zaldunari josia, ezkutaria dijoa, gorputzari erraiñua itsasten zaion bezala. Eztu nagusiaren gogo-urduritasunik ez kezkarik, baiña ezta, emen norbaitek esan duenez, gizonagan aurki ditekean loiaren irudia. Ausarta da eta graziak ukitu eztuen gizasemea izan ditekean bezain ona: gizonki jokatzen du beti eta, gizona den aldetik, eztio batere zorrik zaldunari. Federik eztu eta eztu fedearen bearrik sumatzen. Bizitzak irakatsi dion jakinduri mingotsa daki eta orrekin artu du etsia, orrek gogoa ase ezpadio ere.

Bergman'ek eztu beraz, eta ezta au merezimendu laburra, ezkutaria beztu nai izan zalduna areago edertzeko. Alaz ere, ikusleak egingo luke zaldunarekin egin duela bat berak, zaldunarenak direla bere kezkak eta galderak. Miresgarria da, benetan, Jainkoaganako deadar larri au Ipar-aldetik etortzea, diotenez munduko gauzetan ain murgildua dagoen Ipar-alde otz orretatik. Ezta noski fededunaren deadarra, baiña bai bederen fede-gosearen oiua.

Gairik goitarrena ezta ezer zineman ez beste edozein artetan irudi egokietan mamitzen ezpada: zenbat ere jasoagoa gaia, ainbat ere andiagoa izan oi da erorikoa mintzaerak languntzen ezpadio. Film onetan eztago orrelako desegokitasunik: asieratik azkeneraiño, ikuskari beldurgarriak egiaz dira beldurgarri eta atsegingarriak egiaz atsegingarri, beiñere utsik egin gabe. Azala beti da mamiaren ide jatorra.

Nere begi-adimenak eztira zenbaitenak bezain zorrotzak eta eztut esango film onetako sinbolo guztien funts izkutua —sorgin gaztearena, esaterako— ezagutu dudanik. Egillearentzat berarentzat ere argi eta garbi ote zeuden beti?

Sinbolo berrien artean, pertsona ezagunak ere ikus ditezke "Zazpigarren Zigillu" onetan: Joxe komeriantea, emaztea eta semea, gure artean dabillen Familia Santuaren erraiñu bizia. Gezurra dirudi, baiña egia da zinemak, ain beeratua eta gaitzetsia izan den mintzabide onek,

eztuela, mandaturik zuenean, mandatu bat besterik ekarri, beiñolako Mendiko Itzaldi artako mandatua: zorionekoak gogozko beartsuak, otxanak, urrikaltsuak, biotz garbikoak, paketsuak... Eta ori fededunengan eta fedegabeengan: Chaplin'engan, Capra'rengan, Fellini'gan, Bardem'engan.

Ikusi berria nuen "Psychosis", beti gogoko izan dudan Hitchcock'ek bere pekatuzko bizian egin duen pekaturik larrienetakoa. Eztago berdindu besterik onek ikuslea iñarrosteko azken-alderako gorde duen ikuskizun lazgarri ura "Zazpigarren Zigillua"-ren bukaerarekin. Gaztelu zaarrean, zaldunaren emaztea ari da irakurtzen, guztiok adi dagozkiolarik: "Eta Bildotsak ireki ukhan zuenean zazpigarren zigulua, silenzio egin zedin zeruan oren erditsubat." Zeruko ixiltasuna jabetu da gazteluko gelaz. Zai daude eta zai gaude atea noiz irekiko, atean zer ikusiko... Eta ezin-burutuzko ixiltasun luzean entzuten dira azkeneko aldiz zaldunaren dei larria eta ezkutariaren erantzun otza.

Eztugu atea zabaltzen ikusi. Ezin zezakean iñork erakuts, ez Ingmar Bergman'ek ere, ez begik ikusi ez belarrik entzun eztuenik.

L. Mitxelena.

ZAZPIGARREN ZILDAIA

Zazpigarren zildaia (Ingmar BERGMAN)
Zinema ta alkarrizketa

Zineko obraren gogoeta asi aurrez, jakiñeko aitortza egin bear da. Begien aurrean igarotzen zaion irudizko mundu aierutsuan, bakoitzak bide edo bidetxior norberebizikoa aukera ta jarraitzen duela.

Filmetan, aparteko kanpu egokia dago siñu, itz eta fotogramen aukerarentzat. Orrelaxe eraikiberritzen degu filmak adieragin digun mundua. Zinema-izkuntzaren esan-naia ulertzeko, aukeramen au besterik ez daukagu.

Alako film edo olako autore bati buruzko polemikak jakiñeko inpernura darama. Itsumena izan oi da beti arremaneziña duten eztabai ta aburu oien zigorra.

Aozko edo idatzizko jardunak —zinemari buruz beintzat—, eskatzen du birtute bearrena ta garaiena: bestearen tokian norbera jartzen saia, ulertu bera ta alamoduz zeure edo neure iritzia obeki opa dizaiogun.

Gizakiak urreragotzeko metodu txit aberatsa dagokit zinematografi gaien dialogua.

* * *

Itzaurre au oraintsu izan ditudan esperientzien ondorena da. ANTONIONI'ren azken filmak ikustera itxaropenez beterik joan giñan. Maisu kutun baten liburu berria eskuetan lenbizi artzen degun antzera. "L'avventura"-ren antzea, ordea, neretzat, azal utsa da. Ain barren txarra utzi zidan, "La notte" ikusi gabe etorri nintzan.

ANTONIONI'ri ez dizkiote, bada, txalo ta gorazarre txepelak egiten ainbeste espiritu landu ta bizkorrek! Bañan...

"La source", BERGMAN'en filma ikusi ta ateratzean, neure aukerapena iraultzen nentorren. "Zergatik utzi dituk, Jainkoa, neskatxaren irain ta erailtzea?" "Zergatik, nere apentza izugarria?" "Ez ulertzen, Jainkoa." "Bañan, arren, barkaidak. Bestela, nola bizi, arren barkatzeko eskatzen ez badiat." Ona emen, nion, film onen mamia, Bergman'en mandatua.

Banijoan, bada, ta Paris'ko Saint-Sulpice enparantzako zine atarian, "La source"-ri buruzko periodiku kritika ta iritziak irakurtzen gelditu nintzan.

Begira, "Libération"-en kritikalariarena: "Zein da film onetan, Bergman'en mandatua?" "Bergman'ek barne-muiñetan itsatsia dauka, aragiaren ziztarekiko kristau kontradizioa: bizitzaren gozotasuna darion iturri berberaren anatema."

Iritzi ezberdiñagorik! Alare, jarrai nezake neure iparraldera naramaten pausoetan, beste bide paralelo edo zearkakoetan ikusten ditudan gizon, eta bidegurutzetan topo egiten ditudanekin solasalditxo bat egiteko txangoa artu gabe? Ez al nuke, BLOCK zalduna, Juan morroia, neskatxa mutua, Jose ta Maria Mikeltxo'rekin, basoan gabaz sartu baño len kontu kontari egon ziran bezela, nik ere egin bear etorkizun bat daukagun gizakiekin?

* * *

Ikasbide bikaiñak jaso ditut, benetan, "Zazpigarren zildaia" dala ta, adiskidetasunezko alkarrizketatik.

Gure adimen irudipenak aukeratu zituzten gauzatxoak adiskideari azaldu aal izatea:

BLOCK gurutze-gudu zalduna, barne utsuneak jota, denbora alperrik galduaren kontuaz, konzientzia oñetaraño erorita. Ezetz dio ezerezari, "ezereza ezin ditekelako", bañan alare illunpetan dabil burruka "Simismenaren sufrimentuagatik", "Zentzu ta adimenez Jainkoa aditu ezin zekenagatik". Bizitzak ez dauka arentzat sentidurik, Jainkorik gabe. Ta azken egunetan leiaz lortu nai duan "egintza bakarrak" gizarte ta gizakiekiko onginaiarekin baño bere buru utsaren kezkarekin zerikusi aundiagoa du.

JUAN morroiak, berekin artzen du neskatxa mutua; komedilariaren arriskuan alde irteten dio; sorgiñ surtara kondenatua libra eziñak barrenak kixkaltzen dizkio.

Egia ta miraria, munduan, aldian, gizartean bizitzea da beretzat. Eriotza ta andikaldekoa, utsa ta illunpea. Ta orregatik, ixillaldera igaro baño len, asarre deadarra izango da Juan morroiaren azken itza ta egintza.

Bergman'ek tipo bi auekin, gizonaren saiets bikoitza azaldu nai izan digu: aldian, munduko bizitzan, eta andikaldean, eriotzeratzean.

Giza balio bikoitz au garbi baiezten du, neretzat, Bergman'ek bi pertsona antagonista oiekin.

"Zazpigarren zildaiak" galdera askorentzako gaia du.

Eriotz izugarriena ez da JONAS komedilari gonazalearena; ez da ere sorgintxo bizirik errearena. Dudarik gabe RABAL exteologuarena.

Zergatik Rabal'en eriotz izugarri ori, egarriz itotzen ta min-ikaraz ler eta ero zorian, izurri beltzaren atzaparretan?

Zergatik bazter apokaliptiko aretan, inpernu atariaren irudizkoan? Ta zergatik dijoa bakarrik neskatxa mutu gaxoa antuxun urarekin deadar aien laguntzan?

Erio dantzan, epilogoan, ez dijoaz ez Mutua ta ez KARIN, zaldunaren emaztea, amar urtetan gazteluan zintzo senarrari itxoin diona.

Birtutezko bizitzak indartu du ta azken unean paketsu iragarriko die gazteluko maian Erio'ren etorrena, Apokalipsis zabaldu ta irakurriaz: "Ta Bildotsak zazpigarren zildaia askatu zunean, ordu erdi batetsuko isilaldia egin zan zeruan."

Begien aurrean euki bear genduke beti gertakizunen mamiari igerri nai diogunean, bereala geure idea ta pentsakeraren moldetan sarrerazten saiatzen gerala.

Badugu guk itxaropena, gizadian ta gizaldietan ainbeste aur, emakume ta gizonezko, munduko bazterretan gose, gaixo, ezjakin, gudu ta persekuzioetan beren egun labur ta beltzak atsekabetan eraman bearra izan dutenak, atsekabeak berak, soillik, berrerosiko dituala.

Filosofi ori bera errez erantsiko genioke gure sueziar autoreari, Mutua eta KARIN'en salbazioa nolabait ulertzeko.

JOSE'ren ikuskizunak, MARIA'rentzat irudipenak dira. Bañan an dijoa mendiz gora ildakoen kate luzea, nolabaiteko dantza jokatzen.

Bergman'ek misterioaren kezka sakona du; ez dut zalantzik. Badirala iñolaz ere arrazoiak eta jakintzak ulertu ezin dituan gauza eta gertaerak.

Zerbaiti baldin badio iguiña Bergman'ek, positibismuari ta zientifizismuari. Bere film "ANSIKTET" (Arpegia) da orren lekuko argiena. Baita "Zazpigarren Zildaian" ere nolako erantzun garratza ematen dion Zaldunak Juan morroiari, onek penitentzizaleen erromeriak ta zauriak aztikeri ta sorginkeritzat etsirik, jakintzaren izenean kondenatu nai dituanean.

* * *

Adiskidearen alkarrizketak gure giltzarri antzeko diran idea ta aburueri zenbait alderdi ta kolore neurekoiak azaleraño atera zizkien.

"Zazpigarren zildaiak" zorioneko aldartea eman zigun geu ta besteak obeto ezagutzeko ta era berean zenbait gogapen sakonagotik ausnarberritzeko.

GUN HILL'eko azkenengo trena

Filme onen diretorea da JOHN STURGES. Oeste'ko pelikuletan ez du au lenengoa. Onen aurrez ikusi gendun —illabete batzuk badira—, berak egindako beste drama bat, JOHN FORD'ek aspaldi "PASION DE LOS FUERTES" deitu zion ixtori edo gertakizun sonatu bat gaitzat artuaz.

GUN HILL ipar ameriketako sartaldean dago. Errixka onetatik urrian bizi da KIRK DOUGLAS, sheriff. Onen emaztea, bi gazteren tratu txarrez, bide bazterrean illa gelditzen da. ANTHONY QUINN'en semea da bi oietako bat. Rantxo aberatsaren jabea; lurralde zabalak eta azienda ugaria ditu, bei ta zaldietan. Aspalditik adiskideak dira KIRK eta ANTHONY, sheriff eta rantxojabea alegia.

Arek, emaztearen erailleak atzeman ta tribunaleren aurrean ipiñi arte, ez du atsedenik artuko. Zin egiten du. Aurki eltzen dio bada, jokuetxe batean, ta espetxean sartzeko, azkenengo trenaren zai egon bear. Bitartean, hotel bateko gelan sartzen dira. Bañan semea askatzeko asmotan, or dator aita bere mutil ta morroi guztiakin, armaz josita. Hotela, gaztelua bailitzan, esitzen dute inguru guztietatik, ta... Nola aterako bereakin sheriff ori, ainbeste gizon ta ixkilluren artetik?

Galdera ontantxe daukazu bada film onen mamia. Tranpa orretatik nola aterako den? Etzaitu zalantza onek ordubetean utziko. Bertatik zintzilik egongo zera. "Suspense" deritzana orixe besterik ez da: gertakizuna zertan geldituko ote den kezkatan egotea.

Ez dizut nik korapilloa askatuko. Erabateko nere iritzia laburkiro emango dizut, pelikula oni buruz.

Drama nai du izan batipat. Ta dramari, kanpoko ixtillu eta zaratak baño, gizonen barruko kezkak ta biotz etenak obeto datozkio. Orrexegatik, beste western askotan ainbat zaldiketa, tiro, burruka ta odol ixurtze ez dago. Dramaren aria artu dezu, noski: aita bati, semetxoaren aurrean, emaztea, ta ama, iraindu ta illa utzi diote. Nork? Bere adiskide zaarraren seme bakarrak. Orra bada drama. Senarraren maitasuna ta agintariaren eginbearrekoa alde batetik. Seme erailleaen bizitza gorde nairik, aita alarguna bestetik. Ta adiskidetasun zaarraren lokarria, bien artean.

Trajedietan, eriotzak burutzen ditu gizonen arteko auziak. Ta Oeste'ko pelikuletan, naiz trajediaren tankerarik ez izan, berdin.

Jakiñekoa daukazu, bada, trajedia onetan odolak eta eriotzak izan bear duela azkenengo itza.

ZULOA (La evasión)

Zuloa deitzen diñot film frantsez oni, berez jatorrizko izena ala baitu *(Le trou)*. Jacques BECQUER-ek egiña da. Ain zuzen, oraintxe urtia da PARIS-en lenbizikoz bota zutela ta egillea, aste batzuk lenago illa zan. Sariak ere irabazi ditu geroztik. Aintzak eta goralpenak eman zaizkio, artista onen izena, zinemaren edestian oroitua izan dedin. BECQUER'ek, lendik irabaziak zituan merezimendu goitarrak, zazpigarren antzea deritzan zineman. Berea dezu, gure errietan ikusi al izan den film bakar bat aipatzeko, LES AVENTURES D'ARSENE LUPIN, Arsène Lupin'en adurketak. Geiago aipa nezazke, bañan oraiño gure artean ez dira ezagunak, eta ez dio ajolik ixiltzeak ere.

Gatozen "Zulora". PARIS'ko LA SANTÉ deritzan espetxeko gela batean bost preso arkitzen dira, epai astunaren zai ta beldurrez. Igesegitea erabakitzen dute. Gelatik bertatik bidea PARIS'ko kaleetaraño, nola zabaldu? Gelaren lurra zulatu ta espetxez kanpoko alkantarilletaraiño asmatu dute nundik nola irten. Eragozpenak izugarriak dira, egunez eta gabaz zaitzalleen begiak ate leiotxotik begira baidituzte. Bañan gizon zorrotzen adimena ortantxe probatzen da. Eragozpenez ta oztopoz bete bideak; irteerak itxi ta esi; alare adimen zorrotza tarte extuena izan da ere, bertatik pasatzen saiatuko da, ta besteai eziñezkoa deritzaiotena, berarentzat pazientziz ta adur pixka batez ba ditekena besterik ez da.

Bazuten lagun bat, bost preso oiek, bizkorra, esku onekoa, iñor bada, ta gañera lanean ondo ikasia. Ez baizun lenengo igesegitea espetxetik. Aaztu baño len, film onen gaia gertatua da. Iru egiazko protagonisten laguntzaz idatzia. Ta gañera, taldearen gidari ta buru izan zanak, espetxean egin zuna bera egiten du pelikulan ere.

Olako gertakizunak, gizonaren almena zenbaterañokoa den adierazten digu eta zinemarako gai guztiz egokiak izaten dira.

Bañan, nola kontatu orduterdian, egun da gau askoren buruan gertatu zana egitan? BECQUER aiñako artista ez dan batek, gertakizunetik aria artu ta pantasi ta piper ta ixtilluz inguratu ta nobela bat besterik ez zigun emango.

Ez ordea BECQUER'ek. Ariari eldu ta jarraitzen dio zuzen azkeneraiño, asmaketan ta ixtillu tentagarrietan erori gabe. Bost gizon

oien dramari egotzi zaio zinemalaria, bañan ain egotzi ere, ikusmiran gaudenok ipnotizaturik bezela bai gagozkio ixtoriaren ariari lotuak, nundik eta nola eten edo aska bear ote duan sumatzen. Or dauzkagu geure begien aurrean, jokabidea osatzen; zaitzailleen pausoak periskopio antzeko batekin jarraitzen; gabaz zulo-giñean; alkantarilletan eten gabeko lanetan; JUDAS-en bat tartean ote duten kezkatan...

Ia musikarik ez du film onek. Zenbat esatea den ori! Irudiaren mugitzeaz bakarrik bildu ezin dancan ikuslearen arreta, musikaren doñu sarkoiaz antzokia girotzea ez bait da ain zailla. "ZULOA" ordea, zinema izaki, zinema garbia; ta musikaren bearrik gutxi. Irudi soillez ta mugimentu, aldatze ta denbora ikasiaz argazkiak erabilliaz, zoramendurik gauzka, ia unetxo baten ere utzitzeke. Oparo zor zaio txalo beroa orrelako antzegille trebeari.

Ikasbidea edo dotriñarik ez digu, jakiña, film onek erakutsi nai. Bañan bai gertakizun jakingarria. Gizakien griña, bizkorra, ta auleriak batera dakarzkiguna. Ta gizonak, film onetan ezagutzen ditugunak, egiazkoak dira; ez irudimenez tajutuak.

Orrexegatik, gertaera egiaz ta antzez kontatzen zaigulako, ez gaitu "ZULOAK" utsean lagatzen. Gizakiak zertxobait obeto ezagutzeko ere balioko digu.

GURUTZ ANSOLA.

ZINEMA EUSKAL-HERRIAN?

Euskeraren etorkizuna zer izanen den, horra zer dugun gogoan eskualtzale gehienek. Eskuara biziko denetz edo ez, eztut gai buruhaustegarri hortan sartu nahi. Bainan oraitik goiti, bilatzen eta jakiten ahal ginuke zoin litazken eskuararen salbatzeko bideak. Asko baitire, bat bakarrik nahi nuke aipatu artikulu huntan: zinema.

Gauza jakina da begiek ikusi gauzak gogoan atxikitzen direla barneki, irakurri edo entzuna baino hobeki. Bestalde zinemak (eta laster telebixioneak) ikusliar gero eta gehiago biltzen ditu. Eskuarari buruz, zer laguntza handia ez litaken beraz.

Hastetik erran behar dugu, zinema, eskuararentzako laguntza handien eta baliosenetarik bat balin bada, gauza karioenetarik ere dela. Eztugu beraz ukatuko eskuarazko zinema bat, oraikotz, nekez sortarazten ahal dela. Bainan etorkizuna antzinetik ikusten eta moldatzen ahal da.

Zer behar litake beraz zinema bat gurea egiteko? Dirua lehen lehenik eta miliunka. Geroztik tekniko batzu, dela zinema egile, dela aktore edo jokalariak. Diru kontuan traba handiena ezta bakarrik bere atxemaitea, bainan filma bat eskuaraz egin eta, denek badakigu jende gutirentzat egina izanen litakela. Zinema ikusliar gehienak, Eskual-Herrian, toki erdaldunenetan daude (Donostia, Bilbao, Bayona...). Baserrian aldiz, zinema toki eta zinema ikusle guti arkitzen dira. Hitz batez, eskuaraz egin filma batek ezluke ordainduko bere baitan gastatu dirua.

Hala ere, baditake egun batez eskualdun aberats batzuek, edo beharba diputazionek filma bat eskualduna egin nahiko eta ahalko dutela. Bertzalde Parisen ikusi ezperientza bat etsenplutzat hartzen ahal dugu. Hemen duela zenbait denbora, filma-egile gazte batzu hasi dire gastu gutirekilako filmak egiten. Tekniko guti hartu dute, filma gehiena "décors naturels" (dela karrika, dela etxe, dela baserria) direlakoetan itzuli dute. Eta azkenean "star" edo "vedette" gabe

aritu dire. Hola gastuak salbatu dituzte milunka. Eta beren filmak ("Les 400 coups", "A bout de souffle"... ta beste holako ezagun asko) denetan emanak izan dire, eta besteak bezain onak dira (edo bezain txarrak, hori beste gai bat da, laster ikusiko dugu "nouvelle vague" hori fite zahartzen).

Eskual filma egitekotan, bixtan dena da bide hori segitu beharko ginukela. Atzerritik etorri bost-pa-sei teknikorekin, hemengo antzertilari profezional eta onekin beste jokolari "amateur" andana batekin, Eskual-herriaz eta eskuarazko filma bat egin ditake. Kalitate oneko filma bat, erran gabe doa. Baliotasun hori tekniko eta jokolarien gain dago.

Teknikoen bilatzea lehenbiziko gauza da. Eta, lehen lehenik, ixtorio-egilea. Harek ixtorio berri bat asmatuko du, edo bertzenaz, nobela batetatik ateratu zerbait zinemarako moldatua. Ixtorio egile harek beharko du ere Eskualduna izan eta Eskual-herria ongi ezagutu, eskuara ongi jakin. Bainan ahantzi gabe zinema ekipo batek egin bauza bat dela. Eta ixtorio egilea ezpada eskualduna, haren sahetsean izaiten ahal du kontseilari bat, eta hura eskualdun jatorra. Gauza bera "metteur en scène" delakoentzat: Eskual-herrian eztut este badugunik (salba bat, hemen Parisen, zineman eta telebizionean ari den Angelutar gazte bat, Raoul Sangla) bainan obe dugu "metteur en scène" erne, burudun, bere ofizioa errotik dakien bat, erdalduna izanik ere, eskualdun hasi-berri edo ez-trebatu bat baino.

Filma-egilea eskualduna balitz, hobe. Berak baititu antzertilariak gidatzen. Bainan hori lortu ere gabe filma bat eskuaraz sortzen ahal da. Ez dezagun anhantz Rosselini eta Renoir'ek, indianoa jakin gabe bi filma eder egin dituztela Indian eta Indiaz. Ez dezagun ahantz ere, Alemania'ko filma ederrena (Scanderberg) Youtkevitch rusianoak egin duela. Eta berrikitan aleman filma-egile batek "Etoiles" filma miresgarria, Canneseko zoin-gehiagokan sariztatua, Bulgarian itzuli du.

Bainan gelditzen zaiku jokolarien problema. Eztut ongi ezagutzen antzerti edo teatroari buruz hego Eskual-herrietan egiten dena. Bainan, Lapurdin ikusi dut, urte batez, antzerti zoin-gehiagoka bat; Lehenbiziko saria irabazi zuten Hazpandarrek eta bigarrena ukan zuten Miarriztar jokolarien artean baziren hamar bat gizon eta neska aski onak. Segur naiz Bilbon, Donostian eta beste tokitan beste hainbeste atxemaiten ahal dela. Jokolari hoieri ongi erakutsirik (eskualduna berez aktore hauta baita) lan ona lortzen ahal litake.

Traba handi bat, halere, ahantzi dut. Zoin eskuara erabili filma hortan? Gastu ttipiko eskual liburuetan problema hori balin-badugu, zer erran ginezake eskual filma batentzat? Ezpada eskualdun gehienentzat konpreni errexa, diru oraino gutiago eginen du. Eztut uste euskalki osotu berri hura aski "ontua" zaikula. Bainan, ahalik eta

hobeki egiteko, Eskual-herri erdiko euskalki bat hautatu behar ginuke, dela Nafartarra (zoin pollita eta zoin argia den!) dela Gipuzkoako Goierrikoa. Eta Euskalki bat hartuz geroz, jokolari guziek berenganatu beharko lukete, komparazione, biz-pa-hiru aste euskalkiaren tokian iraganez.

Filma-gaiaz azken itz bat. Eztut uste "baserrikeri" bat asmatu behar ginukela. Beti orhoituko naiz zer penarekin Baionako antzokia eskualdunez beterik ikusi nuen, bainan Altzaga gaixoaren "Ramuntxo" tetelekeriaren ikusteko. Baginuen jadanik "Ramuntxo" liburua (gaixo Loti nola komprenitu gaituen!), "Ramuntxo" opera, "Ramuntxo" filmak, bat gerla aintzinekoa eta aski ona, bertzea berriagoa eta sosokeri hutsa, zer behar ginuke bertze "Ramuntxo" bat! Eta obra nere ustez ahula. Gainetik jokolari eta antzerti-obraren buruak, euskalki bat (Nafarro-lapurtarra, bixtan da, Bayonan aritzeko) hautatu ordez, erdi gipuzkoarrez, erdi baxe-nabartarrez egin-arazi zuen. Zer nahas-mahas, niork (eta hasteko jokolariek berek) ongi konprenitzekoa! Ez, filma bat noizbeit egiten badugu Eskual-herrian, ez gaitela eror usaiako hutsetan: kontrabando pixkat, pilota partida bat, dantza, kantu eta... ianga! Utz ditzagun usaiako eskualkeriak, eskualduna azalez irakutsiz, eta mamiaz ez. Bi bide segitzen ahal ditugu: lehena, filma bat "documentario" gisaz eginez, Eskual-herria zer den erakusteko, eta holako batean Barandiaran batek, edo Caro-Baroja batek zer laguntza eman ez dezaken! Bainan kasu hortarik kampo ixtoriozko filma bat egitekotan, atera gaiten ohiko bidetarik.

Filmaren ixtorioa, berdin ikusiko nuke Bilbon edo Donostian iragaiten, han kokatu eskualdun batzuen artean, gure lurraren sustraia ahantzi ez duten jenden artean, bainan dembora berean hiri handiko eztabaida eta gai garrantzikoak ezagutzen dituztenen artean. Bainan jakiña, hori ezta ideia bat baizik. Denetan, baserrian, kostan, hirietan bezala, eskualdunak dituen maitasunak, herrak, alde onak eta txarrak, hots bere bizia, bero-beroa, bere berezitasunarekin eta bere betitasunarekin erakutsiaz.

Bizpahiru asmo botatu ditut beraz artikulu huntan —gaiak ixtudio gehiago mereziko luke—. Bainan nahi izan dut beste eskualtzaleak, bereziki zinemazaleak, auzi huntan sar diten. Eian artikulu hunek ondorioak izanen dituen?

Badakit ere, egungo egunean, eskuaraz egin zinema bat ametsa dela oraino. Bainan biharko egunaz ari naiz. Agian laster etorriko da. Eta zinema, errepikatzen dut, zer bide sarkorra eskuara zabaltzeko!

MIXEL ARTABIA'K.

Parisetik.



LIBVRVAK

EUSKALERRIKO BERTSOLARIEN TXAPELKETA. Itxaropena Argitaldaria. Kuliska Sorta, 43-44'garren zenbakia. Zarautz'en, 1961.

Igazko abenduaren 18-an, "Victoria Eugenia" teatroan Euskaltzaindiak, Donostia'ko "Centro de Atracción y Turismo"-ren laguntzarekin, antolatu zuen goiz-arratsaldeetako jai ederraren ondoren ederra da liburu polit au. Or irakur ditzakete nai bezain astiro txapelketa artan izan zirenek eta etzirenek gure bertsolarien etorri ugariak eta egokiak sortu zituen bertsoak.

An kantatu ziren bertso guzien aurrean, kantu-lana ain gogozko duen Aita Antonio Zabala'ren itzaurrea dator. Legezko zen, izan ere, bertso zaar eta berriak biltzen eta ezagutarazten eta bertsolarien izena jasotzen ainbeste saiatu eta saiatzen den gizonak aurren-itza bere izatea. Eta azkenik, jai-bukaeran Antonio Arrue euskaltzaiñak bertsolarien eta euskeraren alde egin zuen itzalditxoa dator.

Orrezaz gaiñera, badu liburutxo onek asieran iztegi labur bat, euskal-itzak bear bezala euskeraz azaltzen dituena. An agertu ziren bertsolariak Euskalerriko alderdirik geienetakoak ziren ezkero, irakurle askori emen edo an bear duen laguntza emango dio.

Argazkiak ere baditu, elkarren leian egun artan ibilli ziren bertsolari guzienak, "Basarri"-gandik asita, zein bakoitzaren bizitz-argitasunekin.

Eztago noski iñori eskatu bearrik liburu ori irakur dezan, gogoz eta iñoren deirik gabe irakurtzen baitira orrelakoak gure artean.

RAMON ARTOLA. *Sagardoaren graziya ta beste bertso asko.* Auspoa Liburutegia, 1. Tolosa'n, 1961.

Bilduma berri au irten zaigu bearrik plazara, utsune larri bat betetzera. Utsune asko ditugu, baiña utsuneen ugariak ez ginduzke egonean egotera beartu bear, dirudienez beartzen gaituen bezala, baizik eta laster baiño lasterrago lanerako prestatzera. Tolosa-aldean asi zaizkigu beintzat egiñaalean, Jainkoari eskerrak, bear-bearrezko sail batean.

Goi-gorengo literaturaren gaillur gorriak landu bear baditugu, eztitugu orrenbestez irakurgai erraz, guztientzakoak, bertan beera utzi bear. Eta azken urteotan euskal-gaietan egin ditugun aurrerapenez miretsirik baldin bagaude —ai, aurrera egin bagenitu beti aurrerapen oriek!—, eztago aaztutzerik aurrerapen oriek, gaurko izaerak eta egoerak aldi igaroetan dutela erroa eta oiñarria, batez ere oraindik orain, atzo esan dezakegu, euskeraz mintzatzen, itz lauz naiz neurtuz, aalegindu ziren idazle eta bertsolariengan.

Leku berezia utzi nai die "Auspoa"-k, besteak beste, gure gurasoen eta aiton-amonen aldiko Gipuzkoa'ko idazleei. Zuzen, noski, gogoan baititugu oraindik sarri aski aien itzak, naiz aien izenak bein baiño geiagotan aaztuxeak eduki. Erramun Artola au berau da lekuko, eta lekuko bikain, liburutxoaren itzaurreak gogorazten digun bezala, 1959'garrengo abuztuaren gauerdi batean Tolosa'ko "Zeru-txiki"-n entzun zitekean kantaren inguruan: "Bertso auek eun urte dituzte eta, guk dakigunez, iñoiz inprentatu gabeak dira. Eun urteko muga bizi bizirik igarotzeko, zenbat aldiz kantatu izan ote dira Tolosako —eta Euskalerri guztiko— taberna-zulo ta sagardotegietan?"

Liburu ontan bildu diren Artola'ren bertsoak —ez ondu zituen guziak, ezta alderatzeko ere— iru zatitan berez omen ditezke, eta itzaurrearen ondotik nabil berriz ere: 1880'garren urtea baiño leenagokoak aurrenik, Manterola'ren bertso-bildumari eskerrak batez ere ezagun ditugunak, 1880 ezkero *Euskal-erria* aldizkarian geienbat agertu zirenak eta azkenik "Egunaren eta urtearen erak" izena daramatela emen argitara direnak. Azkeneko orien artean dago "Illunabarra" ezaguna.

1880 aldean, Manterola'ren eta bere aldizkariaren inguruan sortu zen euskal-joera eta zaletasuna zela-ta, bide berritik jo omen zuen Artola'k, gorago bearrez, bere bertsoak eta bertsoen bidez izkuntza jaso naiez. Itzaurregilleak —Aita Zabala'k, noski— eztu uste, ordea, bide berritik abiatzeak bertsoei onik egin zienik, gizonaren eginbideetan gogo bizia eta nai sutsua, zein ere goragarriak diren, ezpaitira aski izaten.

Artola'ren ixuri eta gaitasuna bertso ariñetan, anakreontiar orietakoetan, agertzen dira batez ere. Maitasun-bertsoetan ere ba omen du Bilintx'en egitea, eta ezta arritzeko, biek elkarren kidetsu zirelarik. Alaz ere, nere ustez, naiz izkuntza aberatsagoaren jabe izan bear bada, falta zaio Artola'ri eziñaren naigabeak Bilintx'en bozari eman zion kemen nabarmena.

Liburutxo onek, naiz guztien eskuetarako izan, badakarzki alaz guztiz edizio kritiko bati eskatzen zaizkion argitasun guztiak. Bat baiño geiago naasi duen Artola'tarren armiarma-sarea ere ederki azaldua dago asieran. Eta liburua bera asiera ederra dugu luzaroan iraun bear duen sail batentzat.

Ar bitzate "Auspoa"-koek gure zorionik beroenak. Ezpizaie bientzat uts egin euskaltzaleen laguntzak.

MARCELINO SOROA LASA. *Gabon. Au ostatuba!! Anton Kaiku.* Auspoa Liburutegia, 2. Tolosa'n, 1961.

"Auspoa"-ren bigarren alea, ongi merezirik, Soroa'ri, "Omar Celin Oasor" sonatuari, eskeiñia dago. Ezta noski Soroa, orain dakigunez, euskal-teatroaren azia leen aldiz erein zuena, ospe ori —eta ez ori bakarrik— Barrutia aramaioarrari dagokion ezkero, bai ordea euskal-teatro berriaren aita eta teatro berri ori baizik ezta izan Euskalerrian bizi iraukorrik ezagutu duenik.

Soroa'ren bizitza eta obrak —bestean Erramun Artola'renak bezala— ederki azalduak daude ale onen asieran. Gero, emen erabilli den idazkeraren berri ematen zaigu zeazkiro: idazkera gaurkoa da, baiña zaarraren ajola duten berextasun guztiak aditzera ematen dituena.

Ergelkeria galanta litzake komerigille gaillenen ereduaz baliatzea Soroa'ren jostirudi oek maixeatzeko. Etzuen ark iñongo mugaz gaindi egan egin nai izan ezta ere iñoren markarik autsi. Bere erritarrei, orduko donostiarrei, parre-algara lasaia eta ajolakabea eragin nai zien ezkero, etzuen bere egitekoan utsik egin.

Eta guretzako zer dakar Soroa'k? Biotz-ixuri xamurrez baizik ezin ikus dezakegun euskal-teatroaren jaiotza eta Donostia zaarreko izkera eta oiturak. Etzigun gezurrezko irudirik utzi Soroa'k, ezpaitziren ordukoek gu adiña leiatzen gain-aldeak edertzen, azpiko utsak

leengoan iraungo badute ere. Eta Donostia'ko izkeraz eta oiturez gaiñera, joxemaritarren gaskoin-usaiko umore berezi orren ale bat edo beste.

Soroa ezagutzen eztuenak liburu au irakurtzen baldin badu, eztu agian egillea Molière'ren parean ipiñiko, baiño etzaio ez damurik ez nekerik geldituko.

11'garren orrialdean "La farce" irakurri bear litzake.

F. APALATEGUI, S. I. *Euskal mutillak armetan* I. Auspoa Liburutegia, 3. Tolosa'n, 1961.

Baditeke batek edo bestek liburu au arrimenez irakurtzea, asieran besterik zela uste zuelako. Ezta, izan ere, obra oso eta landua, askozaz geiago dena baizik: orrelakoren bat karlisten bigarren gerrateaz egin nai duenak nai-ta-ez bearko dituen gaien bilduma.

Aita Apalategi donostiarra, itzaurreak esaten diguten, luzaroan aritu zen gai-bilketan eta iltzerakoan Gipuzkoa'ko Diputazioari utzi zizkion bildutakoak oro. Etzituen paperean finkatuak dauden gaiak biltzen, urte gutxi barru gizonaren oroitzapen argaletik aztarrenik gabe galtzen diren oroitzapen biziak baizik. Orrela ibilli zen Aita Apalategi, bati galda eta besteari zirika, gerrateko berri zutenen artean, eta etzuen paperetan idatzi gabe utzi aien aotik entzun zuenik.

Ezta noski gauza bera Pirala baten liburu larriak irakurtzea eta Aita Apalategi'ren kuadernoetan barrena sartzea. Eztira emen ikusten ez gerraren gora-beera andiak ezta arkitzen ere agintari eta buruzagien asmo eta usteen berririk. Bada ordea besterik, Pirala'k eztakarrenik: egun emen eta biar an, nola eta zertarako eztakiela geienetan, dabillen edo darabilten soldaduaren nekeak, naigabeak, usteak, pozak eta damuak. Aspaldidanik ikasia dugu (Stendhal'en *La Chartreuse de Parme* ezkero?) eztutela elkarren antz andirik historilariaren irudi zabal-apaiñek eta burrukan sartua dagoen txingurri bakoitzak bere leio mearretik ikusten duenak.

Arreta gutxi opa diegu Euskal-errian iñoren oroitzapenei. Gogoan dituena bizi deiño edo geienez ere aren itzen oiartzun laburrak diraueiño irauten dute, eta ez geiago. Pozik egon gindezke, beraz, orrenbeste ta orrenbeste betiko itzali bearrean zeudenean Aita Apalategi'k gorde dituelako. Beste liburu bat datorkit gogora, bestelakoa

bada ere: Olazabal'en *El cura Santa Cruz*. Baditeke or irakurlearen iritzia egillearenarekin bat ez etortzea, baiña iñork eztezake uka bildu zituen argitasun ugarien balioa.

Diodan gai oek egilleak utzi zituen bezalaxe, batere orrazketarik gabe, argitara dituzte "Auspoa"-koek. Arras txalogarria da jokabide ori: gai billuzkorriek dute or ajola, ez orien apaindurak edo apaindurarik ezak. Uts bat badute orratik, baiña Aita Apalategi'gandik datorrena eta ezin-zuzenduzkoa orrenbestez. Onek euskera garbia maite zuen, maiteegi apika, eta etzuen etsiko entzuten zituenak nolazpait ere zuzendu eta apaindu gaberik. Ortik datoz itz berriak eta berak seguru aski jaso etzituen esaera bitxiak. Barkakizun da, ordea, orretan ere. Bere garaiko joera baitzen ori, Azkue'k berak ere burutik burura segitu zuena. Erriko gizonaren lekuko leial izaten Barandiaran jauna izan dugu geroztikakoek gidari, beste sail askotan bezalaxe. Orain esanen mamia ez ezik, azala ere gorde nai izaten dugu.

Norbaitek novelaren bat egin nai baldin balu garai ortaz obeko du "Auspoa"-koei eskerrak eskuetara dizkiguten joskurarik gabeko oar oek irakurri bestelako liburu lodi asko baiño. Eta historia egin nai duenari ere, barrengo eta ziñezko historia baldin bada, eztio kalterik egingo oriek astiro astiro ikuskatzeak.

M. CIRIQUIAIN-GAIZTARRO. *Los vascos en la pesca de la ballena*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. San Sebastián, 1961.

Bear bezala egindako lan bat irakaspide ugariz betea dago edozeiñentzat. Orixe gertatzen da esku-artean daukadan argitasunez ongi ornitutako liburu lodi eta trinko onekin. Zorionez gaiñera eztu iñor izutu bear liburuaren lodiak eta trinkoak egillearen idazkera biziak arintzen duen ezkero.

Aspaldidanik dakigu joera berezia duela Ciriquiain-Gaiztarro jaunak itsas-gauzetara eta, joera ori dela bide, ezagutza ugari ere bildu dituela itsasoaren antzera ia ondorik eztuen sail orretan. Historigaietarako gogoa eta gaitasuna ere aspaldi agertu zituen. Orain, itsasoa eta historia, itsasoko piztiarik larriena eta Euskal-erriko baleazaleak, elkarturik datozkigu bere azkeneko liburuan.

Arki zitezkean iturburu guztietara jo du argitasun billa, erderaz-

koetara eta baita euskerazkoetara ere. Or aurkezten dizkigu, beste askoren artean, bertsolari ez-jakiñak eta Joanes Etxeberri ziburutar jakintsua.

Burutik burura aztertuak daude emen balearekiko guztiak: nola prestatzen ziren orretarako ontziak, arrantzaren xeetasunak, arrantzaz baliatzeko modua, irabazien banaketa... Arrantza orrek gure artean izan zuen asiera illunaz ere astiro mintzatzen da egillea. Ain zabalduak dauden eta ain gogoko ditugun usteak eztitu, egia esan, ontzat artzen, eta ezin ar zitzakean. Ez gera noski euskaldunok Ternua'ko lur elkorrak leenbiziko aldiz ikusi zituzten europarrak ezta ere arrantza orretara aurrenik ausartu ziren gizonak. Alaz guztiz, eta iñoren lumarik jantzi gabe, aski arrigarriak dira gure mariñelen ibillerak.

Eztu egilleak, oker ezpanago, ezer erabakitzen Bidasoaz alde bateko eta besteko euskaldunok aspaldidanik darabilgun auzian. Nik esango nuke, nere iritziak ezer balio badu, Baiona-aldetik etorri zitzaigula bale-arrantzarako eragiña eta are itsasorakoa erabat. Enaiz, bada, geiegi arritzen zarauztar batek aitortzen badu (184 gn. or.) bere aitak Ziburu'ko (orduko Zubiburu'ko) ontzi batean arotz zelarik ikasi zuela bale eta bakallao-arrantzaren berri eta ari eskerrak artu zutela gero Zarauz'ko mariñelek urrutietarako bidea. Eta Islandia'ko bazterretan 1600 inguruan entzuten zuten euskera (ikus N. G. H. Deen, *Glossaria duo Vasco-Islandica*, Amsterdam, 1937), gipuzkoarrak ere an geiegixko nabarmendu zirela dakigularik, Lapurdi-koa zen, dudarik gabe. Ziburu'k bere txikian Euskal-errietako edozein porturi aurrea artu ziola esan ditekelakoan nago.

Beste gauza askoren artean, zenbait euskal-itzen zentzuaz eta jatorriaz ere zerbait baiño geiage ikas diteke liburu au irakurtzean. *Lumera*, esate baterako, etzen "saiña" eta "balea" bakarrik: orrezaz gaiñera, eta oriek baiño leenago noski, saiña edo lumera ateratzeko egiten ziren suak eta labeak adierazten baitzituen.

Jesuita batek dionez, zenbait itz artu omen zituzten Canada'ko indioek euskaldunengandik, ala nola *oreña* eta *pilotua* "aztia". Ederki azaltzen du Ciriquiain jaunak nola ar zezeketen azkeneko au adiera orretan (216'gn. or.): "...entonces, como ahora, los pilotos, léase el capitán o patrón del barco, son los llamados a ejercer una medicina e incluso cirugía de fortuna, cuando es menester a bordo". Etxeberri'k, orratik, argiro bereizten ditu beti patroiaren eta pillotuaren kargua eta egitekoa. Onako bertso oetan (*Manual Devotionezcoa*, I, 30), beste askotan bezalaxe, nori berea ematen dio burjesari (ontzijabeari), buruzagiari (patroiari) eta pillotuari, elizaren ontziaz ari dela:

Barkha hunen burgessa duc
ene Aita eternoa.
Ni nauc guero buruçagui
haren hurrenecoa,
Spiritu Sacratua
itsassoco pillotu,
Ceñac tormentetan baitu
bide onez guidatu.

Eta Etxeberri ziburutarra aipatu dudan ezkero, egilleak 20'gn. orrialdean dakarzkien bi bertso aldatuko ditut onera, "Balea hill ondoco esquerrac" deritzan zatitik artuak:

Ecen çure baithan tturroñ batec etsaja,
Vrrutic ici deçan nahiz dela hangaja.

Zer esan nai ote dute? Ciriquiain jaunak galdatu zidanean, enuen jakin zer esan eta orain ere leengoan nago. Iñork garbituko ote lituzke?

Liburuaren inguruan ibillia nauzute esan ditudanetan. Berorren barren ornitua eta mami aberatsaren berri nai duenak obe du, nere itzei jaramonik egin gabe, liburuan barrena murgildu. Etzaio iñoiz ere damutuko.

LORAMENDI. *Olerki ta idatzi guziak.* Itxaropena Argitaldaria. Zarautz'en, 1060.

Igaz "Loramendi"-ren omenez Bedoña'n egin zen jaialdiaren ondoren dator "Loramendi" zenari eta euskal-poesiari aspaldidanik zor genion liburu eder au. Orduko sariketan leen saria eramen zuten idazlanak agertu ziren *Euskera*-n. Orain, berriz, "Loramendi"-renak berarenak, neurtitzak eta prosa, datoz liburu onetan, maitekiro bilduak eta argitaratuak.

Biltzaillea Yurre'tar Julian Aita kaputxinoa izan da eta, Bedoña'tar Joakin kaputxino-gai zenaren lanak arretaz ta osotoro biltzeaz gaiñera, argibide ugariz jantzi ditu. Ori gutxi eztela, aren bizitza eta lanak ederki azaldu ditu bildumari ipiñi dion itzaurrean.

Badu liburuak itzaurreaz landara beste itzaurre edo erdiko itz bat, arras biziki, egoki eta, onela esan baditeke, toleskabeki idatzia: "Orixe"-rena "Loramendi"-ren olerkiaz. Zuzen baiño zuzenkiago adierazten du bertan "Loramendi"-ren izenaren eta egiñen egokitasuna: "Izan ere, lore oriek igali edo arnari biurtu baiño len il zan gizagajoa".

Nolanai ere, lore ugaririk utzi zigun "Loramendi"-k, fruitu eldurik emateko astia kendu bazitzaion ere. Erromantiko purrukatu ark bazuen bere garaiko olerkari gutxik adiñako etorri eta itz-aberastasuna; baita, aldizka, aberatsaren aberatsez, itz ozenen eta irudi distiatsuen osiñean murgiltzeko isuria ere. Dena den, beti trinkoak ezpadira aren bertsoak, biribil-biribillak izaten dira geienetan.

Ongi mereziak dituzte eskerrak igazko omenaldia eta aurtengo bilduma au argitaratzen saiatu diren euskaltzale azkarrak.

AITA BASILIO PASIOTARRA. *Elurra ta sua. Santa Jema'ren bizitza.* Irun'go Aita Pasiotarrak, 1960.

Onelako gaietan sartzeko nor ez naizen ezkero, eztitut noski esango Iraola'tar Basilio Aita Pasiotarrak egin duen liburu onezaz esan bear lirakean guztiak. Bestek esan eta esango ditu nere bearrik gabe.

Mundutar baten begiak badira ere begira daudenak, alde onik asko ikusten dute. Santa Jema'ren bizitza berri onek baditu ia 450 orrialde eta nekerik gabe irakur diteke burutik burura, ain dago ederki antolatua, banatua eta kontatua. Izkuntza ere jatorra du, joria, eta joria bezain erraza.

Maiz esan oi da, eta okerrik gabe noski, irakurgai irakurgarrien bearrean gaudela gure izkuntzan. Euskal-irakurleen egarri ori berdintzeko, bada, berebizikoa da bere saillean Aita Basilio Pasiotarrak idatzi duen liburu au.

KEREXETA'TAR JAIME. *Apostoluen Egiñak.* 1961.

Oraindik orain idatzi nuen —azkeneko *Egan*-en, gaizki ezpanabil— izango nuela luzatu gabe Kerexeta jaunaren idazlanez berriro ere mintzatu bearra. Epea ezta luzeegia izan. Agertu baitu, Bizkaian ainbeste zabaldu den *Jesu-Kristo Gure Jaunaren Berri Ona*-ren urren, aren ondorengo eta osagarri diren *Apostoluen Egiñak.* Aurrena eldu den ainbat eskuetara iritxiko aal dira!

Aurrekoaren egitura berbera du oraingo onek, paperez eta azalez. Egitura txukun-atsegira. Izkera era leengoaren antzekoa darabil egilleak itzulpen onetan: ez apur batzuentzakoa, baiña aal ditekean neurrian landua eta jasoa.

Zorionak berriz ere, Kerexeta adiskidea, eta eskerrik asko dakizunagatik. Lau idazlan berri dauzkazu eskeiñiak: ea zein den aurrena.

AITA LUIS VILLASANTE. *"Nere izena zan Plorentxi". Angeles Sorazuren bizitza.* Itxaropena Argitaldaria. Zarautz'en, 1961.

Ama Sorazu zumaiarraren bizitza au Aita Villasante euskaltzaiñak idatzi du euskeraz, gorago ikus dezakezunez. Ezta, beraz, bestek esanak berresaten ari, berbera baita gai orrezaz lan sakon bat argitara zuena erderaz: *La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio místico de su vida* (Arantzazu'n, 1950-1951), bi liburutan.

Lotsagarri zeritzan, ordea, Jainkoaren mirabe onen berria bear bezain zabaldua ez egoteari bere erritarren artean: "Gurea degu, euskalduna lau aldetatik, eta ala ere zein gutxi dira gure errian Ama Sorazuren berri zerbait dakitenak! Orregatik, gure zabartasun onek min ematen zidalako eta barneak eskaturik, prestatu nai izan det liburutxo au, ark bere ezpaiñetan erabilli zuen izkuntza berberean."

Aita Villasante ezagutzen duenak —eta nork eztu ezagutzen izenez beintzat gure artean?— badaki nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditezkeanak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailletan. Eta emen, liburu onetan, bere-berea duen saillean ari da ain zuzen ere.

Nere jakinduri eskasa, berriz, ezta orreraiño edatzen. Uste dut, aatik, bear bezala egindako lanaren itxura ezagutzeko gauza naizela nonnai eta erraz aurkitzen da liburu onetan, iñon aurki baditeke.

Egillearen izkeraz, asko esan baditeke ere, eztago luzaroan mintzatu bearrik. Bere ibillera lasaia dela bide, iñor gutxirengan arkituko dugu gaurko euskal-prosan antziñako idazleen jatortasunaren eta gozoaren ispillu ain garbirik. Orrela pentsatzen eztuenak irakur beza, mesedez, astiro liburu au.

JULENE AZPEITIA. *Amandriaren altzoan*. Itxaropena Argitaldaria. Kuliska Sorta, 45-46'garren zenbakia. Zarautz'en, 1961.

Azpeitia'tar Julene andrearen izena ongi ezaguna da euskaltzaleen artean. Mesede asko egin dizkio leen gure izkuntzari, baiña bear bada guztiak baiño mesedegarriago izango delakoan nago azkeneko liburu au.

Aurrentzako ipuiak bildu ditu, Euskal-errikoak eta atzerrietakoak, bazter guztietan zabalduak eta zokoren batean baizik ezagutzen eztirenak, eta euskera sendo, erraz eta gozo batean kontatu. Ederki dio J. San Martin'ek bere itzaurrean: "Urri dira euskeraz *Amandriaren altzoan* bezin liburu onak aurrentzat. Geiago esango nuke: oraindik zentzunera sartzeke dauden umeentzat ere euskera trakets ta baldarrean egindako liburuak ikusten ditugula, pedagojiaren funtsik gabe. Nagusiak ere iruntsi eziñiko liburuak dituzte gure aurrak... Ipuin kontuan beintzat, Julene'k bete digu utsune aundi bat. Orain, Gipuzkoako umeak badute nun ase. Aurrentzat ez-ezik, nagusientzat ere *Amandriaren altzoan* izango da liburu au, bere oroitzapenen berbiztzalle izango dalako."

Aurrei dagokienez, eztut zalantzarik, neronek ikusi baitut zein gogoz eta erraz artzen dituzten. Eta orixe zen bearrezkoena. Aziagoek ere, ordea, badute emen bazka atsegiña, neure buruaz neur baditzaket besteak. Arrazoi osoa du alde orretatik San Martin'ek, gorago aldatu ditudan itzetan.

Aprenda el vasco en 60 horas. Texto: Andima Ibiñagabeitia. Voces: María Dolores Aguirre, Manuel Oñativia. Ediciones Miangolarra. Caracas, 1961.

Aurrean daukat gatzatua eta mamitua euskaltzain ezagun baten betiko ametsa: gramatika-pixarrik ere eztakarren euskal-ikasbidea.

Egia esan, eztaukat osorik eta beldur naiz ez ote dudan orrexegatik bidegabekeriren bat esango. Itxuraz, ordea, elukete izan bear diskoak liburuko itzen oiartzun bizia baizik.

Berrogei ta bederetzi ikasgai ditu, elkar-izketa uts-utsak guztiak. Sarreran dionez, badu gaiñera izketa orietan erabiltzen diren itz eta adizki guzien iztegitxoa, baiña eskuetan dudan aleak eztu orrelakorik.

Izketa-gaiak —oraingo gizartean maizenik erabil ditezkeanetakoak— ederki aukeratuak daude eta itzak eta esaerak —euskaldun ikasiari dagozkionak— egokiak dira; gorago esan dut Andima'k autatuak eta asmatuak direla. Uts gutxi arki lekioke ikasbide oni alde orretatik.

Auzia bestea da. Gramatikak baditu gure artean adiskide miñak eta etsai amorratuak. Adiskideak adiskideegi ditu, nere ustez, baiña ezta ori aski etsaiak zearo zuritzeko.

Izkuntza bat ikasi bear edo nai duenarentzat, gramatika ezta —ori bear luke beintzat izan— laster-bide bat besterik, igo bear duen aldapa latza menderatzeko eskeintzen zaion laguntza eta erraztasuna. Izkuntza batean mintzatzen ikasi nai duenak eztauka gramatikaren misterio sakonetan murgiltzeko gogorik ez bearrik. Gramatika ezta arentzat elburu, bide baizik.

Ori orrela izanik, aitor dezagun maiz gelditu izan direla besteren gidari dabiltzan euskaltzaleak eta euskalariak bide ertzeko loreei edo sasiei begira, eduki bear luketen jo-mugaz gogoratzeke. Gramatikazaleen geiegikeriak aski ote dira, ordea, gramatikaren laguntza gutxiesteko eta arbuiatzeko?

Nik, lege zaarrekoa naizelako edo nere ofizioak gramatikarekin zer ikusirik duelako, bestela deritzat. Nerau izkuntzak irakasten zerbait —ez geiegi bear bada— aritua naiz eta asko ezagutzen ditut egin-kizun orretan langille trebeak direnak. Eta guztiok, au da arritzekoa, gramatikaz baliatzen dira beti, gutxi edo geiago.

Bein ezagutu nuen gizaseme-mordo bat rusoz ikasteko zaletasunik biziena zuena. Etzitzaien gauza andirik falta: langilleak ziren eta ikasiak, gutxien zekienak bai baitzekizkien iru izkuntza. Maisua ere aukerakoa zuten, Vladivostok'en jaiotako radiotelegrafista. Baiña —betiko "baiña" madarikatua, Prai Bartolome'k esango zukean

bezala— Vladivostok'tarrak etzuen beiñere iñongo gramatikarik ikasi eta bere ikasleek etziren beiñere gauza izan rusoz ikasteko, *atec, syn* eta orrelako itz banaka batzuez kanpora. Eta, berriz esango dut, etzitzaien ez gogorik ez astirik falta.

Badakit edozeiñek ikasiko duela izkuntza bat —gaizki geienetan—, gramatikaren laguntzarik gabe ere, besterik egiten ezten lekuren batera aldatzen baldin bada. Orrela ez izatekotan, eztakit. Franko ezagutzen ditut izkuntzak, baita gurea ere, gramatika lagun ikasi dituztenak. Bestela ikasi duenik —leen esan dudan gisan ezpaldin bada— erakusten didatenerako, arri-koxkor xuri bat gerturik daukat egun seiñalagarri ura markatzeko.

Oraingoz, bada, bat nator Tomas apostoluarekin. Ura oker zegoen, ordea, eta baditeke ni ere oker egotea, ezpainaiz ura baiño geiago. Eta ziñetan poztuko nintzake Caracas'tik datorkigun euskal-ikasbide onek gezurtatuko banindu.

L. MITXELENA.



Euskal-Sariketak Markiñako eta Ondarroako neska-mutillentzat

Sariketa auen oiñarriak argitaratzen ditugu emen beste Ayuntamentu batzuek ere animatu ditezen aurrentzat alakoak jartzera. Auek, Ayuntamentu bi oriek eta Euskaltzaindiak batera antolatuak dira. Baiña nai ezpalitz eztago orrela egin bearrik. Ayuntamentuak bakarrik egin lezake, eta esamiñatzaillerik ezpaldin balu, Euskaltzaindiarekin tratatu ondoren oiñarrietan jarri liteke esamiñatzailleak Euskaltzaindiak bialduko dituala.—(A. I.)

1. Euskaltzaindiak eta Markiñako Ayuntamentuak, alkartuta, sariketa bat iminten dabe Markiñako neska-mutillentzat. Zazpi urtetik amaikara edo amabi urtetik amabostera izan bear dituez sariketarako izena emoten dabenak. Aurtengo abenduaren 8-a baiño leen egingo da, egun orretan sariak partidu aal izateko.

2. Markiñako Ayuntamentuak sari ederrak emongo deutsiez sariketara doazanai.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira:

a) Gitxienez kristiñau-dotriñako otoitzak jakin bear izango dira.

b) Gitxienez sei bertso-sorta desbardin gura dan bozean buruz kantetan jakin bear da. Euskaltzaindiak 1960 urtean argitaratuta da-

goen *Euskal-kantak* liburutik ikasi leitekez gura direanak, baiña beste edozein liburu edo bertso paperetatik ikastea bardin da. Esamiña-egunean zeintzuk dakizan esan bear dau bakotxak esamiñatzailleak guztietatik bat aukeratu daien eta kantauerazo.

c) Esamiña-egunean bertan emongo dan *Ipuin-barreka* liburutik zerbait irakurri danaren kontua emon bear izango da. Aal dan guztia irakurtea komeni da esamiña eguna eldu baiño leen.

d) Esamiña-egunean diktadu bat egingo da eta alegiñak egin bear izango dira erratu barik idazten. Orretarako egokia izango da, esamiña eguna eldu baiño leen, kristiñau-dotriñatik edo beste edozein liburu errazetatik bein da barriro kopietan ekitea zuzen idazten oituteko.

e) Gura dan ipuin bat idatzi bear izango da buruz. Bakotxak bere etxean aukeratu bear izango dau eta ikasi, eta alegiñak egin bear izango dira albait onena izan daiten aukeratuten dan ipuiña.

f) Esamiña-egunean gai bat emongo da aren gaiñean bakotxat zerbait idatzi daian. Itaun batzuri erantzutea izango da bakotxaren zuurtasuna neurtzeko.

4. Izenak 1961-gko. zemendiaren 30-erarte artuko dira Markiñako Ayuntamentuan. Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

5. 1961 abenduaren 8-an partiduko dira sariak, eta aurrerengo gelditu direanak, publikoaren aurrean, dakien zerbait esan edo kantauko dabe.

Beste sariketa bardin bat imini dabe Euskaltzaindiak eta Ondarruako Ayuntamentuak alkartuta. Ondarruako sariak 1961 abenduaren 24-an partiduko dira.

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.
Ejemplar suelto: 25 Ptas.
Suscripción anual: 60 »

EGAN: Ejemplar suelto: 20 Ptas.
Suscripción anual: 50 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 80 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN